



Turismoa, kultura eta garapen iraunkorra



Organización de las Naciones Unidas para la Educación, la Ciencia y la Cultura
 Hezkuntza, Zientzia eta Kulturarako Nazio Batuen Erakundea



centro unesco euskal herria
 centro unesco pays basque
 unesco centre basque country

Mike Robinson irakaslea Turismo Ikasketetako irakasle katedraduna da, bai eta Sheffield Hallam Unibertsitateko (Erresuma Batua) Turismoari eta Kultura Aldaketei buruzko Zentroko zuzendaria ere.

David Picard doktorea Sheffield Hallam Unibertsitateko (Erresuma Batua) Turismoari eta Kultura Aldaketei buruzko Zentroko Senior Research Fellow da.

Egileak argitalpen honetan azaldutako ikuspegi, gertaera eta iritziak haren ardurapean geratzen dira, eta ez dute zertan bat etorri UNESCOren iritzirik eta ikuspegiarik.

Argitalpen honetan erabilitako izenek eta materialek ere ez dute inolaz ere adierazten UNESCOren iritzirik herrialde, hiri nahiz haien agintarien lege-estatusari buruz, ez eta haietako bakoitzaren mugei buruz ere.

Informazio gehiago nahi izanez gero, jo mesedez helbide hauetara:

Hervé Barré, programa-aditua, Kultura Politiketarako eta Kultura arteko Elkarrizketarako Batzordea, Kultura eta Garapen Saila, UNESCO

1, rue Miollis, 73732, Paris Cedex 15, Frantzia

E-mail: h.barre@unesco.org

Grafikoak eta azalaren diseinua: Stéphane Rébillon www.stephanerebillon.com

Printed by Socié Édition Provence (Nîmes)

© UNESCO, 2006

(Doc n° CLT/CPD/CAD – 06/13)

Izenburua: Tourisme, culture et développement durable

Izenburua: Turismoa, kultura eta garapen iraunkorra

Euskarazko argitalpenaren koordinazioa: Maider Maraña

Itzulpena: Leire Arano eta Ibon Plazaola (Bakun S.L.)

Maketazioa: Roberto Gutierrez

© Copyright

UNESCO Etxea, 2011

Euskal Herriko UNESCO Zentroa

Bizikidetzeta Plaza – Isozaki Atea

Uribitarte pasealekua 12, 2. lokala

48001 Bilbo

www.unescoetxea.org



Argazkiak:

Copyright

Asier Reino

www.asierreino.es

Gesaltza-Añanako argazkiak (37 eta 67. orrialdeko argazkiak – eskuin-eskuineko argazkia):

Copyrighta: Añanako Gatz Harana Fundazioa

Euskal Kostaldeko Geoparkeko argazkiak:

Copyrighta:

Javier Beristain (69. orrialdea, eskuin-eskuineko argazkia)

Gorka Zabaleta (85. orrialdea, eskuin-eskuineko argazkia)

Argitalpen honek Bizkaiko Foru Aldundiaren, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Arabako Foru Aldundiaren babesa jaso du.



**Kultura, turismoa eta garapen iraunkorra programa,
Kultura Politiketarako eta Kultura arteko Elkarrizketarako Batzordea,
Kultura Saila, UNESCO**

Turismoa, kultura eta garapen iraunkorra

Mike Robinson & David Picard



Hitzaurrea

Ziur antzean esan dezakegu azken hamarkadetako turismo-eztandari esker planeta honetako gizon-emakumeek azken urteetan inoiz ez bezala bidaiatu eta beste kultura batzuen berri izateko beharra sentitu dutela. Beraz, bai norberaren kultura eta arte-lanen bidez, bai iraganeko nahiz gaur egungo monumentuen bidez planetako biztanle guztiok elkar uler dezagun sustatzeko aukera paregabe hori probetxuz baliatuko badugu, geure buruari galde egin beharko genioke ea zertan gabiltzan gaur egun nazioarteko erakundeetan nahiz gobernu kanpoko erakundeetan (GKE) lanean dihardugunok, zertan politikari, eragile eta herritar soilok.

Gure iritziz, banakoak zein komunitateak, kulturak zein zibilizazioak elkarrekin lotzen dituen turismoari garrantzi handieneko zeregina dagokio kultura arteko elkarrizketan. Turismoak elkarrekin hobeto bizitzen lagun diezaieke mundu zabaleko gizon-emakumeei, horretarako baliabide aparta baita, eta horrenbestez, esan dezagun, halaber, UNESCOren konstituzioak dioena hona ekarriz, ahalmen itzela duela gizon-emakumeen gogo-bihotzetan bakea pizteko.

Zorionez, gainera, hainbeste turista erakartzeko eta garapena sustatzeko baliabide bikaina den kultura- eta natura-ondarea mundu guztian barrena banatuta dago, eta beraz, industrializatu gabeko herrialde askok ere aukera paregabea dute turismoaz baliatzeko. Horretaz jabetu beharra daukagu –turismoarako hezkuntza eta prestakuntzaren bidez egin beharreko lana, inondik ere–, lekuan lekuko komunitateak lan horretan sartuko badira eta ondarea babestu eta sorberrituko badugu. Erabat beharrezkoa da den-denak elkarlanean buru-belarri jardutea, pertsona nahiz herri pobreenen bizi-baldintzak hobetzeko eta pobrezia bera arintzeko bide horretan. Ezinbestekoa da, beraz, kultura- eta natura-ondarea babestea: batetik, turismo-garapen iraunkorrari zentzua emateko; bestetik, ondare hori denen eskura jarri eta kultura nahiz zibilizazio desberdinen berri zehatz-mehatz jakin dezagun; eta azkenik, pertsona eta herrien bizi-baldintzak hobetu eta munduko pobrezia desager dadin.

Nolanahi ere, xede horiek beteko badira, turismo-jarduera eta -politika kalitatekoak diseinatu behar dira: lekuan lekuko kulturak sakon ulertu eta iraunkor bihurtu behar ditugu, nolabait esatearren. Eta horretarako, jakina, tokiko komunitateen partaidetza piztu eta bultzatu behar da, kultura-ondarea babestu eta balioesteko lanean.

Turismoak ondorio txar eta kalte ugari ditu, baina ez dira inolaz ere ez ezinbestekoak ez halabarrezkoak. Eta, jakina, ondorio on eta iraunkorrak ere baditu gure kultura- eta natura-ondarearen babeserako, kultura-aniztasuna bermatzeko, ingurumena zaintzeko eta gizartearen arteko oreka lortzeko. Ziur gaude hemen planteatuko ditugun xedeak –kultura arteko elkarrizketa eta iraunkortasuna, eskuarki- hurbil ditugula, eta lortzeko modukoak direla, baldin eta erabakiak hartzea be-



ren gain dutenek nahiz turismo- eta kultura-kontuetan lanean diharduten eragileek, eta neurri eta modu berean, noski, baita lekuan lekuko gizarteek eta turistek berek ere, turismoaren eta kulturaren arteko korapiloak askatzen laguntzen badute. Hori guztia lortuko badugu, baina, oinarri sendo bat beharko dugu: kulturari eta garapen iraunkorrari buruz Nazio Batuen Erakundeak azken urteetan argitaratutako aldarrikapen eta agiri guztiak, inolako zalantzarik gabe.

Horrenbestez, hona hemen argitalpen honen xedea: kulturaren eta turismoaren arteko harremanen inguruan sor litezkeen galderei buruz eztabaida bat piztea, eta harreman horietarako kultura arteko elkarrizketak zer-nolako garrantzia duen aztertzea. Izan ere, erabakiak hartzeko ardura dutenek nahiz turismo-eragileek erantzun bat eman behar diete galdera horiei, edozein turismo-proiektu proposatu baino lehen. Turismo kulturalak UNESCOren testu, aldarrikapen eta gomendioen espirituari nahiz printzipioei jarraitzen die; haren gaineko politikak nola gauzatu behar liratekeen azaltzeko, UNESCOk eginarazi dituen edo haren babesean burutu diren zenbait proiektu aurkezten ditugu txosten honetan.

Turismoaren garapen iraunkorra sustatzeko konpromiso erabatekoa hartua du UNESCOk, bai eta hartako estatu kideek ere, eta orobat, sektore pribatuak eta gizarte zibilak –denak ala denak Nazio Batuetako zenbait agentziarekin bat-. Denok sobera dakigunez, kultura-aniztasuna babestea eta kultura arteko elkarrizketa sustatzea da haien guztien xedea.

Mounir Bouchenaki
Kultura-gaietarako zuzendari nagusiaren laguntzaile-ohia, UNESCO



Aurkibidea

HITZAURREA	4
SARRERA	8
Zentzuaren bila, turismoaren bidez	8
Turismoa: paradoxaz jositako mundua	9
Esperientzia nagusi	10
Testuinguru aldakorrak, erronka berriak	11
Txostenaren xedea eta egitura	12
1. ATALA: TURISMOARI, KULTURARI ETA GARAPENARI BURUZKO GAI ETA AUZI NAGUSIAK	14
HARREMAN KORAPILATSUAK	15
Garapena testuinguruan	15
Lehentasunak	16
TURISMOAREN BALIABIDEAK: KULTURA, ONDAREA ETA ANIZTASUNA	16
Kultura zer den ulertzea	17
Turismoak martxan jartzen dituen kultura-baliabideak	18
Konmodifikazio-prozesua	21
TURISMO KULTURALA, EKONOMIA GARAPEN MOTA BAT DEN ALDETIK	23
Turismo kulturala, ekonomia dibertsifikatzeko bitarteko bat den aldetik	23
Garapen-maila desberdinak eta kulturaren ustiaketa	24
Pobreziaren ondorioak arintzeko neurriak	26
Kultura-hornidurazko kate bat sortzea	28
TURISMOA, KULTUREN ARTEKO ELKARRIZKETA ETA ULERKUNTZA ERRAZTEKO BIDE DEN ALDETIK	29
Turistek eta lekuan lekuko herritarrek elkarrekin topo egiten dutenekoa	30
Ibilbideek jokutzen duten rola	31
Bitartekariak jokutzen duten rola	32
Komunikabideek jokutzen duten rola	33
Nola egin aurre mundu uniforme bati?	34
Turismoa eta turismorako hezkuntza	36
TURISMOA ETA INGURUMENA BABESTU BEHARRA	38
Turismoa eta naturaren espiritua	39
Inguru naturalak: ekosistema ahul eta zaugarriak	40
Natura-baliabideak turismoa sustatzeko erabiltzeak dituen ondorio kulturalak	41
Ekoturismotik turismo integratuta	42



2. ATALA: GOBERNU GAIAK, TURISMOAN, KULTURAN ETA GARAPENEAN	44
TURISMOA ETA KULTURA KUDEATZEKO ETA GARATZEKO EGITUREN BEHARRA	45
Turismo- eta kultura-politikak zehaztearen zailtasunak eta erronkak	46
Erantzukizuna, tentsioak eta ekintzak	49
Generoa	52
Eragileak edo interesdunak eta lankidetzak	53
3. ATALA: BITARTEKOAK SORTZEN – EKIMENAK LANTZEN: UNESCOK TURISMOAREN, KULTURAREN ETA GARAPENAREN ALORRETAN SUSTATUTAKO EKIMENAK ARAUGINTZA	56
Munduko kultura- eta natura-ondarea babesteko konbentzioa (1972)	59
Kultura-aniztasunari buruzko aldarrikapen unibertsala (2001)	60
Garapen iraunkorrari buruzko Johannesburgeko aldarrikapena (2002)	61
Kultura-ondare ukiezina babesteko konbentzioa (2003)	62
KULTURA BALIABIDEEN BABESA ETA ERABILERA	63
Jesu Kristoren ibilbidea: kultura-turismoko ibilbide bat, Palestinako lurraldeetan	64
Eskulangintzaren ibilbide bat sortzen, Erdialdeko Amerikan (Masaya, Nikaragua)	64
Kultura- eta natura-ondareko lekuen ahultasunaz kontzientziatzen	65
Basamortuko hiri islamikoen espiritua berreskuratzen, Mauritania	66
Turismo iraunkorrerako hezkuntza: jemertarren irribarrea babesten, Angkorren	67
Turismoa, kultura eta garapena, Mendebaldeko Afrikan	68
EMANTZIPAZIO EKONOMIKOA ETA POBREZIAREN KONTRAKO BORROKA	69
Kulturen eta gizon-emakumeen Sahara: turismo iraunkorra garatzeko estrategien bila	70
Diziplinarteko ikuspegi berritzaileak sortzen, Aral itsasoaren arloan	70
Kultura-turismoko politiken bidean, Baltikoan	71
Baliabideak kudeatzeko tokiko sistemak eta tokiko ahalegina, Asian eta Ozeano Barean (LEAP)	72
Turismoaren bidez komunitateak emantzipatzen, Erdialdeko nahiz Hegoaldeko Asiako mendialdeko eskualdeetan	73
KULTURA ARTEKO ELKARRIZKETA ETA BAKEA SUSTATZEN	75
Etorkizunean elkar hartuta ibiltzeko zubiak eraikitzen: kultura arteko bitartekotza, Balkanetan	75
Esklabotzaren ibilbidea: ezagutzak jakinarazten eta iraganarekin adiskidetzen	76
Ezagutza-sistema indigena eta lokalak, gaur egungo gizarte global honetan (LINKS)	77
UNITWIN sareak eta UNESCO katedrak	78
Kultura-aniztasunari eta turismoari buruz gogoetan: nazioarteko mintegia (Habana, Kuba)	79
NATURA GARAPEN IRAUNKORRERAKO ERABILTZEN	80
Herritarrak trebatzen, Sao Pauloko gerriko berdeko biosfera-erreserban	80
Turismoaren eta ondarearen bidez gazteen pobrezia arintzen: Youth PATH programa	81
ONDORIOAK	84
ERREFERENTZIAK	86



Sarrera

Zentzuaren bila, turismoaren bidez

Gaur egungo munduak Fernandoren egia bat ezkutatzen du: jendeak bidaiak egiten dituela, hain zuzen. Iraganean, gaurkoetz bestelako arrazoiengatik bidaiatzen zuten gizon-emakumeek: oinarritzko giza premiak ase-

tzeko (jatekoa eta aterpea bilatzeko, batez ere), diru-trukeak egiteko (merkataritza-kontuetarako, nagusiki), natura-fenomenoen eraginak saihesteko (bizileku berriak bilatzeko, lehortetatik nahiz uholdeetatik ihes egiteko...) eta konkisten nahiz gatazka armatuen kalteak atzean uzteko (okupazio, erbestealdi eta ezinbesteko migrazio zein lekualdatzeei aurre egiteko). Arrazoi horiek guztiak oraindik ere tartean izaten dira munduko biztanleen zati handi bati dagokionez; gaur egun ere badaude, bai, denok erraz ikusteko moduko erromesbideak. Baina, maiz askotan, alde batetik beste batera ibili behar horren arrazoiak oso bestelakoak izaten dira; hor dira, esate baterako, merkataritza-harremanen ondorioz egin behar izaten diren bidaiak, eta hor dira, halaber, diasporak zein lekualdatze demografikoak.

XVII. mendea amaitu eta XX. mendeak aurrera egin ahala, jakin-minaren, heziketaren eta gizarte-sustapenaren moduko motibazioak ezarriz joan ziren bidaia 'esentzialak' eboluzionatzen zuen heinean; lehenbizi, aisialdirako aukera berezi bat izan zen, baina geroago, garapen handieneko munduaren zatian, eliteen pribilegio bat izatetik masek eskura izateko moduko jarduera bat izatera igaro da; eta hori guztia egitura- eta zerbitzu-sare konplexu batean oinarrituta, gainera.

Errazegia litzateke gaur egungo nazioarteko turismoa gutxiestea, aisialdi-mota bat besterik ez dela esanez, eta esatea hark ez duela zerikusirik beste gizarte-jarduera 'baliotsuagoekin', edo haien aldean, maila txikiagokoa dela. Egia da, aisialdi-jarduera bat den aldetik, "denbora libre" deritzon horretan egiten dugula turismoa, jarduera tenporal berezi bat dela, eta eguneroko lanagatik ematen zaigun "sari" edo "ordain" moduko bat dela (Spode, 1994). Hala eta guztiz ere, turismoaren balioa ez datza norbanakoari emandako sari hedonista batean; gauzak ezin dira horrela planteatu. Balio horren berri emateko ere, ezin jo dezakegu batere zalantzarik gabe



turismoak sortzen dituen irabazi ekonomikoetara. Turismoa herrien arteko hartu-emanen oinarritzko printzipioetan oinarritzen da, eta, aldi berean, kulturaren adierazpen eta esperientzia da (Appadurai, 2002). Turismoa kultura da, eta haren inguruko jarduerak eta egiturak jatorri duen esparru kultural arauemailearen hedapena izaten da, zentzu ugarritan. Hori guztia den aldetik, turismoak itzeleko garrantzia du geure burua ulertzeko, bai eta gizakien eta bizi garen mundu ez-material honen arteko alde askoko erlazioak ulertzeko ere (Robinson eta Phipps, 2004).

Turismoa: paradoxaz jositako mundua

Turismoa fenomeno global bat da, ez dago zalantzarik. Planetako txoko gutxik egin dio ihes turistaren jakin-minari, edota pakete batean herrixkarik txikiena eta arriskutsuena sartzeko bidaia-antolat-

zaileen abileziari (Lanfant, 1980). 2005ean Munduko Turismo Erakundeak egindako aurreikuspenen arabera, 2020ra bitarteko nazioarteko iritsiera kopurua milioi eta erdi bidaiaritik gorakoa izango da (1.560 milioi bidaiari); horietatik, eskualde barruko bidaiariak 1'2 milioi izango dira, eta kontinente artekoak, berriz, 400 milioi. Itxura guztien arabera, Europak jasoko ditu bidaiari gehien -717 milioi turista jasoko ditu-; haren atzetik, Ekialdeko eta Ozeano Bareko Asiak jasoko ditu bidaiari gehien -397 milioi bidaiari-; atzetik, Amerikak -282 milioi bidaiari-; eta, azkenik, Afrikak, Ekialdeko Asiak eta Ozeano Bareko herrialdeek -batez bestekoaren gaineratik-. Hala eta guztiz ere, estatistikok baliaigarriak izan daitezkeen arren, zail samarra da, eta ez oso gomendagarria, turismoa ekonomia-sektore bateratutzat hartzea, edo bidaiatzen duten bitartean pertsona guztiek izango duten jokabide unibertsaltzat hartzea (Bruner, 2004). Are gehiago, bere garrantzi eta eraginari dagokionez turismoa globala dela esatean, ez da kontuan hartzen honako hau: munduan, gehiengo esanguratsu bat ez dela turismo-kontuetan turista gisa sartzan. Jarduera horren mozkinak banatzeko moduan diren oinarri-oinarritzko desberdintasunen berri ere ez du horrek ematen (garapen bidean diren herrialdeen aldean, tarte handiz baita mozkin mundu garatuaren aldekoa).

Turismoak hainbat mailatan funtzionatzen du eta, haren antolaera eta jokaerari lotuta, zenbait paradoxa eta tentsio izaten ditu. Hein batean, turismoa egitura zabaleko industria bat da, munduan barrena loturak dituena, eta mundu globalizatu batean jarduten duena; mundu horretan, kapital transnazionalen fluxua, multinazionalak eta ideien eta pertsonen mugimendu liberalizatuak dira nagusi (Lanfant, Allcock, Bruner, 1995). Dena dela, nazioarteko turismoari itxura batean eusten dion "deslurraldetzea" gorabehera, hura egiaz nazio-estatu kontzeptuaren inguruan biratzen den jarduera bat dugu oraindik; eta, jakina, nazio-estatu horietako bakoitzak erakunde eta sistema politikoak dituzte, premia ekonomikoak, gizarte- eta kultura-kapital bat, eta denak dabilta, azken batean, turismoak eman dakiekeen aberastasun eta estatusa lortzeko konpetentzia bete-betean murgilduta.

Batetik, turismoak sektore publikoaren eragin nabarmena du; batez ere, oinarritzko azpiegiturei dagokienez (energia, errepideak, lurreratzeko pistak, akueduktuak eta abar) eta bai turistentzat bai turismoan diharduten enpresarioentzat erakargarri izango den irudi nazional bat eman beharri dagokionez. Bestetik, turismoa, eskuarki, jabetza eta jarduera pribatuko negozio txiki eta ertainek osatutako samalda zatikatua ere bada; haiek koordinatzea ez da erraza, eta haien inguruko legeak egitea ere ez.



Turismoaren paradoxa nagusia hau da, itxura guztien arabera: irabazi ugari ematen dituela, batetik, eta, aldi berean, presio eta arazoak sortzen dituela, bestetik. Harekin lotura izandako leku eta komunitate guztiek etengabe izan dute tentsio hori. Tartean dauden kontuak korapilatsuak eta nabarmenak dira; batez ere, 'kultura'-kontuei dagokienez, halakoetan, balioak ebaluatzen zailak izaten baitira, eta, maiz askotan, auzi bihurtzen baitira (Saïd, 1978; Clifford, 1987; Cohen, 1993). Tentsio horiek arintzeko, hona hemen zein izan litekeen gure abiapunturik egokiena: turismoa aldakorra eta zabala dela argi eta garbi ikustea, eta ekar ditzakeen arazoak ulertzea, kultura-aniztasunaren garapen iraunkorrari eta kultura-ondarea gorde beharrari dagokienez.


Esperientzia nagusi

Maiz askotan, nazioarteko turismoaren izaera komertzialak (mikroekonomikoak nahiz makroekonomikoak) abstraktua eta inpersonala eman dezake, eta norberak izandako bizipenekin *loturirik* gabekoa, gainera. Turismoa, azken buruan, ez baita barru-barruko esperientzia pertsonalen multzoa baizik, berarena ez den kultura batekin turistak topo egitean sortzen direnak (Cohen, 2004). Turistak harrিতa eta emozionalki hunkituta gera litezke aurrean dutenari begiratuta: arte-lan bat, jaialdi bat, musika-emanaldi bat, eraikin bat edo museo bateko pieza bat. Kulturaren adierazpide ukigarri nahiz ukiezin horiek gaur egungo zein iraganeko mundua interpretatzen jartzen gaituen kliskagailu baten gisakoak dira (Canestrini, 2001); baina, turistek, halaber, kultura 'bizi-bizi' batekin ere egiten dute topo, kulturaren adierazpen diren eta usadioak nahiz aldaketak jasotzen dituzten beste bitarteko eta forma askotariko batzuen bidez.

Turismoaren hondorik sakonenean, desberdin hitz egin, desberdin jan eta desberdin jokatzeko duten pertsonekin egoteko abagunea izaten da. 'Desberdin bizitzeko modu' horiekin bat egitea baliagarri gerta dakiguke ikasteko, gure heziketarako; eta hori turismoaz harago doa. Hala eta guztiz ere, komunikabideen teknologiak eta errealitate birtuala aurrera badoaz ere, gaitza dirudi gizon-emakumeen arteko hartu-eman, elkargune eta kontaktu zuzenik izan gabe gertatzea hori. Guztiz funtsezkoa da gizon-emakumeak elkarrekin kultura askotarikoetan bizitzen ausartu daitezten, munduan nagusi diren gatazka gehienak kultura baitute ardatz: haien inguruan sortutako gaizkiulertu eta inkomunikazioak, bai eta kulturak desberdinak izatearen inguruko arazoien berri ez izateak, horrek guztiak eragiten ditu arazo gehien.

Hala ere, nazioarteko turismoaren motibazio nagusia inoiz izan ez diren kultura-bizipenak bilatzea dela esatea askotxo esatea da. Turista askok eta askok, zalantza izpirik gabe, beren inguruko zenbait alderdi baztertu beste asmorik ez dute izaten (Enzensberger, 1964), baina ez guztiak; maiz askotan nahiago izaten baitute *masa-turismo* deritzonari lotutako ingurumen-*burbuila* horretan gelditzea. Horrek ez du esan nahi *masa-turismo* deritzon horretan dauden pertsona guztiek kulturaren edo kulturetan interesik ez dutenik (Wagner, 1977); baina, edonola ere, egia da turismoa gutxi-asko polarizatuta dagoela: gizarteko alderdi jaso eta berezia da kultura, batetik; eta, bestetik, eguneroko bizimoduaren kultura bat ere badago.

Turista asko eta askorentzat, bereaz bestelako kulturekin eguneroko bizimoduan erlazionatzea erronka eta desafio izan ohi da. Turista garen aldetik –baita, ordea, pertsona garen aldetik ere–, gauden moduan mundu globalizatu batean egonda, etengabe izaten ditugu harremanak 'beste'



kultura batzuekin, eta halakoei esker, gai izaten gara esperimentatzeko haien alderdi berezianak bezainbeste denek baterako dutena ere. Turismoa izan liteke baliabide ezin boteretsuagoa beste leku, herrialde eta iragan batzuen berri jakiteko; ez, ordea, herrialde horren berri ematen ez duten maila handiko tokietara joanez eta jarduera handiosak eginez, baizik eta kulturak askoz modu demokratikoago eta egunerokoagoan ezagutzuz (Bouchenaki, 2004). Ikuspuntu horretatik, masa-turismoak berak ere baditu, sarritan ahazten baditugu ere, osagai kultural garrantzitsu askoak. Maiz askotan, beste kultura batekin topo egiten dugunean, esperientziarik zailena zer, eta menu bateko jakiak eta zerbitzariaren hizkuntza ulertzea izaten da.

Testuinguru aldakorrak, erronka berriak

Ikertzaileek interes handiz ekin diote azken urteotan turismoaren eta kulturaren arteko loturak ikertzeari, eta, ulertzeko denez, eskualdeetako, estatueta eta nazioarteko

politikan, ardatz bihurtu da. Politikei eta plangintzari dagokienez, lan handia egin da kultura, ondare-baliabideak eta natura-ingurumena 'babesteko', koordinaziorik gabeko turismo-garapen inprobisatuetatik babesteko (Robinson eta Boniface, 1999). Hasieran, turismoaren ondorio txarrak arintzen saiatu ginen (de Kadt, 1979). Hala ere, kulturaren konplexutasunak ulertu ahala, eta globalizazioak erritmoak eta aldaketak azkartu ahala, erronka berriak sortu dira, eta arazoei aurre egiteko moduak, berriz, antzaldatu.

UNESCOk *Munduko kultura- eta natura-ondarea babesteko konbentzioa* egin zuenetik (1972), lau aldaketa egon direla egiazta dezakegu, turismoaren eta kulturaren arteko interfaezei dagokionez. Lehengo eta behin, kultura kontzeptua eta gizarte-nortasuna eraikitze hark duen garrantzia ulertzeko gure modua nabarmen zabaldu eta sakondu da. Gaur egun, kultura-ondareari buruzko definizioari beste zenbait gauza gehitu behar zaizkio: ez soilik haren adierazpen materialak –objektuak eta monumentuak, esate baterako–; adierazpen-modu ez-materialak ere bai: hizkuntza, ahozko tradizioa, ohiturak, errituak, ospakizunak eta askotariko ikuskizunak, alegia. Beraz, aurrerantzean kultura monumentu eta lekuetan adierazten bada, berdin lotuko dugu hura *bizimodu* eta eguneroko bizitzarekin. Eta gainera, gaur egun guztiz onartzen dugu kultura-aniztasuna garapen iraunkorraren ezinbesteko osagaia dela, eta hala, ezinbestez, «gero etorriko diren belaunaldiei hura ezagutarazi eta hari eutsi» behar zaiola (UNESCO, 2001).

Bigarren, gaur egun askoz hobeto ulertzen dugu zer estu lotuta dauden kulturaren eta ingurugiroaren artean; jakin badakigu, biak ala biak babestuz beren baliabideak berritzeko moduan ipintzen ditugula. Kultura-aniztasuna estu lotuta dago *biodibertsitate* kontzeptuarekin, paisaiei forma ematen baitie; eta paisaia horiek dira dibertsitate genetiko, biologiko eta ekologikoaren arteko osagai guztiak gertatzen direneko gunea. Lotura bat badago, beraz, gizarte-, ekonomia- eta osasungintza-arazoen konponbidearen eta biodibertsitatea babestu eta garatzearen artean. Poseyk (1999) *lokarri askaezin* deritzon elkarrekiko lotura hori ere, jakina, garapen iraunkorraren ernamuinean dago. Ingurumenaren kontsumitzaile diren aldetik, turistek kontsumi dezakete orobat kultura, eta inguru natural zein paisaia batek izan ditzakeen kultur balioez erabat blaitu. Hala eta guztiz ere, ezin ukatu turistak inguru natural batera hurbiltzen diren guztietan beren ba-



lio eta kategorietan oinarriturik egiten dutela jauzia, eta balio nahiz kategoria horiek talka egiten dutela zenbaitetan lekuan lekuko jendeak dituenekin.

Hirugarren, nazioarteko turismoak etengabeko garapena duela onartuta ere, jakin beharra dago haren jardunbideek ere aurrera jarraitzen dutela etenik gabe. Nahiz eta, maila globalean, turismoak oso modu konplexuan eta barreiatuan funtzionatzen duen, esan liteke, oro har, turismoaren sektoreak dezente aldatu duela bere jarrera kultura-baliabideei eta lekuan lekuko komunitateei dagokienez. Egia da oraindik ere gauzak desberdin direla praktikan, baina oro har joera garapen iraunkorraren aldeko agenda bat egitekoa da, eta horrek argi eta garbi adierazten du turismoak baduela nahikoa gaitasun, kultura, ondarea eta ekologia oinarritzat harturik, merkaturua azpisektoretan banatzeko. Merkatuaren zatikatze- eta produktuen bereizte-prozesu hori ere kultura-turismoaren garapen-bide bertsuetan da, eta garapen-maila baxuko herrialdeak daude haien jomugan, halakoetan azpiegiturak eta ingurumena nahiz kultura ahulak direla eta, turistakopuru txikia har dezaketelako.

Laugarren –garrantzi handikoa, gainera–, arduradun eta planifikatzaileak, turismoak kulturaren eta ingurumenean izan dezakeen *inpaktua* aztertzeaz ez ezik, beste kontu batez ere arduratu beharko lirakeke: sektorea ahalik eta dinamikoena izateaz, garapen iraunkorraren eremuaren helburu eta xede gakoak kontuan hartuko dituen sektorea bultzatzeaz (Rauschelbach, Schäfer, Steck, 2002). Garapen turistikoari lotutako gero eta eragile-sare handiago bat dago gaur egun, eta hartan, nagusi dira lekuan lekuko elkarteak eta estatuko eta nazioarteko erakundeak; haiek guztiak irrikatan egon ohi dira kulturaren aurkako edozein eragin zuzendu, eta, aitzitik, garapen turistikoaren gaineko kontrola beren gain hartzeko, hori beharrezkoa izango delakoan kultura eta ekonomia suspertzeko.

Txostenaren xedea eta egitura

Johannesburgeko Goi Bileran (2002) kultura-aniztasunaren,

kulturen arteko elkarriketaren eta garapen iraunkorraren arteko loturetan sakontzeko beharra aztertu zuten. Goi-bilera hartan ateratako ondorioekin bat eginik, txosten honen helburu nagusia ere bide horretatik doa: erabakiak hartzeko ardura dutenei eta turismo- nahiz kultura-eragileei laguntzea turismoak prozesu interaktibo horretan zer eginkizun dagokion kritikoki erabakitzen.

Txostena hiru zatitan banatzen da. Lehen atalean bi kontu aztertzen dira: batetik, turismoak eta kulturak zer-nolako erlazioak dituzten; eta bestetik, horrek zer eragin izan dezakeen garapen sozial, kultural, ekonomiko eta espiritualean. Horrekin batera, eztabaidak aurrera egin ahala, beste zenbait kontzeptu gako ere agertuz joango dira, eta hala, ondarea (ondare materiala nahiz materia gabea), iraunkortasuna eta bioaniztasuna aztertuko ditugu. Horrek guztiak agerian utziko du, noski, ikuspuntu sozial, ekonomiko eta ekologikotik zer eginkizun konplexua duen turismoak garapenean.

Turismoaren nahiz kulturaren eginkizunen inguruko xehetasunak argitu ostean, bigarren atalean testuinguru berriei buruzko kontuak aipatuko ditugu, egiturak eta gobernu-kontuak aipatuz be-



tiere, testuinguru horietan jardungo baitugu, eta hor garatu turismoari eta kultura-aniztasunari, kulturen arteko elkarrizketari eta garapen iraunkorrari buruz esaten aritu garena.

Hirugarren atalean UNESCOk, estatu kideekin eta erakunde laguntzaileekin batera, urteen joan-etorrian egindako arau eta ekimenen berri ematen da, eta orobat, turismoari, kulturari eta garapenari dagokienez, ikerketa eta ekintza zehatzen berri. Aurreko ataletan ager litezkeen arazo eta gabeziei aurre egiten ere saiatuko gara atal horretan.



1. atala

Turismoari, kulturari eta garapenari buruzko gai eta auzi nagusiak



Harreman korapilatsuak

Turismoaren, kulturaren eta garapenaren elkarrekiko loturei buruzko auzia konpontzen ez genuke asmatuko, kontu horiek guztiak oso korapilatsuak direla ahaztuko bagenu. Berez, kultura ez da batere estatikoa; aitzitik, ez dio sekula aldatzeari eta

eboluzionatzeari uzten, eta beraz, turismoarekin dituen loturak ere beti izaten dira ugari eta askotarikoak (Fabrizio, Snowdon, Prasad, 2000). Horrez gain, ez da batere ohikoa izaten egitura eta praktika turistikoak modu itxi eta bakartuan agertzea; turismoa, egiaz, egitura edo gizarte-praktiken multzo gisa harturik, eguneroko bizimoduko hainbat eta hainbat alderdirekin estu lotuta egon ohi da. Jende eta leku guztiz desberdinak elkarrekin harremanetan jartzen ditu, eta jende nahiz lekuok iraganeko aztarnekin lotzen (nahiz eta termino horiek oso gogoko ez dituzten denek, ez norbanakoek ez taldeek). Politikari dagokionez, turismoak hainbat oinarri ditu, hala nola planifikazioa, hezkuntza, osasungintza, ingurumena, garraiobideak, garapena eta kultura. Eta gainezartze horiek eta lehentasunei buruzko auziek nabarmen zailtzen dute behar bezala erabakitzea turismoan eta kulturari gaitzala zer-nolako ekintzak burutu behar ditugun, eta, gaiak eta auziak elkarrekin nahasi ahala, tartean diren kontuei buruz eztabaidatzea gero eta zailagoa izaten da.

Garapena testuinguruan

Nazio Batuek Giza Garapenari buruzko Konferentzia (Stockholm, 1972) egin zutenetik, *garapen* terminoa askoz aberatsago eta zehatzagoztat jotzen da, *hazkunde* terminoa baino.

Azken hamarkadetan, bereziki Nazio Batuen Erakundeko Ingurumen eta Garapen Batzordea lanean hasi (1987), eta Ingurumenari eta Garapenari buruzko Konferentzia deitu zutenetik (1992), eta ingurumenaren, kulturaren eta pobrezia eta kutsadurari lotutako arazo sozioekonomikoen arteko loturak zehaztu ahala, *garapen iraunkor* kontzeptua nagusituz joan da pixkanaka, eta aldi berean, baita aurrerabide ekonomikoa eta soziala ingurumenaren eta natura-baliabideen babesarekin bateratzeko premia ere (UNESCO, 1995). Azpimarratzeko modukoa da, bestalde, Johannesburgeko Goi Bilerako (2002) txostena giltzarriztat harturik, *garapen iraunkor* kontzeptua zabaldu egin dela azken urteetan, eta, gaur egun, justizia soziala eta pobrezia aurrerabide soziala eta oinarritzeko eskubide eta askatasunak sustatzeko eta zabaltzeko balio baitute.

Bai kultura bai turismoa garapenaren osagai ezinbestekoak dira. Are gehiago, ez daude bereiz ulertzerik, horrenbeste jende alde batetik bestera ibili ohi den mundu batean. Garbi dago zer-nolako garrantzia duten kulturak eta turismoak garapen ekonomikoa, baina, giza garapenaren osagai ezinbestekoak diren neurrian, garrantzi hori askoz areagokoa da, bidaiak eta hartu-emanek aurrerabide soziala eta oinarritzeko eskubide eta askatasunak sustatzeko eta zabaltzeko balio baitute.



Lehentasunak

Hemen eztabaidagai ditugun gai eta auziak kulturaren, turismoaren eta garapenaren arteko hartu-emanen ondorioz sortzen dira: uni-bertsalak dira eta estatu guztiei eragiten diete, bai garatutakoei bai garapen bidean direnei. Hala eta guztiz ere, politikari eta kudeaketari dagokienez, hura lantzeko moduan alde nabarmenak daude herrialde batetik bestera; eta, are gehiago, garapenaren arazo nagusiagoari dagokionez ere alde handiak daude. Garapen iraunkorraren alde egindako mundu-mailako ekintzen ikuspegitik, bai eta 2002ko Johannesburgeko Goi Bileran ezarritako printzipioak eta Nazio Batuen lehentasunak kontuan harturik ere, hemen azpimarratzen ditugun auziak guztiz erabakigarriak dira garapen bidean diren herrialdeentzat, bai eta gutxien garatutakoentzat ere, haien oinarri-oinarrian funtsezko zenbait ardurak nagusi baitaude: pobrezia, aurkako borroka, giza eskubideak, egonkortasun sozial eta politikoa, demokrazia eta ingurumenaren aldeko defentsa, nagusiki.

Hurrengo atalak turismoari, kulturari eta garapenari buruzko lau alderdi nagusi azpimarratzen ditu. Lehenik eta behin, kultura baliatzeak turismoan eta garapenean zer garrantzi duen aztertzen da (eta haren ondorio izan litekeen ondareari buruzko zenbait xehetasun ere bai). Gero, garapen ekonomikorako turismo kulturalaz baliatzeak ekar ditzakeen arazo eta aukerez eztabaidatzen da. Hirugarrenik, turismo kulturala, kultura arteko elkarrizketarako eta herrien arteko hartu-emanetarako baliabide den aldetik, zer den eta zer ahalmen dituen aztertzen da. Eta azkenik, biodibertsitatea eta ingurumena babestea helburu duten agendetan turismo kulturalak zer eginkizun izan behar lukeen eztabaidatzen da.

Turismoaren baliabideak: kultura, ondarea eta aniztasuna

Hona hemen turismoa definitzeko printzipioetako bat: pertsonak fisikoki mugitu eta beren eguneroko bizitzan ezagutu ezin dituzten lekuetara joaten dira, beraienaz bestelako giroetan murgiltzeko (Selännemi, 2003). Eszenatoki ugari direla tarteko, espazio horiei esker errealitate turistiko mota ugari esperimintatzen ditugu (Shields, 1991). Testuinguru hori kontuan harturik, *kultura desberdin* deritzogunekin topo egin, eta haietan parte hartzen dugu, hori ere turismo-mota gehien osagai funtsezkoa baita.

Zentzurik zabalenean, kulturek baliabide material eta sinboliko ugari –ustez infinituak omen- eta oso mugikorak ematen dizkigute. Bistan da, beraz, turismoak kulturaren beharra duela.



Egia esatera, turismoari esker, kultura ugari garapen bidean jarri dira; are gehiago, gizarte askok eta askok parte hartu dute garapen-prozesu horretan. Hala ere, kultura baliabide gisa ulertzen dugularik, ez genituzke ahaztu behar haren alderdi garrantzitsu batzuk, kulturen balio eta lehentasunek lotura estua baitute, berez izan ditzaketen ezaugarriekin ez ezik, baita hartaz baliatzeko moduarekin ere. Horrek, jakina, hainbat galdera egitera behartzen gaitu: norena da kultura? Nola baliatu hartaz? Nola *irakurtzen* ditu kulturak turista bakoitzak? *Produktu kultural* deritzenei buruz ari dela, honela diosku Therkelsenek (2003): «produktuok turista potentzialen aurrekari kulturelek baldintzatutako loturak eta esanahiak eratzen dituzte». Zentzu horretan, turisten iritzi kultura ez da izaten balio neutroko prozesu bat, ezaupide formal nahiz informalekin lotutako espazio eta denbora jakinetan deskodetzen baitute kultura turistek; era berean, noski, ezaupideon oinarrian pakete turistikoak eta sozializazio-prozesuak egoten dira (Hennig, 1997).

Kultura zer den ulertzea

Azpimarra dezagun, garrantzitsua baita hala egitea, turismoa kulturaren oinarritu

arren, kultura –kulturaren jarduerak eta adierazpen ugariak– turismoarekiko independentea dela, eta haren garapena turismoarenaz bestelakoa dela. Gizarte edo talde baten ezaugarri espiritual, material, intelektual eta emozional berezien multzoa da kultura; horrela esan eta idatzi dute Kultura Politikei buruzko Nazioarteko Konferentzian (MONDIACULT, 1982), Kulturari eta Garapenari buruzko Munduko Batzordean (*Our Creative Diversity*, 1997), Garapenerako Kultura Politikei buruzko Gobernuarteko Konferentzian (Stockholm, 1998) eta UNESCOren *Kultura-aniztasunari buruzko aldarrikapen unibertsala* deritzonean. Era berean, kontuan hartu behar da, arteaz eta literaturaz gainera, bizimodu- eta bizikidetzaren eredu ugariak, balio-sistemak, tradizioak eta sinismenak ere kulturaren parte direla (UNESCO, 2001). UNESCOren *Kultura-aniztasunari buruzko aldarrikapen unibertsaleko* 1. artikulua honela azpimarratzen du: «kulturak forma ugari hartu ditu denboran eta espazioan. Gizadia osatzen duten gizarte eta taldeen nortasunaren pluraltasun eta batasunean hezurramitzen da aniztasun hori. Gizakien arteko hartu-emanen, berrikuntzaren eta sormenaren iturri den aldetik, naturarentzat bioaniztasuna bezain garrantzitsua da gizadiarentzat kultura-aniztasuna. Horregatik, hain zuzen, kultura gizon-emakume guztion ondare delako, hura zaindu eta babestea dagokigu, gaur egungo eta geroko belaunaldiek hartaz goza dezaten» (UNESCO, 2001).

Nolanahi ere, turismoari ezinbesteko eginkizuna dagokio: kulturaren eta kulturen arteko desberdintasunen berri ematea, hain zuzen. 2004an Bartzelonan ospatu zen Kulturen Munduko Foroan, kultura-gaietarako UNESCOren zuzendariorde Mounir Bouchenakik turismoaren garrantzia azpimarratu zuen: «kultura guztiek ozen hitz egin eta beren burua ezagutzera emateko espazioa da turismoa; eta hari esker, kulturen arteko elkarrizketa sustatu, eta bakea eta garapen iraunkorra lortzeko bideak urratuko ditugu» (UNESCO, 2004). Honela jarraitu zuen geroago: «turismorik gabe, ezin bizi kultura-aniztasunik, ezin hura gure esperientziaren objektu bihurtu, ezin hura sentitu emozio estetikoaren bidez, ezin ulertu aniztasun horren baitan dautzan balioak».



Turismoak martxan jartzen dituen kultura-baliabideak

Kultura, baina, kontzeptu labainkorra da: arazo ugari agertzen ditu. Labur-labur esanda, bi esanahi lituzke: batetik, bizimodu-estiloa adierazten du

(sinesmenak, balioak, gizarte-jarduerak, errituak, tradizioak...); eta bestetik, gizarte jakin bateko sinesmen eta balioak adierazten ditu, bai ukigarriak (eraikinak, monumentuak, objektuak eta abar) bai ukiezinak (hizkuntza, adierazpenak, festak, artisautza-lanak eta abar). Turismoarekin duen loturari dagokionez, beraz, kultura bat pertsonak eta gizataldeek osatzen dute, tradizio eta arauak –horren ondorioz esan daiteke kultura desberdinak daudela–, bai eta sormen- eta arte-lan bikainenek ere.

Turismoaren testuinguruan, kulturaren alderdi asko azpimarratu beharko lirateke, baina haietako bakoitzak helburu ekonomiko bereziak izan ohi ditu. Esan dezagun, hala ere, kultura-adierazpen guztien artetik turismoak egoki eta doienak aukeratzen dituela, eta horri esker turistei produktu eta esperientzia berriak eskaintzeko aukera duela. Hona hemen, jarraian, kulturaren formulazio nagusiak eta haien erabilera turistiko garrantzitsuenak.

Kultura-ondarea

1972. urtetik, UNESCOk asmo bati jarraitzen dio buru-belarri: konbentzio eta aldarrikapen batzuen bidez edozein motatako ondareak babesteko nazioarteko araugintza bat ezartzea, hain zuzen. Hasiera batean, UNESCOren interesa arte-lanak, hiriak eta inguru naturalak babestea izan zen (UNESCO, 1970, 1972). Geroago, erakundearen aldarrikapen eta konbentzioetan beselako ondare-forma batzuk jaso ziren; aipatzekoa da, horri dagokionez, kontzeptu berri bat sortu izana: ondare ukiezinaren deritzona, alegia (UNESCO, 2001, § 2003). 1992. urtetik, paisaia kulturalak ere Ondare Unibertsalaren parte dira, hain baita estua kulturaren eta naturaren arteko lotura.

Ikuspuntu turistiko batetik, erraz samar igartzen diogu zer-nolako garrantzia duten eraikin historikoen, ondare zirkularen eta arte-lanek. Nazioarteko turismoaren zati handi bat kulturaren adierazpen material horien inguruan mugitzen da; hori dira, esate baterako, Taj Mahal, Indian, Louvre Museoa, Frantzia, eta Venezia hiria bera, Italian. UNESCOren 1972ko konbentzioak munduko kultura- eta natura-ondarea babestu beharra azpimarratu zuen; batez ere, ikuspuntu estetiko, zientifiko, kultural eta historikoa ondo gogoan harturik, balio bikaineneko arkitektura-lan eta inguru naturalak zorrotz zaindu eta babestu behar direla nabarmendu zuen. 2005. urtean, 137 herrialdeetako 812 leku babestu zituzten: 611 leku, kulturari lotutakoak; 154 ingurune natural; eta 23 leku misto.

Leku eta gune horiek nazioartean garrantzitsuak izate hutsak helburu turistiko bihurtzen ditu berehala. Arrazoi hori nagusi izaten da herrialdeek gune edo lekuren baten izen-ematea proposatzean. Dena dela, gehien-gehienetan beste arrazoi batzuk gailentzen dira: lekurik zaurgarrienak babestea nagusiki; paisaiak eta galtzeko zorian dauden espezieak zaintzea, zehatz-mehatz esanda. Horrez gain, ordea, izendapen horiek nazioartean duten izen onaren ondorioz leku eta guneok lor dezaketen ospea ere oso gogoan hartu beharreko arrazoia da. Testuinguru nazional edo sarritan gertatu ohi denez, nazionalistetatik areago, Ondare Unibertsal izendatutako leku batek iraganare-



kiko eta iragan horren esanahiekiko konpromisoa pizten du. Mundu osoko jendeak leku horien berri izaten du, eta nazioartean toki jakin horretako kezkei eta interesei buruzko diskurtso bat eratzten delarik, leku horietako askok bizirik irautea lortzen dute. Leku bat Gizateriaren Ondare izendatzea haren esanahia aitortzeko modu bat da, baina ez hori bakarrik: ondarea mundu osoko jendearen esku uzteko baliabide bikaina ere bada. *Munduaren ondare* horien garrantzia aitortzeak arduratsu jokatzera behartzen gaitu guztiok elkarrekin partekatzen dugun iraganari dagokionez; baina, aldi berean, beste zerbaitetarako ere balio digu horrek: leku garrantzitsu horietara joan, haiei buruz ahal beste ikasi eta esperientzia aberasgarriak izateko, hain zuzen.

Turisten artean leku horiek hain ezagun bihurtzeak, noski, onura ekonomiko nabarmenak ekarri ohi dizkie leku eta aldiriei. Garrantzitsua da, hala ere, iraunkortasuna bermatzea. UNESCOk 1972an sortutako Munduko Ondarearen Zentroak –Ondare Unibertsalarekin lotutako auziak koordinatzen dituen elkarteak, alegia– lan eskerga egiten dihardu gaur egun leku eta gune desberdinetako turismoaren dimensio turistiko hori bermatzen: haiek nola erabili behar liratekeen eta horretarako zer prestakuntza-mota behar den irakasten, nolabait esateko, bai eta turistek sor ditzaketen kalteak kudeatzeko planak egiten ere.

Jatorriz, kultura-ondareari buruzko nozioa herrialde industrializatu eta garatuetan sortua da; beraz, gizarte horietan erroturik dauden balio eta obrak adierazi izan ditu nagusiki. Baina, hala eta guztiz ere, urteak joan urteak etorri, ideia hori munduan barrena zabaldu, eta gaur egun horrenbeste Hegoaldeko herrialdeen ondarea ere adierazten du. Azken horietan, baina, egitura handi ia betikoak ez dira hain garrantzitsuak izaten, eta bai, ordea, mendez mende gordetako forma narratiboak. *Kultura-ondare ukiezina babesteko konbentzioak* (2003) eskuarki aipatzen ditu, kultura-ondare ukiezin eta mugikorrek batera, adierazpen materialaz bestelako esangura duten beste ondare-mota batzuk, eta haiek ere zaindu egin behar direla aitortzen du, belaunaldiz belaunaldi transmititu eta nortasunaren eraketarako ezinbestekoak baitira.

Turistek kultura-ondarearekin topo egitean, iragana aurkitzen dute, bai, baina gogoan izan behar da orainaldi bete-betean den komunitate edo gizarte baten iragana dela. Ondare horien berri izateko, turistek monumentuak-eta bisitatzen dituzte, baina haien aldean, ondareaz jabetzeko modu hobeak ere badaude: lekuan lekuko gizarteetan bizi-bizirik dirauten jokabide eta jardueri erreparatzea, adibidez. Gero eta sarriago, ondare ukiezina helburu turistikoetarako erabiltzen da; tokian tokiko ondare biziaz gozatzea esperientzia aberasgarri bihurtu da, bai turistentzat bai lekuan lekuko komunitateentzat. Are gehiago, ibilbide turistiko askotako funtsezko elementu bilakatu dira aspaldidanik erritu, arte-emanaldi eta antzekoak. Halakoek, baina, gatazka bat baino gehiago sor ditzakete, turistek gogoko izango dutelakoan bidaia-antolatzaileek emanaldi bat edo beste prestatu, eta lekuan lekuko komunitateek beren ordutegiak eta bizimodua propio haien nahietara moldatu behar badute. Nolanahi den ere, bestela galzorian egon litezkeen tradizio ugariaren berri izateko eta tradizio horiei eusteko modua ere ematen dute, inolako zalantzarik gabe.

Kultura-aniztasuna

Kultura-aniztasunari buruzko aldarrikapen unibertsalak (UNESCO, 2001) honela diosku: «Naturarentzat bioaniztasuna bezain garrantzitsua da gizadiarentzat kultura-aniztasuna. Horregatik, hain zuzen, kultura gizon-emakume guztion ondare delako, hura zaindu eta babestea dago-



kigu, gaur egungo belaunaldiek eta gero etorriko direnek hartaz goza dezaten». Turistak dira, ziur asko, kultura-aniztasunaz eta kultura-ondareaz ohartzen aurrenak. Kultura desberdinen berri izatea eta esperientzia berriak izatea, kulturen adierazpen materiadun zein materiagabeez gozatzea, horra hor turista gehienen motibazio nagusia; horra hor, halaber, bidaiantolatzaile asko eta askoren motibazio nagusia.

Kulturen aniztasun horri esker esperientzia itzelak bizi daitezke, eta hori, jakina, turismoaren sektorearen giltzarrietako bat da. Ustez ia mugarik gabeko baliabide bat dela ere pentsa liteke. Baina aniztasuna faktore askoren mende dago. Ingurumena, adibidez, erabakigarria da, kulturak bizi eta loratzea haren esku baitago erabat. Sistema politikoek ere garrantzi handia dute, noski, leku batean giza eskubideak eta kulturen inguruko eskubideak berma ala muga baitituzkete. Eta, jakina, gizarteek beren nortasunari forma ematen dioten kultura-jardueretan parte hartzeko eta beren kulturen bidez adierazteko eskubidea duten gisa berean dute halakorik ez egiteko eskubidea. Pobreziak zerikusi handia du horretan guztian, pertsonak eta gizarteak ataka larrian jar baitituzkete: batere iraunkorrak ez diren arren, eta aniztasuna bera arriskuan jar ditzaketaren arren, garapen bidean ipiniko dituzten muturreko zenbait erabaki hartu beharrean, adibidez. Nolanahi den ere –badirudi turismoaren sektorea bera ere horrela hautematen hasia dela–, turismo iraunkorrari dagokionez garbi samar esan daiteke etikoki zuzena eta ekonomiko-ki zuhurra dela kultura-aniztasuna babesten saiatzea.

Multikulturalismoa kultura-aniztasunaren beste aurpegi bat dugu, turisten artean gero eta interes handiagoa pizten duena; hiri-giroan, batez ere. Hiri edo herrialde batera joandako turistek gutxitan egiten dute topo talde etniko bakar batekin. Bai hego-hemisferioan bai ipar-hemisferioan, leku bateko populazioan talde etniko ugari egoten dira normalean, eta talde bakoitzak hizkuntza bat eta tradizioak izan ohi ditu. Turistentzat, leku bakarrean halako aniztasun batera zabalik egote hori sekulako gertaera izan ohi da, hainbat jardueraz eta esperientziak gozatzeko aukera ematen baitie, hala nola sukaldaritza-mota ugari, musika- eta arte-mota askotarikoez eta, oro har, arte-emanaldi desberdinez. Leku turistiko batzuetan, zenbait kulturak beste zenbaitek baino baliabide gehiago izaten dituzte beren kultura-adierazpenak ikusgai jartzeko; horren ondorioz, noski, kultura horiek aukera gehiago izango dituzte lana lortu eta dirua irabazteko. Dena dela, kontuz ibili behar da, aspektu hori oso delikatuak baita; erronka itzela, inondik ere, herrialde turistikoetako garapen-politikak egiten dituzten lekuan lekuko nahiz nazioarteko kudeatzaile eta bidaiantolatzaileentzat. Aukera bikaina ere bada, hala ere, talde kultural eta etnikoek garapen turistikoaren prozesuan parte hartu eta turista gero eta kosmopolitagoen esperientziak dibertsifikatzen laguntzeko.

Kulturen beharrezkoa da sormena

Kulturari eta Garapenari buruzko Munduko Batzordean (*Our Creative Diversity*, 1997) aitortzen denez, sormena sekulako kultura-baliabidea da, eta zaindu beharrezkoa, gainera. Zaila da behar bezala esatea zer eginkizun duen sormenak kulturen; baina esan dezagun alde edo moldez prozesu dinamiko baten emaitza dela, eta haren bitartez kulturek ingurumenarekin eta beste kultura batzuekin hartu-emanak izaten dituztela, eta prozesu horretan ingurunera moldatzen eta bizirauten ikasten dutela kulturek. Alderdi eta aspektu asko ditu sormenak: aspektu artistiko, intelektual, teknologiko, instituzional eta politikoak, zehatz-mehatz esateko. Prozesu bat den aldetik, gizarte guztiek behar izaten dute sormena, gizarteok modernizazioak



eta globalizazioak eraturako sare konplexuetan barrena baitabilta (UNESCO, 2000a). Horixe gertatzen da zehazki turismo-garapenean, hartan produktu *berritzaileak* behar izaten baitira etengabe, baina lekuan lekuko komunitateen osotasun kulturala enbarazu-egoeran jarri gabe, eta, aldi berean, gizarte-, ekonomia- eta ingurumen-irabaziak maximizatzeko moduan. Lekuan lekuko komunitateen sormena bideratzea estrategia egokia izan liteke turismo-garapenaren prozesuan parte-hartze handiagoa sustatzeko, eta turismoaren irabaziak gizartean banatzeko ere lagungarri gerta liteke.

Konmodifikazio-prozesua

Zentzurik zabalenean, *besteari* zentzua emateko eta *bestea* ikusteko moduko

bihurtzeko baliabide gisara erabili izan du turismoak kultura. Poetek, artistek, administratzaileek, irakasleek eta kronistek kategoria-sistema korapilatsuak erabili izan dituzte sarritan, inoiz ikusi edo bisitatu dituzten herrialdeetako biztanleen bizimoduari zentzua emateko (Blanchard *et al.*, 1995). Tipikoki, kategoria horien ardatzak geografia, politika, genealogia, jai-egunak, ekonomia, artea, arkitektura, literatura, musika, erlijioa eta gastronomia izan dira. Arkeologo eta historialariek ere antzeko kategoriak erabili izan dituzte, iraganeko gizarte eta kulturak aztertzean, bai eta hartu-emanek eta sormenak lekuan lekuko gizarteak nola aldatu izan dituzten ikertzean ere (Geertz, 1973).

Kultura turismoaren eremuetan martxan jartzen den kasuetarako ikuspuntu berbera erabiltzen da, oro har. Bidaia-antolatzaileek eta gidek zenbait gailu, espazio, istorio eta gizarte-jarduera konmodifikatu edo paketeetan bildu, eta turistak erakartzeko moduko diskurtso, produktu eta jarduerak antolatzen dituzte. Turistek denbora gutxi ematen dute leku jakin batean, eta, beraz, lekuan lekuko kulturako alderdi hautatu gutxi batzuk baino ezin ditzakete ikusi. Prozesuok kulturen arteko komunikazio- eta truke-mota guztietan gertatu izan dira; baina, turismoaren testuinguruan, konmodifikazio-prozesuari kritika ugari egin dizkiote, ezinbestez lekuan lekuko kulturen jatorrizko eraketak eta esanahiak errotik aldatu, eta turistek eta atzerritarrek ulertzeko moduan atontzen dituela leporaturik (Greenwood, 1977).

Normalean, kritika horretan bi alderdi azpimarratzen dira. Lehenengoaren arabera, turismoak eta haren instituzio-sare zabalek botere-erlazio asimetriko baten baitan jarduten dute, eta zenbait kultura-baliabide hautatuz eta interpretatuz, izaera turistiko soileko balioetan oinarritutako estetika bat eta balio batzuk ezartzen dituzte (Nash, 1989). Batere zalantzarik gabe, turismoak oso bereak diren paisaia-motak sortzen ditu tipikoki, eta horren bidez batzuetan leku bateko errealitate espazial eta demografikoak goitik behera aldatzen ditu. Horrela, adibidez, askotan mendi, kostalde eta landazabalen moduko leku marjinalak turisten gogoko paisaia bihurtzen ditu (Roger, 1997). Aldi berean, baina, gerta liteke ere turistek komunitate bateko bizimodurako funtsezkoak diren elementu, jarduera eta espazioak erabat alboratzea, haiek garrantzizkoak ez direlakoan edo beren estetikarekin nahiz mundu-ikuskerarekin bat ez datozelakoan. Halakoetan, noski, zenbait kultura-baliabide garrantzitsu anestesiatuta bezala geratzen dira, ia ikusezin, turistak ez baititu baliabide horiek ezin kategoria garrantzitsurekin lotzen (Bruner, 2004). Zenbaitetan, hala ere, botere-erlazio asimetriko horren eragina murriztu nahirik-edo, turistek lekuan lekuko hizkuntzak ikasten dituzte, eta tokiko komunitateen eguneroko bizimodu eta jardueretan murgiltzen dira.



Bigarren alderdi bat ere aipatu behar da hemen; haren arabera, kultura eta hartu-eman turistikoek martxan jartzen dituzten kultura-baliabideak etengabe jarri behar dira testuinguruan, etengabe eman behar zaie esanahi bat edo beste (Kirshenblatt-Gimblett, 1998). Izan ere, turistak leku batera joate hutsak leku horietako gizarte-guneak zabaltzea dakar, bai eta transnatzionalizazio-prozesu moduko bat ere. Halakoetan, noski, lekuan lekuko komunitateentzat ia garrantzirik ez zuten elementu, gizarte-jarduera eta espazioak funtsezko bihur litezke turistentzat. Horretarako baldintzak zein diren jakinik, begi-bistakoa da, noski, batzuetan testuinguru eta esanahiok gehiegitxo balioetsi ohi direla, lekuan lekuko komunitateei kanpoko munduarekin erlazionatzeko eta beren nortasuna mugatu eta definitzeko balio dielakoan (Lash & Urry, 1994). Beste batzuetan, baina, komunitateek *sakratutzat* hartzen dituzte zenbait elementu, jarduera eta espazio, eta, halakoetan, gerta liteke zenbait jendek eraso gisa ikustea turisten hainbat jokabide –kultura-adierazpenak etengabe testuinguruan jarri nahi izatea eta haiei esanahi berezia ematea, alegia– (Whittaker, 1994). Gatazka-egoera horietan, turismoa erronka moduko bat izaten da nortasun kolektiboaren formulazio, kategoria eta mugentzat; baina ez hori bakarrik: nortasunaren formulazio- eta eraikuntza-prozesuak turismoak berak sortutako gizarte-gune berrietan txertatzen dira (Picard, 1992).

Bi alderdi horiek kontuan harturik, turismoa espazio dialektiko eta dinamiko gisa definitu izan da; hau da, lekuan lekuko komunitateei kulturaren formulazio eta interpretazio ugariekin behin eta berriz saiakerak egiteko aukera ematen dien espazio gisa. Askotan gertatu ohi da lekuan lekuko komunitateei oharkabean joatea beren zenbait elementu kultural, eta gero, turistekin eta bidaia-antolatzaileekin harremanak izatean, haien balioaz ohartzea. Kasu horietan, elementu edo *baliabide* horiek martxan jartzea turistarekiko harremanean zentzua hartzen duen zerbaiten gisara ulertu behar da, *guren* eta *besteaken* arteko loturak eta aldeak definitzeko bide sinboliko gisara, baina baita diru-iturri garrantzitsua den ekonomia-baliabide gisa ere (Picard & Robinson, 2005). Alde horretatik, UNESCOk berak kultura zer den esateko darabilen definizioari beste esanahi bat gehitu behar genioke; definizio berri horren arabera, kultura ez da komunitate baten berezko balio eta gizarte-ereduen kategoria analitiko eta deskribatzaile soila, kategoria sinboliko bat baizik, desberdintasun sozialen berri emateko baliagarri gerta litezkeen interpretazioak egiteko erabil litekeena. Badirudi, beraz, kultura eta kultura-baliabideak martxan jartzearen kontrako erretolika gehiena ez ote dagoen lotuta formulazio- eta interpretazio-prozesu horien baitan dautzan agenda politiko eta sinbolikoekin, beste ezerekin baino gehiago.



Turismo kulturala, ekonomia-garapen mota bat den aldetik

Beste ezer baino lehen, turismoa ekonomia-garapen mota bat da; haren funts nagusiak kultura-baliabideak dira. Hala ere, errealitate ekonomikoa beti tartean badago ere, beste garapen-mota bat ere bada turismoa: norbanakoek eta gizarteek beren bizilekuen eta iraganen berri elkarrekin batera jakiteko modua ematen duen garapen-mota, hain zuzen. Esperientzia, hezkuntza eta gozamina direla tarteko, turismoa baliabide askatzaile bat izan daiteke, ikuspuntu intelektual, emozional eta espiritual batetik zentzua eta ulerkuntza lortzeko aski baliotsua. Pertsonak alde batetik bestera ibiltzen dira, elkarrekin hartu-emanetan, eta hor datza, hain juxtu, turismoaren eta guztiz mekanikoak diren mundu-mailako beste merkataritza-mota eta ekonomia-garapen batzuen arteko aldea.

Kultura, zentzu artistikoan, edota *bizimodu* jakin batzuk adierazten dituen aldetik, ia beti *ikusgai* egoten da. Beste komunikabide batzuekin batera, bidaiei eta turismoari esker gure planetako kultura-aniztasun aberatsaren berri jakin ahal izan dugu. Eta horri esker, jakina, gaur egun guztiz onartzen dugu kultura batean murgiltzea eta hura esperimintatzea garrantzi handieneko zerbait dela, gizarte-, politika eta ekonomia-kontuekin lotuago dauden alderdiek adinako garrantzia duela. Inoiz baino gehiago gaur egun ohartu gara kulturak balio handia duela; hainbesteari-noko garrantzia, ekonomiaren eta garapenaren zutabe nabarmenenetako bat bihurtu baitzaigu gaur egun. Eta alde horretatik, turismoa ere funtsezko elementutzat hartzen da goraka ari diren *kultura-ekonomia* transnazioaletan –hau da, kultura ardaztat duten ekonomietan–; izan ere, turismoak jendea elkarrengana hurbiltzen du, eta abagune eta aukera berriak sortzen.

Turismo kulturala, ekonomia dibertsifikatzeko bitarteko bat den aldetik

(UNESCO eta Italiako gobernuak, 1999). Erakunde multilateral ugari eta gobernu askok ekonomia-garapenerako beren estrategietarako baliabide garrantzitsu gisa erabili izan dute turismoa, haren ahalmen izugarria aintzat hartu eta unean uneko krisialdiei erantzun beharrez. Bai herrialde garatuenetan bai garapen bidean diren herrialdeetan, azken hamarkadetan ia mundu osoan gorabehera asko eta asko izan dira: industria ugari itxi behar izan dituzte; lan ugari galdu eta gizarte-harremanak errotik aldatu dira; paisaiak eta ingurumena bera ere goitik behera aldatu

XX. mendearen erdialde ingurutik eta gaur egunera arte, garapenaren ezaugarri azpimarragarria izan da turismoaz baliatzea herri, eskualde eta estatu-tako ekonomia-garapena sustatzeko



dira. Eta, jakina, gertaera horiek guztiak arrazoi batzuek bultzatuta gertatu dira; aipa ditzagun nagusiak: batetik, teknologia-aurrerapenen ondorioz, manufaktura-sektorea erabat berregituratu izana; bestetik, babes-politikekin hautsi izana; eta azkenik, garapen bidean ziren herrialdeetan *lan merkea* erraz lortzeko ateak alderik alde zabaldu izana. Era bertsuan, nekazaritza eta arrantza gertatutako aldaketek eta diru-laguntzak hain nabarmen murriztu eta merkatua hain gogor sustatu izanak beste zenbait prozesu azkartu ditu: baserri-giroko bizimoduak behera egitea, adibidez, eta hortaz, ingurune horietatik jendeak alde egin eta paisaia hondatzea ere bai. Gorabehera horien guztien ondorioz, herrialde askok diru- eta lan-iturri berriak lortzeko bideak asmatu behar izan dituzte.

Orain arte ia ustiatu ere egin ez diren natura- eta kultura-baliabideak oinarritzat harturik, turismoak eraginkortasun handiz sor ditzake diru- eta lan-iturri aberats askoak. Azpiegitura turistikoak eraiki eta mantentzeko epe luzean estatuaren diru-laguntzak beharrezkoak diren arren, ia langarik ez dago sektore pribatuak, lekuan lekuko firmen bidez edo dirua uzteko prest dauden kanpoko inbestitzaileen bidez, turismoan dirua txertatzeko. Egoera hori, begi-bistakoa denez, aldekoa da, norbanakoen nahiz taldeen parte-hartzea bultzatzen duelako; erants diezaigun horri komunikazioaren teknologiak horrenbeste garatu izanak eta garraiobide gero eta hobeez eragin ditzaketen onurak. Hobekuntza horiekin batera, gainera, gizarteetako egiturak eta bizimoduak ere aldatu egin dira, eta horren ondorioz, aisialdirako gero eta jarduera gehiago eskatzen ditugu batetik, eta bestetik, berriz, *produktu* turistikoak dibertsifikatu egin dira.

Turismoa ekonomia garatzeko pizgarri garrantzitsua izan da betidanik; batez ere, garapen bidean ziren herrialdeetan. Hala eta guztiz ere, hori ez da kasu guztietan horrela izaten. Zor handia eta trukerako arazoak dituzten herrialde askotan, kanpo-inbertsioak sustatzeko baliabide moduan erabili dute turismoa. Horri begi onez begiratuta ere, egia da turismoak bitarteko ugari eskaintzen dituela garapen iraunkorragoa lortzeko, baina baliabide mugatuko herrialdeetan, pobrezia eta ingurumenaren hondamenak herrialde horiek itolarrian ipintzen dituen egoeretan, ematen du bertako kultura, ondarea eta natura-baliabideak ustiatu beste biderik ez dela gertatzen. Beste alde batetik, inbertsio pribatu nahiz publikoak lortzeko ia modurik ez dagoen kasu horietan, zenbait herrialdeetako turismoa inbestitzaile atzerritarren esku gelditzen da erabat; herrialde garatuetan, izan ere, irrikan egoten dira beren aldeko finantza-egoerak probetxuz erabiltzeko; irrikan, azken batean, turismoak gizartearen nahiz ingurumenean izan ditzakeen kalteak arautzeko ahalik eta lege-egoera ahulenez baliatzeko. Bada azken kontu bat oso garrantzitsua: herrialde garatuetan turismo-garapenarekin gertatzen denaz guztiz bestela, garapen bidean diren eskualdeetan turismo-eskaera ia erabat lekuan lekuko herrialdeetatik kanpoko delatela, alegia.

Garapen-maila desberdinak eta kulturaren ustiaketa

Oro har nazioarteko turismoa nabarmen hazten eta sofistikatzen ari da; kostuak eta irabaziak kontuan hartuz gero, baina, herrialde

deen arteko aldeak, bai eta herrien artekoak ere, oso handia izaten jarraitzen du ekonomiari, gizarteari eta ingurumenari dagozkion kontuetan. Garapen bidean diren herrialdeentzat, turismoa esportazio-jarduera gero eta funtsezkoagoa da, haietara bidaiatzen duten turisten kopurua ere



hazi eta hazi ari da; urtetik urtera, munduan barrena dabilen turista-kopurua baino handiagoa da, batez beste, herrialde horietara joaten den turista-kopurua. UNCTADen arabera (2004c), gutxien garatutako 49 herrialdeen (GGH) kanpotiko diru-sarreraren iturri nagusia turismoa da; petrolioaren industria da salbuespen bakarra (herrialde horietako hirutan soilik baita nagusi). Nolanahi den ere, 2001. urtean bertan, mundu osoan barrena ibili ziren turisten % 1 baizik ez zen gutxien garatutako herrialde horietako batera joan.

Garapen bidean diren herrialdeentzako aukera erakargarria da turismo masiboa. Haren bidez, izan ere, azkar samar erdiets daitezke atzerriko dibisak; batez ere, nazioarteko merkatuen berri duten bidaia-antolatzaileengan uste osoa izaten bada. Hala ere, ikerketa ugariaren esanetan, horrek eragozpen asko ditu. Lehenik eta behin, badago joera bat garapenaren gaineko kontrola gobernuei eta komunitateei kendu eta bidaia-antolatzaileei eta bisitariak bidaltzen dituzten estatuei ematekoa. Joera horren arabera, noski, edozein unetan garapen-prozesua eten eta inbertsioa beste leku batera igor daiteke. Bigarrenik, badago beste joera bat garapenerako bereziki erakargarriak diren leku ezinago araztetara joatekoa, eta beraz, eskualde eta komunitate gatazkatsuenak baztertzekoa. Hirugarrenik, eta aurrekoari lotuta, inbestitzen diren dirutzetatik sos asko erabiltzen dira turisten gustu estetikoak asetzeko, eta ez, ordea, lekuan lekuko komunitateen arazo eta premia sozioekonomikoak konpontzeko. Laugarrenik, abantaila ekonomikoak epe laburreko irabazietara murrizten dira; batez ere, turismo-sektoreko eta antzeko zerbitzuetako lan-eskaintzei dagokienez. Horren ondorioz, sarritan zerbitzu-sektoreko lanpostu asko eta asko ezegonkorak eta gaizki ordaindutakoak izaten dira. Horrez gain, bidaia itzelak antolatzen dituzten nazioarteko eragileek sorrarazten dituzten diru-irabazien zatirik handiena bidaiak antolatzen dituzten herrialdeetara itzultzen dira, bisitatutako herrialdeetan utzi beharrean. Bosgarrenik, lekuan lekuko herrialdeetako kulturek oso bazterreko parte-hartzea izaten dute turismo masiboan. Kontuan harturik garapen-prozesuak leku jakinetan gertatzen direla eta nagusiki hedonistak diren jarduerak izaten dituztela ardatz, maiz askotan kulturari buruzko ikuskera bera murriztailea izaten da: lekuan lekuko biztanleen eta bisitariaren arteko hartu-eman mugatu, hautatu eta laburretara mugatzen da, gehien-gehienetan.

Desabantaila horiek guztiak gorabehera, gero eta bidaia-antolatzaile gehiagok zenbait leku bi-latu eta bertako jendearekin harremanak sustatzen dituzte; nolabait esatearren, jokabide etiko bati eusten ari zaie. 1999an, Munduko Turismo Erakundearen *Turismoari buruzko munduko kode etikoak* jokabide zuzenak eta hartu-eman iraunkorrak sustatzea hartu zuen helburutzat. Oraindik, baina, alde nabarmenak daude bidaia-antolatzaileen jokabideetan; batez ere, aldaketekiko jarrerari dagokienez. Izan ere, alde edo moldez eman dezake turismo masiboan lanean diharduten bidaia-antolatzaileek ekarpen gutxi egin diezaioketela kultura-ondarearen babesari eta turismo-mota hori kultura garapenerako baliabide gisa erabiltzeari. Baina, jakina, hori ez da horrela: ondarea eta kultura-aniztasuna ardatz dituen garapen-eredu iraunkorrako lortzeko bidean, funtsezkoa da bidaia-antolatzaile handiek ere parte har dezaten kultura zaindu, babestu eta sustatzeko beharrezkoak diren kooperazio-sareetan.

Gogoan izan dezagun, hala ere, bidaia-antolatzaileak ez direla kultura-baliabideak turismo-kontuetarako ustiatzen dituzten eragile bakarrak. Izan ere, lekuan lekuko komunitateetan egon litezke, halaber, helburu turistikoetarako kultura-baliabideez baliatzen diren elite edo enpre-



sariak, eta, herrialde garatuetako eragileen eskakizunei erantzun nahirik-edo, gerta liteke guxtieneko arau etiko eta legalak bazter batera geratzea. Horri dagokionez, aipa ditzagun, esate baterako, objektu zaharren salerosketa (hitzez hitz, komunitate bateko kultura materialarekin egindako salerosketa), babestutako eskualdeetako animalia-espezieen harrapatze ilegalak eta turismoa inolako eskrupulurik gabe garatzearen mesedetan lurak eta komunitateak erabat suntsitzea ekarri dituzten jarduerak. Zenbait kasutan, jakina, jarduera horien atzean pobrezia-egoeraren bat egon liteke, halakoetan gizon-emakumeak behartuta egon bailitezke eskuenera dituzten baliabideen bidez bizimodua ateratzera. Beste batzuetan, baina, argi dago epe laburrean dirua irabaztea beste helbururik ez duten krimenak burutzen direla, eta ondorioak ikaragarriak izaten direla, gainera, bai tokiko komunitateentzat bai ingurumenarentzat. Halakoei aurre egingo bazaie, ezinbestekoa da konponbide bat ematen asmatzea, eta horretan bai nazioarteko eragileek bai lekuan lekuko agintariek parte hartzea.

Garapen bidean diren herrialdeetan eta gutxien garatutako herrialdeetan nagusi diren arazoak gorabehera, haiek behar bezala kudeatu eta babes estrategiko egokia emanez gero, turismoak aparteko aukerak ematen ditu garapena lortu eta defizita nabarmen murrizteko; hona hemen horretarako arrazoiak: lehenik eta behin, langileak intentsiboki kontratatzea eskatzen baitu, turismoak bai hiri-inguruetatik bai baserri-inguruetatik emakume eta gazteei lan egiteko aukera ematen die. Bigarrenik, kontu handiz kudeatuz gero, turismoa garapen bidean diren herrialdeetako ezaugarri kulturalak baliatu daitezke, horrela ingurumena hondatu beharrik gabe dibisak lortzeko (halaxe dira gauzak industria astunean eta zurgintzan). Hirugarrenik, turismo-garapenari esker ekonomia dibertsifikatu eta esportazio-produktu bakar baten esku egon beharra eragotz dezake. Laugarrenik, beste industria-mota batzuen aldean, turismoak ez du hainbeste azpiegiturarik behar izaten; eta, gainera, behar-beharrezkoak diren azpiegiturak lekuan lekuko komunitateek ere erabil ditzakete. Azkenik, beste industria-mota batzuen aldean, turismoari esker kultura jakin batek gora egin dezake, munduari zabalik ager baitaiteke. Eta hori, jakina, garrantzitsua da, munduari zabalik egote horretan baitatza garapen bidean diren herrialdeen ahalmena.

Pobreziaren ondorioak arintzeko neurriak

Inork ez du zalantzan jartzen herrialde garatuetako bizi-kalitatea gero eta hobetuz delako; garapen bidean diren herrialdeei dagokionez, berriz, turismoak itzeleko rola joko

dezake pobreziaren ondorioak arintzen (Ashley, Roe, Goodwin, 2001). Halaxe diote, behintzat, garapenaren aldeko nazioarteko agentzia nagusiek, hala nola Munduko Bankuak eta Nazioarteko Diru Funtsak, bai eta Munduko Turismo Erakundeak ere (Meyer, 2003). Nazio Batuen esanetan, munduan 1.200 milioi lagun inguru bizi da ur garbirik ez duela; 2.000 milioi lagunetik gora dira energia-iturri fidagarriak erabil ezin dezaketenak; eta 2.500 milioi lagunek ez dute aukerarik osasun-zerbitzu oinarrizkoenara joateko. Gizarte pobreetan, natura-baliabiderik eta azpiegiturarik gabeko herrialdeetan, helburu turistikoetarako erabili ohi dira bertako kulturaren eta tradizioen hainbat alderdi.

Turismoaren ondorioz sortutako aberastasunek zerikusi handia dute balio subjektibo eta ukiezinekin; esate baterako, paisaien *edertasun*arekin eta kultura-adierazpen eta tradizioen *bene-*



takotasun eta balio sinbolikoarekin (MacCannell, 1976). Herralde pobre asko, ez lehengairik ez halakorik garatzeko modurik ez duten arren, oso aberatsak izaten dira kulturari dagokionez. Epe luzean pobrezia arazo estruktural eta kultural sakonak konpontzeko turismoak gaitasun nahikorik ez duela onartzen den arren, egia da horretan itzeleko eginkizuna dagokiola; batez ere, garapenari lotutako beste zenbait eragilerekin elkarlanean badihardu.

Iragan den mendeko 60ko hamarkadaz geroztik, turismo-garapenari buruzko diskurtsoak bi ereduren inguruan ibili dira zabuka bezala: batetik, *goitik beherako* garapen-eredua egon da, azpiegiturak eta inbertsioak barrurantz egitearen aldekoa; eta bestetik, *behetik gorako* garapen-eredua izan dugu, lekuan lekuko garapen integratuen aldekoa. Praktikan, garapen bidean diren herrialdeek estatu eta eskualdeetarako turismo-garapenari buruzko plangintza nagusiak hartu dituzte oinarritzat. Plangintza horiek elkarlanean egin ziren; tartean ziren nazioarteko zenbait erakunde handi ere: Nazioarteko Diru Funtza eta Munduko Bankua, batez ere. Plangintza horiek bereziki azpimarratzen dute turismo-garapenak dimentsio ekonomiko eta espaziala duela, eta kasuan kasurako hautatutako lekuetarako, eskala handiko ekoizpen-prozedurak ezarri behar direla. Garapen-eredu horri, baina, kritika ugari egin dizkiote, turistek eta lekuan lekuko herritarren arteko *segregazio* espazial eta soziala bultzatzen duelakoan; epe motzeko eredu bat izatea ere leporatu izan zaio –batez ere, eraikuntza-etapetan sortzen baititu lanposturik gehienak–, bai eta lekuan lekuko ekonomia desartikulatzea ere –komunitateen bidez irabaziak *jario*ko lituzke, nolabait–. *Jarioari* buruzko ideia horrek ez du ziurtatzen, hala ere, pobreenek diru-sarrena gehiago izatea, ez turismoa nagusi den lekuetan ez eskualde zabalagoetan. Are gehiago, hemen aipatu diren eredu-mota horien ezaugarrietako bat hauxe da: herritarrek erabaki-esparruetan parte-hartzerik ez dutela izaten. Kritika horiek gorabehera, eta beste eredurik ezean, gaur egun alde handiz nagusi izaten jarraitzen du turismoaren eredu industrialak.

Eredu horren aurkako alternatibarik aipatuena ekoturismoa da (bestela ere esan izan zaio: turismo iraunkor, berde eta atsegina, esate baterako). Turismo-garapenerako eredu horrek ingurumen- eta ekologia-baliabideei jarraitzen die, eta oinarritzat ikuskerara batean datza; lekuan lekuko komunitateek eta prozesuan sartuta dauden beste zenbait alde plangintzetan parte hartzen dute. Ekoturismoak uko egiten die zenbait helburu turistikorik, eta askotan ez ditu bere ikuskeran integratzen ez kultura-ondareari ez lekuan lekuko kulturetako baldintzei lotutako zenbait alderdi. Bere horretan, eredu ahula da, *balio handiko* turistek mende dauden kanpo-eragileen eta kompetentzia handiegiko egoeren esku gera baitaiteke (Boo, 1990).

Nolanahi ere, azken urteetan turismo-garapen mota berri bat sortu da: *pobreen aldeko turismo* esan izan zaiona, hain zuzen. Haren helburu nagusia hauxe izan da: turismoak sortutako irabaziak zuzenean lekuan lekuko komunitateen premia larrian daudenei isurtzea (Munduko Turismo Erakundea, 2004). Eredu horrek, begi-bistakoa denez, turismoaren negozioaren eta jende pobreen arteko loturak azpimarratu nahi izan ditu. Turismoak pobrezia arintzen saiatu eta pertsona pobreenek produktuen garapenean parte-hartze zuzena izatea bultzatu behar luke (Roe eta Urquhart, 2002). Dena dela, pobreei buruz ari garela, ezin ahaztu kategoria horrek beste asko inplikatzeko dituela: langileak, auzo-lagunen elkarteak, etxebizitza-jabeak, elikagai-ekoizleak, erregai-hornitzaileak, turismo-enpresa txiketako jabeak, eskulangileak, azpiegitura (ibilbideak) eta baliabide (ura) turistikoaren erabiltzaileak eta abar. Pobreen aldeko turismorako estrategia-



mota ugari erabil litezke: lekuan lekuko enplegua gehitzetik hasi eta enpresa txikiak sektore turistikoko merkataritza-zirkuituan sartzearekin bukatzeraino. Edozein motatako enpresak has daitezke lanean pobreen aldeko turismo horretan: ostatuak, hirietako hotelak, bidaia-antolatzaileak, etxegileak eta abar. Kontua ez da zer motatako enpresa edo zer motatako turismoa dugun aurrean, baizik eta pertsona pobrenei gero eta irabazi garbi gehiago iristea.

Gero eta ekimen gehiagok lotzen dituzte pobreziaren ondorioak arintzeko egitasmoak eta turismoa. Horri dagokionez, nazioarteko agentziek aparteko eginkizuna dute, komunitate pobrenek hasieran adituen laguntza eta finantzaketa behar izaten dute eta. Munduko Merkataritza Zentroa (Nazio Batuen Erakundeko *Merkataritza eta garapeneri buruzko konferentziak* sortutako kooperazio-agentzia teknikoa, alegia) eta Munduko Merkataritza Erakundea lanean ari dira nekazaritza-giroko komunitate pobrenek nazioarteko merkatuan eta merkataritza iraunkorrean parte hartzea bultzatzen duten proiektuetan. Testuinguru horretan, jakina, komunitatea bera oinarritzat duten turismo-proiektuak hautatzen dituzte.

Oro har, bada, argi dago kultura eta ondarea baliabide garrantzitsuak direla, eta, turismo-garapen iraunkorren bidez, pobreziaren arazoei aurre egiteko balio dezaketela. UNESCOk bereziki oinarri komunitarioko hainbat eredu informal sustatzen dihardu, pertsona pobreen gaitasunak aprobetxaturik, pobreziatik ihes egiteko beren estrategiak diseinatzen laguntzeko. Saiakera horrek UNESCOren esparru nagusiak ukitzen ditu: hezkuntza, kultura, komunikazioa, gizarte-garapena eta ingurumena.

Kultura-hornidurazko kate bat sortzea

Gaur egungo turismo-garapeneri buruzko ereduak mugatuta egon ohi dira denboran eta espazioan. Horregatik, hain zuzen, ereduok porrot egin ohi dute, lekuan lekuko komunitateei ezin

baitiete bermatu herrietako, eskualdeetako eta estatuetako hornitzaileen ondasun eta zerbitzuak turistengana isuri, eta horrela sortutako diru-sarrerak jatorrizko komunitateetako pertsonengana itzuliko direnik. (UNCTAD, 2004a, 2004b). Esate baterako, hotelek lekuan lekuko herrialdeetan egindako elikagaiak, arropa zuriak, altzariak eta arteak eskaini behar lituzkete. Horrela, turistek esker eskulangintzaren eta lekuan lekuko tradizioen merkatu garrantzitsu askoa sortuko litzateke; era berean, leku horietako musikaz, abestiez eta narrazioez gozatuko luketen entzuleak ere ez lirateke gutxi izango. Ibilbide turistikoak, interpretazio-guneak eta beste hainbat josteta aukera paregabeak dira gidentzat. Eta gidek, jakina, beren ezaupide eta senari esker, lekuan lekuko ohituren berri emango dute. Are gehiago, lan horien truke prezio on eta zuzenak eska litezke. Turismoak baditu, halaber, zenbait jaberekin eta eragilerekin lotutako arazoak; izan ere, askotan ia zertan ari diren jakin gabe eskura dagoenaren jaun eta jabe bihurtzen dira, edota ondasun, zerbitzu eta prozedura inportatuak erabiltzea erabakitzen dute. Dena dela, hornitzaileekin ere izaten dira arazoak, noski; batez ere, kultura-ekoizleei behar besteko babesik ematen ez dietelako, edo kalitate-irizpideak bermatzen ez dituztela-eta, lehiakortasunik gabeko zerbitzuak eskaintzen dituztelako.

Pobreen aldeko turismoari dagokionez, eta turismoak ekonomia-garapenerako eta lekuan lekuko kulturak zaindu eta sustatzeko balio duen aldetik, hornidura iraunkorreko kateek ikerketa- eta



garapen-egiturak behar dituzte ezinbestez, turismotik datozen irabazien fluxua maximizatu, eta gero, lekuan lekuko komunitateetan txertatzeko. Zenbait bidaia-antolatzailek ere iraunkortasuna hartu dute gidaritzat, eta horretarako, lekuan lekuko hornitzaile txikiengana jo dute. Horri dagokionez, Nazio Batuen Ingurumen Programak babesturik, eta *Garapen iraunkorraren aldeko bidaia-antolatzaileen ekimenaren* barruan, bidaia-antolatzaileentzako eskuliburu bat argitaratu da. Gida moduko horretan ingurumena babestu beharraz ez ezik, iraunkortasunaren alderdi sozio-kulturalaz ere hitz egiten zaigu; lekuan lekuko hornitzaileen lanaz, adibidez, edota familia-kideen artean eramandako negozioak modu egokian balioetsi beharraz (*Garapen iraunkorraren aldeko bidaia-antolatzaileen ekimena - Tour Operators' Initiative for Sustainable Development*, 2004).

Turismoa, kulturen arteko elkarrizketa eta ulerkuntza errazteko bide den aldetik

Nahiz eta komunikazio globalari dagokionez mundu osoan teknologia-garapena ikaragarria izan den, pertsonak elkar ulertzeko eta elkarrekin hitz egiteko sekulako premia izaten jarraitzen dute. Eta turismoak, halakoxea baita haren izaera, hartu-eman iragankorrak bultzatzen baditu ere, funtsean ezinbesteko bitartekoa da pertsonak eta taldeek elkarrekin harremanak izateko, elkarrekin istorioak, ideiak eta objektuak partekatzeo, giza nortasun bateratsu bat sentitzeko. Historian zehar, bidaiei esker, gizon-emakumeok elkarren berri izan dugu, gizarte eta kultura desberdinak ezagutu ditugu. Inoiz baino bidaia gehiago egiten dituen gizarte globalizatu honetan, turismoa aparteko baliabidea da elkarrizketa eta hartu-emanak bultzatzeko. Halaxe dio ICOMOSek 1999an argitaratutako *Turismo kulturalari buruzko nazioarteko gutunak*: «Bai nazioarteko bai lekuan lekuko turismoak kulturen arteko hartu-emanetarako baliabide garrantzitsuenetako bat izaten jarraitzen dute, iraganeko kontuei buruz ez ezik, gizon-emakumeen gaur egungo bizimoduari eta, oro har, gizarte desberdinei buruzko esperientzia pertsonala ematen digulako».

Zibilizazioen arteko elkarrizketa mugari garrantzitsua da UNESCOrentzat; haren sorrera-agiriak ere halaxe aitortzen du: «gizakien buru-bihotzetan bakea» eraikitzeo bitarteko funtsezkoa dela onarturik, elkarrizketa UNESCOren egitasmoen giltzarria da. Bada uste bat dioena «bidaiatzeak



buru-bihotzak zabaltzeko» balio duela; uste horri oso gertutik jarraitzen dio beste honek: elkarrizketa baliabide ezin egokiagoa da beste gizarte eta kultura batzuen berri jakiteko. Bakea eta segurtasuna lortzeko bitarteko bakarra ez den arren, elkarrizketa elkar ulertzeko baldintza egokiak erdiesteko giltzarria da, bai eta kulturen arteko desberdintasunez jabetu eta aurreiritzi kulturalak saihesteko ere. Nazio Batuek *Zibilizazioen arteko elkarrizketaren nazioarteko urtea* (2001) aurkeztu zutenean, honela esan zuen Kofi Annanek: «Nire ustez, elkarrizketak aukera paregabea ematen du munduko mutur banatan edo kale berean dauden kultura eta tradizio desberdinetako herrialdeek elkarren berri izan dezaten».

Turistek eta lekuan lekuko herritarrek elkarrekin topo egiten duteneko

Azken batean, kultura batek ezin dezake aurrera egin beste kultura batzuekin hartu-emanik ez badu, ez eta aniztasun historikoaren eta aldaketa globalen berezko konplexutasunen ondorioz beste kultura horiek haren-

gan eraginik ez badute ere. Turismoak eginkizun garrantzitsua du kulturen arteko elkarrizketa erraztu eta sustatzeko (Viard, 2000). Haren formarik sinpleenean, turismoak herrialde eta kultura desberdinen arteko hartu-eman bultzatzen du. Herrialde garatuenen artean izaten dira hartu-eman turistiko gehienak, haietan garatu baitituzte turismoarentzat azpiegiturarik sofistikatuenak. Beren kultura eta tradizioak ere haietan moldatu dituzte hobekien, aisialdia eta turismoaren negozioa sor zitezten. Bidaiari-kopuruari dagokionez, Europa gailentzen da beste guztien gainetik: mundu osoko bidaiarietatik %58k Europa hautatzen dute. Haren atzetik, %17k Asia eta Ozeano Bareko herrialdeak hautatzen dituzte; %16k, Amerika; eta %4k, Afrika eta Erdialdeko Ekialdea. Begi-bistan dago nazioarteko turismoak ez diola Afrikari bere ondare eta kulturek dituzten aberastasunen pareko onurarik uzten. Horretarako arrazoiak konplexuak dira, baina pentsa liteke babesa handituko balitzaio eta garapen-sareak hobetuko balitu, Afrikak itzeleko aukerak izango lituzkeela nazioarteko turismo-merkatuan parte hartzeko.

Nazioarteko turismoaren asimetria-egoera hori norbanakoen ikuspuntutik ere aztertu behar da. Norberarena baino estatu garatu gabeago batera doan turistak gehiegitxotan uste izaten du –eta halaxe erakusten– bertako herritarrak baino pribilejiodunagoa dela, eta hango inork baino autoritate- eta askatasun-maila handiagoak dituela. Aisialdi-garaia da berea, eta bertako herritarrak, aldiz, lanean ari dira, alde edo moldez. Horrek ez du inolaz ere esan nahi turistak kontzienteki delako herrialde hori esplotatu nahi duenik. Nolanahi ere, jardunbide hori gidaritzat harturik, besteen bizimoduak ezinbesteko forma jakin bat ematen zaie.

Turisten eta lekuan lekuko komunitateetako herritarren arteko harremanak ez dauka zertan uste bezain sakona izan. Oso mugatua ere izan liteke. Batetik, turistaren jarreragatik gerta liteke hori, desberdintasun eta aniztasun kulturalen batera berririk jakin nahi ez, edota aurrez jasotako informazioa dela medio, zuzen ala oker, hartu-eman horrek kalteren bat eragingo diola pentsatu, eta lekuan lekuko jendearekin harremanik izan nahi ez duelako. Bestetik, berriz, egiten den turismo-motak ere ustel dezake harremana zuzena eta berezkoa izatea, bai denboran bai espazioan jarduera erabat kontrolpekoetara mugatzen delako bidaia.



Turisten eta lekuan lekuko komunitateen arteko eragin-trukeak susmo soiletan oinarritzen dira sarrienetan. Aurrenik, turistek multzo homogeen bat osatzen dutela susmatzen da: turista *izate*a eta turismoa *egite*a funts nagusi duen multzo bat, alegia. Baina hori ez da dirudien bezain ohikoa izaten, turistak banan bana hartuko bagenu, eta nahiz eta haiek egindako bidaiak oso luzea izan daitekeen, lekuan lekuko herritarrenganako jarrera eta uste zeharo desberdinak dituztela ohartuko baikinake. Bigarrenik, lekuan lekuko herritarrek turistak arrotz edo atzerritartzat hartzen dituztela pentsatu ohi da. Horri dagokionez ere, kontuak ez dira beti hain garbiak izaten, hara-hona globalak luze-zabalak izaten dira eta. Turistei abegi ona erakusten zaie, ekarpen ekonomikoak egiten dituztelako ez ezik, baita bertakoez bestelako kulturetakoak direlako ere. Uste den baino sarriago, bi aldeek antzeko gogoak izaten dute denek baterako duten gizatasun hori gune bertsuan elkarrekin konpartitzeko. Hirugarrenik, lekuan lekuko kulturak homogeenak direla pentsatzen da, eta hori ere ez da horrela izaten. Batzuetan, hala ere, zaila izaten da, bidaiak irauten duen denbora-tarte gutxi-asko laburrean, komunitate baten aniztasun eta konplexutasun sozial eta kulturala behar bezala azaltzea; batez ere, bidaiak-antolatzaileek edo turismoaz arduratzen diren pertsonen era horretako auziei ez badiete behar besteko garrantzirik ematen.

Turistek beren ondare eta bizimoduaren balioaz ohartaraz diezaiakete lekuan lekuko komunitateei. Turisten eta tokiko pertsonen arteko hartu-emanak bi aldeetako mitoak eta estereotipoak uxatzeko balio dezake. Zenbaitetan, bidaiak-antolatzaileek ahaleginak egiten dituzte turisten eta lekuan lekuko herritarren artean ahalik eta harreman gutxiena egon dadin. Muturreko kasu horietan ere, kulturen arteko hartu-emanak gerta daitezkeen oztopoak besterik ez dira opor-lekuok, fisikoki ere eragozten dutelako harreman horiek sortzea; sarritan, hala ere, bidaiak-antolatzaileek berek hautatutako lekuetan egonaldi labur-laburrak nahita antolatzen dira, turistek denbora luze eman dezaten dendetan eta halakoetan, eta ez jendartean, horrela beren komisioak mamitsua-goak izango direlakoan.

Garapen bidean diren herrialdeetara bisita egitean, turistek lekuan lekuko kulturen aniztasun, edertasun eta bizitasunaz gozatzeko aukera izaten dute. Baina, aldi berean, leku horietan nagusi diren txirotasuna eta ingurumen hondatua ere ikusi behar izaten dituzte. Urteen joanarekin, turistak eta turismoaren industria aldatuz joan dira: hasieran lekuan lekuko herrialdeetan gertatzen ziren jazoeren behatzaile baino ez ziren, baina gaur egun askoz modu aktiboagoan parte hartzen dute herrialde horietako ongizatea, ingurumena eta ekonomia hobetzen. Izan ere, zer ikusi, huraxe esan eta salatzen dute: haurrek egindako lan bidegabea, sexu-turismoa eta animaliekiko krudelkeria. Eta horrez gain, noski, ingurumena hobetzeko planak ere diruz finantzatzen dituzte sarri askotan.

Ibilbideek jokatzeko duten rola

Historian zehar, herrialdeek ezaupide, sinesmen, ideia, gaitasun eta produktuak elkarrekin partekatu dituzte; eta horretarako, funtsezkoak izan dira, muga politiko eta administratiboak albo batera utzirik eta arrazoi komertzial eta erlijiozkoak zirela medio, herrialdeen artean eraikitako *ibilbideak*. Ez hain aspaldiko bidaiariek hartu-eman ugari bultzatu zituzten ibilbide horietan zehar, munduaren berri gero eta zehatz eta zabalago jakiteko. Ikusirik turistek gogo bizia dutela denbora-tarte mugatuan ahalik eta esperientziarik gehienak

Historian zehar, herrialdeek ezaupide, sinesmen, ideia,



bizitzeko, gaur egungo turismoan ere garrantzi handiko ibilbide ugari aurkitzen ditugu. Estatuetan bertan edo haien arteko mugetan zehar, bidaia-antolatzaileek ibilbideok diseinatu eta pake-te batean sar ditzakete, turismo-gune jakin baten interes kulturala ahal beste azpimarratzeko.

Gehienetan, turismo-ibilbideak inguru natural eta kultural ikusgarrietan egoten dira, lekuan lekuko bizimoduaren alderdi exotikoenak ikusgai dauden lekuetan; horren ondorioz, baina, gerta liteke leku horiek gehiegi esplotatzea. Ibilbideek, halaber, bazterketa sozial eta ekonomikoa bultzatzen dezake komunitateko zenbait sektoretan, eta pribilegio ugari, beste zenbaitetan. Horren ondorioz, bisitariak normalean lekuan lekuko herrialdeari buruzko irudi gutxi-asko lerratu izaten dute, txoko asko eta asko ez baitituzte ikusi ere egiten. Eta, jakina, horren ondorioz gerta liteke desiratzekoak ez diren aurreiritzi eta estereotipo ugari sortzea. Arriskua, behintzat, hor dago. Ondare- eta kultura-aniztasuna elkarrekin komunikatzeko baliabide den aldetik, eta ibilbide turistikoari buruzko noziooi dagokienez, ezinbestekoa da lekuan lekuko komunitateek aktiboki parte hartzea ibilbideon diseinu-, funtzionamendu- eta interpretazio-lanetan.

Bitartekariak jokatzeko duten rola

Lekuan lekuko herrialdeei buruzko irudi bat osatzeari eta forma emateari dagokionez, bitartekariak –bidaia-antolatzaileak, gidariak eta bidaia-saltzaileak, adibidez– sekulako garrantzia dute: haien kudeatzen dute

turisten uste, iritzi eta itxaropenak bazkatzeko balio duten ezaupideak eta informazioa. Bidaia-antolatzaileek emandako informazioaren bidez turistari hezkuntza moduko bat ematen zaio *de facto*: hari esker bisitatuko duen kulturari buruzko informazioa erdiesten du turistak. Horretan, liburuxkak eta bidaia-liburuak ere garrantzi handikoak dira, haietan informazio ugari lor baitezakegu. Edonola ere, zenbaitetan lekuan lekuko komunitateei buruzko ideia okerrak ematen dizkigute material horiek, turistei egiaz ikustera doazenari buruzko iritzi ustelak sorrarazteraino. Turismoaren eta lekuan lekuko gizarteen mesedetan, beraz, oso garrantzitsua da bitartekari-lanetan ari diren langileek gomendatzen dituzten lekuei buruzko ezaupide zuzen eta zorrotzak izatea, lekuan lekuko kulturen inguruko arau eta sentipenen berri izatea eta horri guztiari buruz turistari zintzo informatzeko gai izatea.

Ibilbide turistikoak antolatuz, bidaia-antolatzaileek eragin zuzena izaten dute lekuan lekuko komunitateetako gizartean eta ekonomian, turistak alde edo moldez akuilatu egiten baitituzte leku batzuetara joan daitezkeen eta beste batzuetara joateari uko egin diezaioten. Esate baterako, zenbaitetan leku bateko kriminaltasun-tasa sobera gizontzen dira, eta beste zenbaitetan, berriz, balizko arriskuak nabarmen arintzen. Horren ondorioz, noski, garbiak dira: komunitate bateko herritar ugari kanpoan uztea, lekuan lekuko merkatariei beren diru-sarrerak gizontzeko aukera ukatzea eta leku horiei buruzko iritzi zitalenak betikotzea. Gobernuak, beraz, bai hangoek bai hangoek, ardura nagusi bat dute: turisten ongizatea bermatu behar dute eta hasiera-hasieratik ohartarazi zer arrisku-mota dituzten hautatutako lekuetara bidaiatuz gero. Bidaia-antolatzaileek ere beren bezeroen segurtasunaz eta ongizateaz kontu egin behar dute. Beharrezkoa da, gainera, egoera edozein dela ere, lekuan lekuko merkatariekin sortutako salerosketa-harreman guztiak behar bezala araututa eta zorrotz zuzenduta egotea, jarduera horiek guztiak txukun gerta daitezkeen eta turistak bidegabeki esplota ez ditzaten. Laburbilduz, bidaia bat hasieratik eta



bukaeraraino definitzen duten zenbait alderdi orokor kontu handiz zaindu behar dira: turistek informazioa eskura izateko aukerak bermatu, tartean diren eragileen jardunbideak ahalik eta garbienak izatea bultzatu eta unean-unean zuzen eta egoki jokatzeari zer den erabakitzeke lekuan lekuko herritarrekin feedbacka lortzea bilatu behar da.

Bidaia-antolatzaileek lekuan lekuko komunitateetako herritarren artean bil ditzakete gida turistikoak: herri txikitako pertsonak izango dira batzuetan, eta beste batzuetan, berriz, bidaia-antolatzaileek kanpotik propio ekarritakoak. Edozein kasutan, gidek itzeleko eragina izaten dute, haiek aukeratzen baitute turistak nora eraman eta nora ez. Beren istorio eta irudiez baliaturik, lekuan lekuko gidek bitarteko kalkulazinak ematen dizkiete turistei lekuan lekuko komunitateen kulturetara hurbildu eta haien iragan zein orainari buruzko ulerkuntza sakonagoa lortzeko. Baina, edonola ere, gerta liteke, halaber, turistak komunitate bateko zati jakin bati begira jarri, hura lehenetsi, eta gainerako guztiei errezeloz erreparatzea.

Ezinbestekoa da turismoan buru-belarri lanean ari diren bitartekariak –bidaia-antolatzaileek eta gidek ez ezik, baita taxi-gidari, hoteletako langile eta halakoek ere– garbi jakitea haien lanak zer-nolako garrantzia duen kultura baten baitako kideen arteko elkarrizketa bultzatzeko. Bitartekariok badituzte, izan, lan-mota horietarako behar izaten diren abildade eta ezaupideak, jakina, baina, horrez gain, funts-funtsezkoa da, turisten esperientzia nolabait aberasteaz areago, lekuan lekuko kulturei buruzko irudi on bat ematen ere saiatzea.

Komunikabideek jokatzen duten rola

Bidaiak etxean hasten dira, eta etxean amaitzen. Turista bihurtu baino lehen, mundua eta munduko herrialdeak deskubritzen ditugu sozializazioaren eta hezkuntzaren bidez.

Oso azkar (gero eta azkarrago, egia esatera), geureak ez diren kulturei buruzko ikuskera bat lortzen dugu komunikabideei esker. Rol-jokoez, jostailuez, haur-literaturaz eta, oro har, eskolako jardueraz baliatzen gara lehenbizi; gero, telebistan, liburuetan eta egunkarietan ikasitakoaz baliatzen gara kultura desberdinen berri izateko. Egunez egun pilatuz goazen irudi-andana hori, baina, ez da beti bat etortzen turismoaren industriak etengabe bonbardatzen dizkigun irudiekin.

Kulturen arteko elkarrizketari buruz ari bagara, ezin ukatu turismoak erabiltzen dituen hedabideek sekulako eragina dutela: bidaiei buruzko gida, esku-orri eta hedagarriek turistak kitzikatzeari dute helburu, oso kultura desberdinei buruzko informazioa lortzera egiten die dei (Urry, 1990). Sarritan, ordea, turismoak etengabe bidaltzen dizkigun irudiok idealizatuta egoten dira, exotikotasuna bilatzen dute, turismoa beren arazoaren konponbidetzat hartzen duten estatuen uestezko balioak nabarmentzen dituzte. Baina, jakina, era horretara emandako informazioa, irudiz hornitutako propaganda-mota hori, erredukzionista izaten da ia beti; eta horretan ere, ardura nagusia bidaia-antolatzaileena bezala lekuan lekuko herrialdeetako industria turistikoarena ere izaten da. Material horren xedea oso bestelakoa da, baina: kasuan kasurako hautaturiko lekuen berri txukun ematea eta horretarako informazio egokia erabiltzea, eta, diskurtso koherenteen bidez, balizko turistei bidaiatzeko gogoia piztea. Eskema-mota horiek oroitzea erraza izaten



da, oso eraginkorrak izaten dira. Turismo-gideak, adibidez, eragin handia izan ohi dute; geure hautuak baldintzatzerainoko garrantzia, inondik ere: bidaia bat egitera goazela zer herrialde hautatu behar dugun, horra hor haien eraginaren norainokoa. Hala ere, haien garrantzia dela eta, bada beste kontu bat ere aipatu beharrekoa: giden eta eskuliburuak eta halakoen bidez iristen zaizkigun informazioak kultura-testuinguru desberdinei buruz turistek izaten dituzten iritziak eta haiekiko hartzen duten jarrera ere baldintzatuta egoten dira. Horrenbestez, leku eta kultura ugariri buruz noranahiko hedabideetan ikusten ditugun saioek turista potentzialen irudimena pizten dute, eta bidaiatzeko aukera berriak sortzen. Horrela, gainera, bide berriak urratzen dira, pertsonen arteko hartu-emanak sor daitezten.

Nolanahi ere, helburu turistiko soilak dituzten baliabideak ez dira informazioa eta ezagutza transmititzeko iturri bakarrak. Zeharka bada ere –eta, zeharka izan arren, puntu honen garrantzia itzelekoa da–, kultura, herrialde eta paisaiagutziz baliagarriak dira herrialdeei, paisaiei eta herriei buruz mendez mende literaturaren, mapen eta artearen bidez iritsi zaizkigun irudiak, helburu turistikoak, bertako jende eta kultura, lekuan lekuko testuinguruan, iraganekoan bezala gaur egungoan ere, kokatzen baitituzte. Esate baterako, zinema, nazioartean dezente banatzen baita, leku guztietara heltzeko gai izan da, eta kulturari zein geografari buruzko estereotipo guztiak berresteko nahiz zalantzan jartzeko ahalmena izan du. Zentzu horretan, hedabide horiek, nahiz eta independenteak diren turismo-industriarekiko, haren adierazpenak etengabe elikatzen eta aberasten dituzte.

Neurri handi batean, iraganeko arteak eta literaturak mundu-ikuskera bat osatu digute, eta ikuskera horretan bereiz ageri dira kultura zibilizatuak, batetik, eta kultura primitiboak, bestetik; Ekialdea, batetik, eta Mendebaldea, bestetik; boterea duten herrialdeak, batetik, eta botererik gabekoak, bestetik. Bai turistak bai sektore turistikoa, bi-biak daude murgilduta hedabide ugari sortutako ideiak, idealak eta irudiak nagusi diren testuinguruetan, eta testuinguruok beste kultura batzuei buruz izan ditzakegun itxaropen, esperientzia eta interpretazioak determinatzen dituzte gu geu turista bihurtu baino lehen.

Nola egin aurre mundu uniforme bati?

Kontzeptu eta errealitate den aldetik, globalizazioari buruzko interpretazio konplexu eta kontraesankorrak izan dira (Robertson, 1990). Oro har, bi interpretazio izan dira na-

gusi: batetik, haren alderdi ekonomikoak azpimarratu, eta mundu-mailako mugimenduez, kapitalen mugimendu transnacionalez eta eskulana ardatz nagusizat dituen; eta bestetik, hartu-eman kulturalak hizpide hartzen dituen (Appadurai, 2003). Ulf Hannerz suediar soziologoak azaldu duenez (1996), globalizazioak mundu-mailako gizarte-harremanen sare bat eratzen du; sare horrek «ondasunen eta pertsonen fluxua sortzeaz gainera, zentzua bera ere sortzen du». Pertsonak eta ondasunak munduan zehar ibiltzen diren modua oso konplexuak dira, zehazten zailak, komunikabide ugari baitaude tartean. Turismoa berariaz komunikabide horietako bat den arren, beste komunikabide, erakunde eta erlazio historiko, politiko eta militar, merkataritza-bide, lotura linguistiko eta etniko oinarri dituzten fluxuekin lotuta egoten da. Horiek guztiek, gainera, zeinek bere elkarriketarako plataformak izaten ditu.



Zenbaiten iritiz, globalizazio-prozesuek mundua uniforme bilakatu dute. Turismoaren industria ere halaxe ikus liteke: non kokatzen den batere axola gabe, identifikatzen eta errepikatzen errazak diren baliabideak, erakarpen-indarrak, erosotasunak eta estandarrak sortzen dituen indar globalizatzailea da industria hori. Egia da, bai, garapen bidean diren herrialdeetan, baina baita herrialde garatuenetan ere, estandarizazioa gero eta nabarmenagoa dela; nazioarteko hotel-, jatetxe- eta merkataritza-kateak nagusi dira, eta, pixkanaka, lekuan lekuko ostatu, jatetxe eta dendei haien irizpideak ezarri dizkiete. Hala, irlandar taberna tipikoak aurkituko ditugu Bonbain, hanburesategiak, Beiruten, eta pizzeriak, Beijingen. Joera horrekin batera, nazioarteko kalitate-arauak ezartzen dizkigute, zenbait eskema uniformeri jarrai diezaiegun: jokabide, hizkuntza, ohitura eta elikagai bertsuak darabiltzagu nonahi. Hori guztia ez da berez txarra, baina badirudi, hala ere, eboluzio moduko horri gero eta gehiago errezeloz begiratzen ez ote zaion, horrek lekuan lekuko ondareari eta kultura-aniztasunari mehatxu egiten diolakoan; turistek, hain zuzen, ondare eta aniztasun horiek bilatzen dituzte, haiei ematen diete garrantzia.

Bere sakonean, ordea, arazoa, gustuen eta joeren uniformizazioan baino areago, enpresa-mota horien logika ekonomikoan datza, bai eta enpresa horien irabazi ekonomikoak lekuan lekuko herrialdeetan txertatzen diren mailan ere. Beste zenbait kontu ere planteatzen dira; adibidez, zenbait herrialdeetan zenbateraino ezartzen diren nazioarteko kateak, lekuan lekuko hornitzaileen kaltetan. Auzi horiek konplexuak dira, lekuan lekuko hornitzaileek ez baitute agian atzerriko kateek antzeko egoeretan lortuko luketen kalitate-estandarrik lortzeko baldintzarik. Zenbait kasutan, ordea, nazioarteko kateak erraz samar sar litezke lekuan lekuko hornitzaileen aldirietan, eta kalitate- eta zerbitzu-estandarrak hobe ditzakete, gainera. Dena dela, gerta liteke, lekuan lekuko kultura-eskaintzei dagokienez, nazioarteko kate horiek nagusi bihurtzea ere, eta, nahigabe izan arren, lekuan lekuko ekimenak itotzea.

Globalizazioaren ondorio berdintzaileen aldean, eta herrialde guztiak lekuan lekuko nahiz atzerriko turistak erakartzeko elkarren aurka lehia bizian ari diren honetan, bereizte-prozesu bat gertatzen ari da: turismoa hartzen duten herrialdeek bakantzeko modua aurkitzen dute beren kultura-eskaintzen ugaritasun eta originaltasunaren bidez. Horri esker, tokian tokiko komunitate eta kultura ugarik estatuetakoa eta eskualdeetakoa estrategia turistikoetan parte har dezakete. Horretan nabarmen ikus daiteke marketing turistikoan egindako sormen-lana, baina baita globalizazioaren mehatxuei –alegiatzkoei eta egiazkoei– kulturatik aurre egiteko modu bat ere.

Arazo nagusia da ez dagoela funtsezko ikerketarik fenomeno horri buruz. Nolanahi ere, tronpatzeko arriskurik gabe esan liteke turista-kopuru handi samar batek bilatzen eta kontsumitzen duela, baita atzerrian daudenean ere, ezagunak gertatzen zaizkien marka handiak. Dena dela, oker egongo ginatke hori sobera balioetsiko bagenu, haren garrantzia mugatua baita. Uniformetasun kulturala oso urrutiko kontua da eta kulturen arteko loturen berri ematen du, haien arteko mendekotasuna baino areago. Eta nazioarteko turismoak balizko globalizazio horretan esku eta parte hartzen jarraituz gero, askoz prozesu zabalago bateko elementu gisa baino ez luke egingo; hau da, mundu osoan barrena gertatzen ari den aldaketa eta hartu-eman kulturalen baitako elementu gisa.



Atzera ere, kontzeptu nagusia *dosifikazio* dugu. Ekonomia globala eta kultura publikoa lekuan lekuko kultura eta balioekin erlazionatzen denean erabili ohi da *globalizazio* terminoa (Robertson, 1990). Marka globalak estatuko, eskualdeko nahiz lekuan lekuko kulturetan txertatzen dira, eta kultura-aniztasuna ito ez, turismoa hura lekuan lekuko kultura eta ondarean txertatzeko tresna paregabea da.

Turismoa eta turismorako hezkuntza

Teorikoki, turismoak oinarri-oinarrizko eginkizuna du kulturen arteko elkarriketari dagokionez, mailarik berehalako eta barrukoenean; baina, edonola ere,

elkarrizketarako baldintzak sortzearen inguruko arazoak konpontzeke jarraitzen dute, eta baldintzok konpontzeko, ezinbestez heldu behar zaie berdintasunaren eta integrazioaren auziei. Gorago ere jorrotutako auzi eta gaien garrantziak nabarmen adierazten du beharrezkoa dela turismoaren eta kulturaren arteko hartu-eman korapilatsuen aldirietan lanean dihardutenei heziketa egokia eskaini behar zaiela.

Begi-bistakoa denez, heziketa ezinbesteko jarduera da garapen-arlo asko eta askotarako. Nazio Batuen Erakundeko Ingurumen eta Garapen Batzordearen 1987ko txostenak eta 1992ko Lurrari buruzko Goi Bilerak, biek ala biek azpimarratu zuten heziketa ezinbesteko baliabidea zela garapen iraunkorra erdiesteko. Ildo horretan, Johannesburgeko Goi Bilerak (2002) garapen iraunkorrari buruzko ikuspenak nabarmen zabaldu eta Nazio Batuen Milurtekorako Garapenari buruzko Helburuetako eta Guztientzako Heziketarako Ekintza Esparruko (Dakar, 2000). Nazio Batuen Batzar Nagusiak, 2002ko abenduko LVII. saioan, Garapen Iraunkorrerako Hezkuntzarako Hamarkada izendatu zuen 2005. urtetik 2014. urtera zihon hamarkada, eta UNESCOri eman zion hura zuzendu eta gidatzeko ardura.

Praktikan, ordea, heziketa-arloko lan garrantzitsuenak pobrezia erauzten eta garapen iraunkorrera aitzinatzen egin dira. Ikuspegi horretatik, eta Zibilizazioen arteko Elkarrizketari buruzko Nazioarteko Konferentzian (2003) onartu zuten, heziketa «ezinbestekoa da komunitateak eta gizarteak demokrazia- eta justizia-printzipioetan eta giza eskubideekiko errespetuan errotu eta garatzeko». Horrez gain, konferentzia horrek azpimarratu zuenez, kultura guztiek elkar uler dezaten, haien historiak eta filosofiak elkar ezagut dezaten, giza eskubideak eta hizkuntzen irakaskuntza zutabe izango dituen heziketa bat lor dezaten, behar-beharrezkoa da gobernuek curriculum egokiak egitea. Horri guztiari dagokionez, turismoa, bere baitan esparru eta arlo ugari hartzen baititu, baliabide bikaina da kulturen arteko hartu-emanetarako eta hezkuntza-arloan sor litezkeen ekimenetarako.

Turismoaren testuinguru zehatzari dagokionez, berriz, hezkuntza maila ugarritan zatitzen eta talde ugariarekin erlazionatzen da; eta, jakina, hainbat eta hainbat jarduera bultzatu ohi ditu, eta jarduera horiei esker iristen da tartean den informazio-andana komunitate bateko kide guztiengana. Turismoak, halaber, hezkuntza-erakundeek eskaintzen dituzten ikastaro formalak eta programa ofizialak betetzen ditu; baina, edonola ere, askoz mekanismo informalagoez ere baliatzen da: turismo-gidak, eskuliburuak, bideoak, Internet, interpretazio-taulak eta abar. Galdera



batek, hala ere, erantzunik gabe jarraitzen du: nori dagokio turismoan heztea eta nork ordaindu behar luke hargatik?

Badira hogeit hamar urte inguru mundu garatua turismoari buruzko hezkuntza-programa formalak erruz ugaitu zirela: gradu eta gradu ondoko diplomak ematen hasi zirela, alegia. Hainbeste garatu gabeko herrialdeetan, ordea, turismo-heziketa ez da hain bizkor hazi, eta, halakoetan gertatu ohi den bezala, komunitate bakoitzeko kideak abantailatsuenek baino ez dute izan aukerarik hartara iristeko. Turismo-heziketako programa formalek interes handia dute, nazioarteko turismoa eta haren alderdi ekonomiko, geografiko, soziologiko eta antropologikoa zorrotz eta kritikoki aztertzeko aukera ematen duelako. Ikasketa horietan, kasu kasuko azterketak eta praktikak egiten dira, eta kulturarekin lotutako gaiak lantzen dira: baliabide turistikoak, lekuan lekuko komunitateek turismotik datozen irabaziak nola maximizatu eta abar. Nolanahi ere, ikasketak horiek egin, sektore turistikoan lanean hasi eta ikasitako teoria praktikan jarri eta landutako guztia garatzeko aukera dutenak gutxi dira oraindik. Eta, horri dagokionez ere aldaketaren bat edo beste egon den arren, tarte handia dago oraindik ikasle on eta kritikoen eta nazioarteko turismo-sektoreak eskatzen dituen eskarmentudun langileen artean.

Nahiz eta unibertsitateetan eta eskoletan eskaintzen diren ikasketak oso baliotsuak den, turismoan beharrezko diren hezkuntza eta prestakuntza esparru ofizialetatik kanpora bilatu behar dira ezinbestez. *Lekuan bertako* turismoan jardutea helburu dutenentzat, guztiz beharrezkoa da kultura desberdinak eta haien buruzko sentiberatasun ugariak ulertzea bermatuko duen hezkuntza-mota bat. Horrez gain, sektoreko langileek unean uneko arazoak berri jakin behar dute, bai eta komunitateek aurrean izan ditzaketen erronken berri ere. Litekeena da ostalaritza-enpresen eta bidaia-eragileen bitartez lortzea hori, baina, ezinbestekoa da aldi berean enpresa horiei hezkuntza egokia ematea.

Bidaia-gidariak ere, independenteak izan nahiz bidaia-antolatzaileek kontratatutakoak izan, oso garrantzitsuak dira kultura-ondarea eta kultura-aniztasuna biziberritzeko. Zentzu hertsian, beren etxera itzulitako turistengan arrasto iraunkorra uzteko aukera dute, eta, horrekin batera, bisitatutako komunitateei eta kulturei buruzko irudi zintzo eta holistikoa emateko aukera ere bai. Zenbait estatutan, prestakuntza baldintza ezinbestekoa da inor bidaia-gidari izateko, nahiz eta sarritan prestakuntza-ikastaroetan pertsonen arteko harremanetan eta lekuan lekuko historia zehatzean sakontzeko trebeziak baino ez diren ematen. Badirudi, hala ere, aukera guztiak galtzen ari ez ote garen, eta ez ote dugun alferrik pasatzen utzi turismoaren garrantziari buruz komunitateari mezu argiagoak emateko aukera, bai eta ondarearen nahiz kultura-aniztasunaren balioak gaur egungo lekuan lekuko garapeneraren testuinguruan txertatzeko ere. Bidaia-gidarien beren prestakuntzaz eta hezkuntzaz areago, bai estatuetan bertan bai, oro har, nazioartean ere, bi-bietan egin beharko litzateke lan behar beste informazio eskaintzeko gidariok duten garrantzi itzelaz eta garapen bidean haiek duten ahalmen handiaz.

Ohikoa izan da pentsatzea guztiz premiazkoa dela lekuan lekuko komunitateei –eta, batez ere, turistengandik hurbil lanean ari diren kideei– prestakuntza eta hezkuntza eskaini behar zaizkiena, gero beraiek landu beharko dituzten zerbitzu turistikoetan eskarmentua lor dezaten. Horrek nolabait esan nahi luke turistaren aisialdia lehenesten ari garela batez ere, eta ez lekuan lekuko



komunitatearen premia. Beste alde batetik, komunitate horri emandako hezkuntza uler liteke ere –turismoa bera balio ekonomiko eta kulturala ere bai baita– irabaziak maximizatzeko eta ondorio txarrak minimizatzeko lantegi gisa.

Pentsatzen hasita, beharbada pentsa liteke turistak ere hezi beharko genituzkeela, ez soilik beren helburu-herrialdeari buruzko ezaupideekin; haien jokabidea ere moldatu beharko genuke alde edo moldez. Lekuan lekuko kulturei eta ohiturei errespetuz begiratzea ez ezik, ezinbestekoa da ere kultura horiek aurrean izan ditzaketen arazoei eta erronkei begirunez begiratzea. Beren egonaldiak irauten duen denbora-tartean, turistek agian ez dakite hizkuntza edo artisautzalanen bat edo beste arriskuan daudenik, edo ondarearen bat edo beste mehatxupean dagoenik –hala ere, ez nahitaez turismoaren ondorioz–, halakorik esaten ez badiote. Beraz, ondarea eta kultura-aniztasuna babestu eta garatzeko sor litezkeen sareetan turistek taxuz parte hartuko badute, beharrezkoa da bidaiari ekin baino lehenago hura behar bezala prestatzea: lekuan lekuko kulturekin lanean diharduten bidaia-antolatzaileek emandako informazioa, gidaliburuak eta hegaldietan ikusgai jarriko dituzten bideoak ezinbesteko baliabideak izango dituzte turistek horretarako.

Turismoa eta ingurumena babestu beharra

Turista askorentzat, oso modu orokorrean *natura* esaten diogun hori deskubritzea izaten da bidaiatzeko arrazoi nagusia. Dena dela, bidaiari askoren iritziz natura izaera espiritual itzeleko zerbait izaten den arren, ikuspegi ekologiko huts bati helduz gero, guztiz bestelako uste bat gailentzen zaigu, ekosistema ahula eta zaugarria izaten da-eta sarritan natura. Beraz, natura turismoaren baliabide gisa erabiliko badugu, baldintza egokiak sortu beharko dira garapen iraunkor batera iritsi eta natura begirunez tratatzeko. Alderdi ekologiko huts horiez gainera, baina, oso kontuan hartu behar ditugu lekuan lekuko komunitateak: baliabideok nola erabiltzen dituzten, zer-nolako hartu-emanak izaten dituzten beraienez bestelako kulturekin eta, termino erreal nahiz simbolikotan, baita komunitateotan bertan nola birbanatzen dituzten jarduera ekologikotik ateratako irabaziak ere.



Turismoa eta naturaren espiritua

Turismoaren eremu zabalean, interpretazio ugari egin izan dira *natura* terminoari buruz: espiritualtasuna aldarrikatzen dutenetatik eite zientifikoagoa aldeztzen duten interpretazioetara (Posey, 1999). Zenbait tes-

tingurutan, naturari buruzko kontzeptua erabili izan da adierazteko gune bat ukitu gabea dela, giza jarduerak ez duela han eraginik izan, toki ugalkorra dela, jainko-jainkosak eta espirituak bertan bizi direla (Turner & Turner, 1978). Zentzu horretan, inguru naturalak estu lotuta daude sorrera eta hasiera aditzera ematen duten ideiekin: urrezko aro halako batekin, edo denboraren goiztiriekin, edo paradisuak eta inozentzia galdu zireneko lekuekin (Délumeau, 2000). Gaur egun, turismoa ez da horixe besterik: erromesaldi edo erritual moduko bat, paradisuari buruzko mitoak eta kulturalki estu lotuta dauden beste zenbait sorrera-mito etengabe berritzen dituen jardueramota bat (Graburn, 1989; Cohen, 1992). Hortaz, ikuspegi horretatik ere, natura entitatealdi berean geografikoa eta metaforikoa da, eta itzeleko garrantzia du gizabanakoen, gizartearen eta komunitateen bizi-martxarako, haien izatea eta izate horren ezkutuko zentzua naturak bermatu eta argituko balu bezala (Amirou, 1995).

Bestalde, baina, joera zientifikoagoa dutenentzat, organikoa eta biologikoa den gauza oro sartzan da naturaren zakuan; eta aitzitik, artifizialtasuna eta gizakiak eginga den edozer gauza ez-naturaltzat jotzen da. Alderdi espiritualik ukatzen ez duen arren, definizio zabalago horri esker askoz errazago uler daiteke *natura* kontzeptua giza jarduerak alda eta molda dezakeen zerbaiten gisara. Hori guztia argitzeko, aipa ditzagun, esate baterako, lorategiak: naturari molde eta itxura estetiko berezia eman eta hura gizatiartzea helburu duten gune horiek, alegia (Roger, 1997). Eraikuntzan nahiz etxeen dekorazioan eta produktu kosmetikoen nahiz elikagaien hornikuntzan ere erabiltzen dira osagai *natural* edo *organikoak*; haiek ere erabil litezke, beraz, diogunaren adibide gisara.

Begi-bistakoa denez, bigarren definizio hori komeni zaigu guri batez ere, turismoa zer den ulertuko badugu. Izan ere, gizakiok naturan esku hartzen ez badugu, inguruok ez dira ezer ere. Ez, behintzat, bere horretan. Ustez garbien eta gizakion esku-hartzeak usteldu gabeen dirauten lekuak ere ez dira ezer bere horretan, gizakiak haietan eraginik izan ez badu. Horrenbestez, giza jardueren ondorio dira inguru naturalak, natura gizakion eskura jartzeko gizakiak berak hautatu, landu eta aldatutako guneak direlako. Eta, gainera, material organikoek ez ezik, gizakiak berak sortutako paisaiek ere bidaiatzen dute alde batetik bestera. Errenazimentuko europar esploratzaileak esku artean leku bateko nahiz besteko landareak zituztela itzultzen ziren etxera, eta europar hiriburuetakoa aire girotutako lorategietan uzten zituzten, bertara egokitu zitezen; horixe izan zen, hain zuzen, geroago eraikiko zituzten historia naturalari buruzko museoaren eramuina. XVII. mendean, Le Nôtre-k lorategi eder batzuk diseinatu zituen Versaillesen: gaur egun, Frantzia turista asko eta asko joaten da leku hori ikustera; baina, garai hartan, Eguzki Erregeren botere absolutua adierazteko eraiki zituzten. Hurrengo mendean, ingeles erara atondutako parke eta lorategien diseinatzaileek ez zuten beste asmorik izan Italiako paisaiak eta margo-lanak britaniar lurraldean alde edo moldez sorberritzea baino. Handik urte batzuetara, Weimarren, Alemanian, naturari buruzko irudikapen erromantikoak adierazi zituzten Goetheren lorategietan. Normalean inguru *basati* deritzen espazioak ere itxituraz hesitu eta mugatu zituzten (eta, hala, parke nazionalak sortu). Poetikoki ere hesitu eta itxi nahi izan zituzten geroago: arte- nahiz



literatura-lanetan, bai eta mapetan ere, esate baterako. Horrela, sinbolikoki gizakiaren mendeko espazio metaforiko izatera makurtu zituzten gune haiek guztiak.

Adibide horiek eta beste mordoxka batek argi eta garbi erakusten dute lekuan lekuko komunitateek ingururik *basatienak* bereganatu eta beren kulturaren integratzen dituztela; baina, gero, denbora baten buruan, beste kultura-testuinguru batean hura berreskuratu eta eraldatu egiten dutela turismoak eta turistek. Turismoaren industriak guztiz bere egin du naturari buruzko ikuskera bat, natura eta inguru naturalak kulturalki landutako baliabideetat hartzen dituena. Industria hori nabarmen hazi da, eta herrialde garatuen filosofian oinarritutako ingurumenaren, naturaren eta kulturaren arteko loturak berriz ere definitu beharra ekarri du horrek. Aldi berean, naturarekiko lotura galdu ez ote dugun sentitzen dugu sarritan. Baserri-inguruko giroa galdu eta hirietara joan izanak ez du sentimendu hori areagotu baizik egin. Horren ondorioz, hortxe jarraitzen dugu gaur egun ere, inguru *natural* eta *benetakoak* topatzeko gogoia turismoaren bidez bazkatu nahirik (Urbain, 1993).

Ingurune naturalak: ekosistema ahul eta zaugarriak

Inguru naturalen ezin ukatzeko indar sinboliko eta poetikoa dela tarteko, askotan ahaztu egiten dugu inguru naturalotan bizia dagoela bor-bor. Ikuspuntu biologiko batetik, ekosistema konplexuak dira, izaki bizidun ugariaren bizileku. Alde horretatik, globalizazioari lotutako hainbat faktorek (berotze

globala, kutsadura, hirigintza eta espezieen nahiz hazien gero eta mugikortasun handiagoa) mehatxagarri ari dira gertatzen inguru natural askorentzat; batez ere, munduko bazter bakartuetan eboluzionatu eta espezie endemikoan eta berezko elikagai-kateak sortu dituzten inguruentzat.

Turismoak ondorio sozio-ekonomiko on ugari ditu, zalantzarik gabe; baina, ordain gisa, natura-baliabideak kontsumo turistikorako onuragarri diren produktu bilakatzen dituen prozesuak hainbat kalte eragiten dizkio ingurumenari: kutsadura, inguruaren hondamena eta natura-baliabideen gaineko presioa. Turismoaren eta haren inguruko jardueren garapenak (bidaiek, oportetarako lekuak eraikitzeak, azpiegiturak eraiki beharrak) eragin handia izaten du ingurumenarean. Turismotik datozen irabaziak espero izateak gaizki planifikatutako azpiegiturak eraikitzea dakar askotan, erakunde eta gobernu ahulak dituzten garapen bidean diren herrialdeetan, batez ere. Are gehiago, informazio nahikoa ez duten turistek kalteak eragin ditzakete ekosistema zaugarrienetan; esate baterako, uharriak zapal ditzakete, basoko bizia aztora dezakete, bidezidorrak erosioa ditzakete, ur-baliabideak neurrigabe erabil ditzakete edota landareak bil ditzakete.

Ingurumenaren aldeko lana eta txirotasunaren zein azpigarapenaren aurkako borroka elkarri lotuta ulertu beharra, horra hor zertaz ohartarazi ziguten lehen aldiz Ingurumenari eta Garapenari buruzko Munduko Batzordeak (1987) eta Rio de Janeiroko (1992) eta Johannesburgeko (2002) goi-bilerak. Johannesburgeko Goi Bileran konpromiso hauek hartu zituzten: ur garbia eta osasun-egoera egokiagoak izateko aukera eta energia-zerbitzuetara iristekoa bermatzea; osasun- eta nekazaritza-egoerak hobetzea; eta munduko biodibertsitatea eta ekosistemak hobeto babestea. Oso adierazgarria da, gainera, Johannesburgoko Goi Bileran parte hartu zutenek, bai



baitzekiten turismoak zer-nolako eragina duen ingurumenaren degradazioan, esplizituki aipatu izana garapen turistiko iraunkorrak eginkizun itzela duela garapena helburu duen edozertan; eta, era berean, honen alde ere egin zuten: «tokian tokiko komunitateen kulturak eta inguruak osorik gorde behar dira, eta ekologikoki ahulenak izan litezkeen eremu eta ondare naturalak babestu» (Garapen Iraunkorrari buruzko Goi Bileran, 2002).

Natura-baliabideak turismoa sustatzeko erabiltzeak dituen ondorio kulturalak

Dagoeneko esan dugu krisi zehatz bati erantzun beharrez garatu izan dela sarritan turismoa: beste sektore ekonomiko batzuek globalizazio gero eta hazkorragoari ezin aurre egin

eta horren ondorioz sortutako krisiari erantzun beharrez, adibidez; batez ere, merkatuen liberalizaziori segitzen zaizkien kompetentzia-arazoek sortutakoari. Gune turistiko berriak, horrela, erakartze-gune ekonomiko eta sozial garrantzitsu bihurtzeko, eta herritarrak konbentzitu baserri-giroko bizimodu periferikoa utzi eta lekuz alda daitezkeen. Periferiako eremuetan zenbait natura-baliabide turismo-kontuetarako erabiltzen direnean, turismoak berak itzeleko eragina izan dezake haietan. Kasu askotan, garapen-politikek joera izaten dute aurrez antzutzat jotzen ziren nekazaritza- eta arrantza-jarduerak batzuk sustatzeko, paisaien *edertasun* eta *izaerari* eustea helburutzat harturik. Besteak beste, turistak erakartzea izaten da horretarako arrazoi bat. Nekazari eta arrantzaleak lorazain paisajista bilakatzen dira askotan, eta, horren ondorioz, beren nekazari-lana irizpide estetikoaren mende geratzen da erabat. Panorama berri horretan, leku bateko oparotasun ekonomikoa ez da nekazaritza-soberakinen ondorio zuzena izaten, paisaiak merkatuan sartu izanaren emaitza baizik, haien balio turistikoa diru-iturri izaten baita.

Produkzio- eta truke-sistema berri horrek lurra paisaia bihurtzen du. Baina ez hori bakarrik: gizarte- nahiz erakunde-sareak eta sistema bera funtzionarazten duten baldintzak ere guztiz aldatzen dira. Nekazaritza eta ekonomia babesteaz arduratzen diren agentzia eta erakundeen eraginkortasunak behera egiten du eta inguru naturalak eta ondarearen baliabideak gorde eta babestea helburu duten elkarteek zalantzan jartzen dituzten haien lanak. Are gehiago, lurraren *fruitu* berrioi –hau da, edertasun estetikoak, balio sinbolikoak eta istorio ugari– lotutako truke-ekonomiaren prozesu horrek atzean utz ditzake ekoizleak. Beren bisitak irauten duen denbora-tartean, turistek baliabide horiek guztiak kontsumitzen dituzte, eta diru-sarrera gutxi edo batere ez zaie gelditzen lurraren *lorazainoi*.

Testuinguru berri horretan (sinboloak eta estetika ardatz nagusi izanik, kontsumitzaileak jaun eta jabe dituen ekonomia-mota horretan, alegia) (Lash & Urry, 1994), zailtasun garrantzitsu bat izan ohi dugu aurrean: zer diru-sari eta zer errekonozimendu eman behar zaie turismorako erabiltzen diren inguru naturaletan lanean ari diren ekoizle eta zaintzaileei? Arazo horri aurre egiteko har litezkeen neurrien artean, bada bat egoki askoa: inguru naturalak parke bihurtzea, eta araudi bat egitea, turismo-jardueretarako tasak ezarriko dituen. Hala eta guztiz ere, konponbide hori ere ez da beti egokia izaten, inguru naturaletan sarritan jendea bizi delako. Askotan, paisaia turistikoaren jatorrian batere interes ekonomiko edo are sinbolikorik gabeko lurraldeak egoten



dira. Betitik marjinalak izan diren gunek horien –kostaldeak, hiritik hurbil dauden mendiak, badiak, nekazaritza-guneak eta abar– balio handitze turistikoak egoera larrietara eramaten gaitu sarritan, gunek horietako bizilagun marjinalak arrisku bizia izaten baitute beren lur-sailak galtzeko (Picard, 2005). Herritar horien integrazioa da kezka eta erronka nagusia; gazteena, batez ere. Izan ere, natura-baliabideak babestea eta denen arteko berdintasuna zutabe nagusi izango duen garapen iraunkorra bultzatzea da, inondik ere, esku artean dugun erronka garrantzitsuena; betiere, belaunaldien artean etenik sortu gabe.

Ekoturismotik turismo integratura

70eko hamarkadaz geroztik, bidaia-antolatzailerik turismo-mota berri batekin dihardute lanean: ekoturismoarekin, hain zuzen. Turismo-mota berri horren oinarrian eslogan bat zegoen hasieran: «ekologikoki adeitsua eta

etikoki zuzena». Turismo berri horrek lekuan lekuko baliabideak erabiltzen ditu, eta turisten eta tokiko herritarren arteko hartu-emanetarako guneak sortzen. Baliabide turistikoak buruzko ikuspuntu jakin horrek, hala ere, ez ditu beti bere helburuak betetzen: ekoturismoaren erabiltzaile potentzialak Mendebaldeko erdiko klaseetako eta goi klaseetako herritarrak izan ohi dira; eros-teko ahalmen handia duen jendea, alegia. Kritika zorrotzak egin zitzaizkion turismo-mota hari, altruismoa eta ekologiarekiko konpromisoa produktu hedonistekin nahasi zituela leporaturik. Are gehiago, zenbait ikerketek ziotenez, ustezko ekoturismo horretan oinarriturik antolatutako bidaia masiboek sekulako kalte ekonomiko eta ekologikoak eragin izan dizkie lekuan lekuko komunitate eta inguru naturalei.

Gaur egungo ekoturismo-ereduek turismo-garapenari buruzko guztiz bestelako ikuspuntu bati heldu diote: iraganekoa baino askoz planifikatuagoa izanik, gizartean integratuagoa eta kulturekiko sentiberagoa ere badena, komunitateen parte-hartze berdinoak sortzeko gaitasun handiagokoa. Ikuspegi horren arabera, herrialde txiroenei hezkuntza eta prestakuntza eskaini behar zaie batez ere, turismoaren ekonomia-zirkuituetan sar daitezen, eta inguru naturalen sistemak erabiltzeko eraginkortasuna aitorturik, botere-guneetara iristeko beren ahalmen instituzional eta sinbolikoa areagotu dezaten.





2. atala

Gobernu-gaiak, turismoan, kulturan eta garapenean



Turismoa eta kultura kudeatzeko eta garatzeko egituren beharra

Turismoak harremanetan jartzen ditu estatuak eta haietako herri eta kulturak, eta horregatik, bai eta zenbait alor elkarren artean lotzen dituen heinean zeharkakoa delako ere (hala nola kultura, ondarea, ekonomia eta ingurumena), garrantzi handikoa da turismoaren garapena gobernatzea eta koordinatzea, eta haren jarraipena egitea. Turismoaren garapena iraunkorra izango bada, ekonomia garatzea, ingurumena babestea eta gizarte-inklusioa lortu behar ditu, eta horretarako, erabat ezinbestekoa da, ia gehienek iritziz bederen, turismoa ere garapenerako estrategia orokorretan gutxi-asko sartuta egotea, nola estatuetak bertako estrategietan hala nazioarteko eta estatuz haraindikoetan. Pentsa genezake kultura-ondareari eta kultura-aniztasunari dagokienez badaudela mundu osoan ontzat ematen diren zenbait balio, bai eta toki guzti-guztietan lortu nahi diren zenbait helburu orokor ere; eta hori egiazkotzat hartzeak nazioarteko agintaritzaren sistema bat onartzera garamatza: lankidetzaren eta adostasunaren bidetik jardunez, eta ondarea nahiz kultura babestea, zaintzea eta modu iraunkorrean garatzea helburu izanik, estatuak eta aholku ematen, egoeren jarraipena egiten, bidea errazten eta, behar izanez gero, esku hartzen arituko litzatekeen agintaritzaren sistema bat onartzera, hain zuzen.

Gobernu edo gobernatze hitzak aipatuko ditugunean (governance, ingelesez), turismo-, kultura- eta garapen-gaietan tartean sartuta dauden prozesu, politika eta eragile guztiez ariko gara, hiru arlo horiek elkarren artean lotuta daudenez gero. Karim-en eta Wayland-en esanetan (2001), gobernatzeak “askotariko gai eta kontuekin du zerikusia, hala nola administratzearekin, legea betearaztearekin, herritarrak tartean sar daitezen lortzearekin, herritarren parte-hartzearekin eta berdintasuna sustatzearekin”. Garbi geratu behar du, hasieratik, ez dagoela kultura-turismoa kudeatzeko, kontrolatzeko eta garatzeko sistemarik, mundu osoan identifikatzeko modukoa eta mundu osoan onartua denik, ezta gobernu-sistema formalik ere, lehendik badiren zenbait esparru eta ideien aplikazioa baizik. Bilakaera betean dagoen eremua da hori, eta azaldu berri ditugun gaietako batzuk aztertzea da atal honen helburua, hain zuzen, ea lortzen den kulturaren eta turismoaren garapenak izan beharreko garrantzia azpimarratzea eta zentralizatzea, eta bide batez, haren gehiegikeriak erregulatzea.



Turismo- eta kultura-politikak zehaztearen zailtasunak eta erronkak

Politikak zehazteko ardura dutenentzat, turismoaren arloa, kulturarena eta garapenarena ko-rapilatsuak dira, oso, zein bere aldetik. Hortaz, ez da batere harrizkoa arlo horiek elkartu eta kultura-turismoari heldu nahi izandakoan hamaika erronka sortzea garapenaren testuinguruan.

Turismoa bereziki da zaila politikak zehazten dihardutenentzat, zeharka alderdi eta eremu askotan eragiten duelako (Steck, Strasdas eta Gustedt, 1999). Hiru ildo nagusirekin lotuta egon ohi dira turismo-politikekin lotutako funtsezko gaiak: tartean dauden administrazio-erakunde eta -sektoreak koordinatzearekin (besteak beste, garraioa, plangintza, osasuna, nekazaritza, ura, ondarea, ingurumena, immigrazioa eta segurtasun publikoa); erakundeen nahiz sektoreen arteko lankidetzarekin, edo haiek bateratzearekin, helburu berberak zein diren jakiteko; eta politikak abiaraztearekin (batik bat, turismoaren sustatzaile nagusia sektore pribatua izan baina erabat sektore zatikatua denean edo komertzialki botere itzela duenean). Oro har, eta testuinguru demokratikoetan, betiere, merkatu librearen bidetik jokatzearren eta zer edo zer arautu behararen arteko halako nahaste bat izatea dute bereizgarri turismo-politikek; halaxe erakusten dute GATTek (Uruguaiako Erronda, Munduko Merkataritza Erakundea, 1994). Horra gaur egungo egoeraren arrazoiak: esku-hartze gutxi (ondo zaindu beharreko leku batzuetan bisitarien kopurua-edo mugatzea, adibidez), autorregulazioaren bat eta merkatu-doikuntza batzuk (prezioak kontrolatzeko mekanismoen bidez, esaterako), eta aldi berean, turismoaren garapena plangintzako gida orokorren bidez sustatzeko ahalegina. Estatu-mailan turismorako politika-esparru eraginkor bat finkatzea zaila da, hamaika arazo eragiten ditu, eta lankidetzazko zenbait mekanismo behar dira horretarako, baita turismo-jardunaren buru sektore jakin bat badago ere.

Politikei dagokionez, kultura beti izan da alor zaila, turismoa kudeatzeari eta garatzeari dagokionez. Nazio Batuen Erakundeko Ingurumen eta Garapen Batzordeak (1987) eta *Ingurumenari eta garapenari buruzko Rio de Janeiroko aldarrikapenak* (1992) esplizituki onartu zuten osasuna, ingurumena eta kultura-aberastasuna elkarren artean lotuta daudela; baina turismoaren garapen iraunkorrerako politikei heltzen hasitakoan, alderdi kulturala bigarren mailan geratzen da erabat, kezketan nagusi bilakatzen baita natura-baliabideak turisten nahiz komunitate hartzailearen mesederako estetikoki hobetu nahiak eta erabiltzeak ingurumenaren aldetik sortzen dituen arazoak konpondu beharra. Turismo-sektoreak kulturaz eta ondareaz orain arte izan duen ikuskeraren ondorioz gertatzen da hori, hein batean: beti hartu izan direlako garapenaren hondo-iruditzat, balio neutro eta luzarora ondoriorik gabekotzat, edo turistei eskaintzeko *pakete* bihurtuta komertzializa litekeen ondasuntzat, edo bestela, nazioaren identitate, aberastasun eta boterearen erakusgarri modura erabili ahal izateko nabarmen zaindu eta babestu beharreko zerbaitzat. Azken hori errealitate den heinean, eta ez nahitaez arazo, gerta liteke *kultura* kontzeptuaren adierarik zabalena ilunaraztea, *kultura* berez baliabide hutsa baino askoz gehiago denez gero. Alde horretatik, eta kultura-aniztasuna nahiz kultura-ondarea baliabide bikainak izan badaitezke ere turismoaren bitartez erabilita garapen proaktiboari bide eman eta pobrezia arintzeko, turismo-politiketan gutxitan hartu izan dira kontuan aukera horiek.



Horrekin lotutako beste kontu bat ere badago, alabaina: turismoaren alderdi kulturalak ere arazoak eragiten dituela, hein batean. Ingurumen-politikan, esate baterako, eta garapenaren iraunkortasunari dagokionez, zehatz esatera, gaur egun garrantzi handia ematen zaio ingurumeneari izandako aldaketak neurtzeko eta haien jarraipena egiteko gaitasunari, iraunkortasun horren adierazletzat hartzen denez gero. Munduko Turismo Erakundeak ere ikuspegi horri heldu dio, eta *turismo iraunkorraren oinarritzko adierazle* batzuk finkatuta dauzka dagoeneko, turismo-garapenarekin lotutako politikak zehazten eta gauzatzen dihardutenei laguntzeko. Baina kultura-aldaketak neurtzea are zailagoa da, ageriko zenbait arrazoi direla tarteko: subjektibotasuna berezkoa zaiolako eta tartean aldaketa-eragile ugari izaten direlako, batetik, eta bestetik, baliokak nahiz jokabideak kuantifikatu nahi izandakoan metodologiarekin lotutako arazoak sortzen direlako.

Kulturarekin per se lotutako politikak ere aipatu berri ditugun arazoei egin behar izaten diete aurre. Mexiko Hirian 1982an egindako Kultura Politikei buruzko Munduko Konferentzian, esate baterako, kulturaren alderdi inklusiboa azpimarratu zen, honela definitu baitzuten: “gizarte edo gizarte-talde batek bereizgarri dituen ezaugarri espiritual, material, intelektual eta emozionalen multzo osoa da kultura, eta multzo horren barruan sartzen dira, arteak eta letrak ez ezik, baita bizimoduak, gizakiaren funtsezko eskubideak, balio-sistemak, tradizioak eta sineskerak ere”. Lehen begiratuan ere erraz ohartuko gara osagai horiek –denak ere ezin ukituzkoak eta, ezbaierik gabe, eztabaidagarriak– nekez egokitzen direla, berez, politikai buruzko erabakiak hartzeko ohiko metodoetara. Mexikoko Konferentzian sortutako aldarrikapenaren onartu zenez, printzipio hauek hartu behar dira kontuan, kultura-politikak landu behar direnean:

- Kultura-identitatea
- Garapenaren alderdi kulturala
- Kultura eta demokrazia
- Kultura-ondarea
- Sorkuntza artistiko eta intelektualak
- Kulturaren, hezkuntzaren, zientziaren eta komunikazioaren arteko lotura
- Kultura-jardueren plangintza, administrazioa eta finantziak
- Nazioarteko lankidetzak kulturalak

Kulturari eta Garapenari buruzko Munduko Batzordeak azken txostenean (1997) onartu eta adierazi zuenez, kultura-politika zeharo bigarren mailako jarduna izan da, izan, estatu askotan, zenbait arazo-edo direla tarteko: batetik, datuak neurtzearekin eta biltzearekin lotutako arazo onduak; bestetik, tirabira handiko gaiak ukitzen dituelako, hala nola identitatea, *egia* historikoa eta jabetza; eta hein batean, halaber, kultura ekonomia-baliabide moduan sustatzearekin lotuta ikusten ez delako.

Stockholmen 1998an egindako Garapenerako Kultura Politikei buruzko Gobernuarteko Konferentziak onartu zuenez, politikak zehazteko jardunaren muinean inoiz kultura-politika ere sartuko bada, ezinbestean urrats batzuk egin behar dira bidean aurrera; hain zuzen, eta laburbilduz, hauek:



Kultura-aniztasuna onartzea

Kultura-aniztasunari dagokionez agendan bi helburu izateko eta onartzeko gai izan behar dute gobernuak: alde batetik, kultura-aniztasun horretan batasuna lortzen saiatzea, eta bestetik, sortze-indar itzeleko aniztasun horretaz baliatu eta hura mobilizatu eta kudeatzea. Turismoari begira jarrita, kontuan izatekoa da gaur egun helmuga turistiko askoren ezaugarri erakargarrietako bat dela kultura-aniztasuna; baina alderdi hori oraindik ez da nahikoa baliatu, ez bisitarien esperientzia turistikoa aberasgarri bihurtzeko, ez gizarte-koherentsia gerta dadin eta tokiko identitatea sendotu dadin laguntzeko.

Kultura-eskubideen garrantzia sendotzea

Estatu gehienek bete-betean onartzen dute giza-eskubideen eta kultura-eskubideen garrantzia, bai eta haien eta gizarteko ongizatearen arteko lotura estua ere. Baina hala eta guztiz ere, are azterketa eta onarpen handiagoak behar dira alderdi horietan. Gero eta ohikoagoa da turismo-garapenerako agenda edo programek ingurumena babesteko premia kontuan hartzea; baina kultura-eskubideei dagokienez eskasa da oraindik egoera, eta haiek onar eta babes daitezela bermatzeko askoz mekanismo eraginkorragoak behar dira.

Kultura-ondarea garapenerako erabiltzea

Modernitatearen eta globalizazioaren presio itzelaren aurrean, kultura-ondarea ahula da, oso; erraz erasotzekoa, erraz galtzekoa. Aspaldi onartutako kontua da hori. Horregatik, garrantzi handikoa da kultura-ondarea babesteko eta hura modu iraunkorrean eta zuzentzat kudea dadila bermatzeko neurri interbentzionistak hartzea. Nazio-estatu gehienetan, hain zuzen, halako politikari heldu zaie, arautzea ardatz hartuta. Askoz urriagoak dira, alabaina, kultura-ondarea garapen-prozesuko baliabide moduan ustiatzeko politikak: kultura-ondarearen aberastasun eta aniztasunak gero eta eskari handiagoa duela kontuan hartuz, hura baliabide bihurtu eta mobilizatuta garapena sustatzeko politikak, alegia. Herrialde industrializatuetan, dibertsifikaziorako eta ekonomia susperrazteko eragile moduan erabili da ondarea, arrakasta handiz erabili ere, eta turismoa funtsezkoa izan da horretan. Garatzeko bidean dauden herrialdeetan, arau- eta politika-esparru bat behar da kultura-ondarea turismoaren bidez mobilizatzeko: alde batetik, kultura-ondarea babes eta zain dezan, eta bestetik, ekonomia- eta gizarte-garapen zabalagoa lortzeko baliabide gisa erabil dezan.

Finantziario-iturriak aurkitzea

Kultura-politiken eremuan, finantziarioa lortzea izaten da arazo handienetako bat: ondarea babesteko, zaintzeko eta suspertzeko baliabideak aurkitzea, alegia. Politikari askok sektore ez-emankortzat daukate oraindik ere kultura, eta baliabideak xahutzeko bidetzat ere bai. Hori dela eta, zeharo bigarren mailako kontua da gaur egun kultura, eta aurrekontuak murriztu beharra gertatzen denean, guraizeen kaltea izaten dutenetatik aurrenetakoa. Gogoan izan beharrekoa da, dena den, politikariek garrantzi gutxi ematen badiote ere, eta kultura-ondareak nahiz kultura-aniztasunak duten berezko balioa alde batera utzita, diru-sarrerak eta lanpostuak sortu ere egin ditzakeela kulturak, baldin eta aniztasuna nahiz ondarea irudimenez, zentzuz eta modu eraginkorrean erabiltzen eta kudeatzen badira. Alde horretatik, turismoa funtsezkoa da, zuzenean lotzen baititu herritarren kultura-eskaera eta kultura-adierazpen ukigarri nahiz ukiezinak.



Stockholmeko Gobernuarteko Konferentzian (1998) onartu bezala, bai estatu bakoitzak bai nazioarteak auzi horiei heltzeko borondate politikoa hartzea da giltza. Baina babes politiko hori lortzeko, bereziko garrantzia du erakusgarri modura emaitza oneko politika- eta lan-esparruak edukitzea, eta zer hobe, horretarako, politikariak konbentzitzeko, arrakastatsu gertatu diren zenbait jardunbide egoki erakustea baino.

Beste arazo bat ere badago: politika-eremuak elkarren artean zenbateraino dauden uztartuta, hain zuzen. Ez turismoa ez kultura ez lirateke hartu edo kudeatu behar bereiz, zein bere aldetik, eta bai, aitzitik, estatu-mailako ekonomia-, gizarte- eta ingurumen-politiken esparru zabalean bete-betean sartuta, osotasun moduan. Uztartzea bera nekeza da, alabaina, hain dago atalka bereizita eta bananduta erabakiak hartzeko sistema, hura ere maiz askotan legegintza- eta plangintza-sistema zatikatueta murgilduta. Hortaz, turismoa eta kultura sustatu nahi horretan osotasunaren ikuspegiari helduko bazaio, eremuak uztartzeko bidera egingo bada, gobernu-gaiak lantzeko modua bera aldatu behar da nahitaez, bai herrialde garatuetan, bai garatzeko bidean daudenetan, bai estatuz haraindiko gaietan. Kultura Politiketarako Nazioarteko Sarea ahalegin horretan dabil, hain zuzen, kultura-eremu hasiberri samar horretako garapen-politikei buruzko beste ikuspegi hori sustatzen eta laguntza ematen, alegia; eta horretarako, kultura-politikak emateko ardura duten ministroen eta funtzionarioen arteko bilerak antolatzen ditu, aukera izan dezaten kultura-politikarekin lotutako gaiez eta kultura-aniztasuna sustatzeko estrategiez sakon aritu, eztabaidatu eta batzuek besteen ikuspegiaren berri jakiteko.

Erantzukizuna, tentsioak eta ekintzak

Stockholmen esplizituki agertu ez bazen ere, azaldu berri ditugun gaiak ikusita badirudi politiken aldetik kultura eta turismoa elkartzeak izan behar duela bide

dea, garapenak dakartzan arazoei eta erronkei aurre egingo bazaie. Hala ere, kultura-turismoaz baliaitu eta garapenari osotasunezko ikuspegi batetik heltzeko kontu hori oraindik hastapenetan dago –hautzaroz, nolabait–, eta garapen-politikekin lotutako funtsezko tentsio batzuk ere badaude oraindik eremu sortu berri horretan.

Azter dezagun, hasteko, turismo- eta kultura-sektoreen artekoa. Lehenak, oro har, batez ere pribatua izatea du bereizgarri, eta eremu pribatu horretan, gainera, korporazio multinazional handi gutxi batzuk dira nagusi, eta gero, enpresa txiki eta ertain mordo bat dago, zein bere aldetik; bi taldeen helburu nagusiak berberak dira, dena den, eta negozioarekin lotuta daude, argi eta garbi: irabaziak lortzea, eta merkataritza-eragiketak nahiz bezeroak ugaritzea. Kultura-sektorean, berriz, gobernuko nahiz gobernuz kanpoko erakundeak-eta dira nagusi, eta kultura babestea, sustatzea eta hobetzea du ardatz, interes orokorrekoa den aldetik. Kultura-sektoreak berak ez du bere politiketarako esparrurik ezartzen, eta aitzitik, bai estatuan bertan bai nazioartean kultura-eremuko ekintzetarako emandako orientabide orokorrei, politikei eta esparru juridikoari jarraiki aritu behar izaten du. Hori guztia dela eta, garbi dago erabat premiazkoa dela bi sektoreek bat egitea, arauak adostuta hartuko direla eta betearazi egingo direla bermatzeko besterik ez bada ere.



Bigarren tentsio bat politiken aplikazioarekin eta garapenarekin lotuta nazioarte- eta estatu-mailen artean dagoena da. Izan ere, kulturak eta kultura-ondare nahiz -aniztasunak turismo-garapenaren eta lankidetzazko politikaren ardatz izan behar duelako ideia ia erabat onartuta dago nazioarteko erakundeetan, eta estatu-, eskualde- eta azpieskualde-mailetan, aldiz, ez hainbeste. Estatu-mailan (eta orobat eskualde-mailan), prestigioa eta etekinak maximizatzea izaten dute helburu turismoa garatzeko politikak: dibisak, zergen bidezko diru-sarrerak, enplegua eta abar ahalik gehiena handitzea, hain zuzen. Herrialde garatuetan, turismoa garapenerako eta hazkunderako bide ugarietako bat besterik izaten ez denez, eta kultura- nahiz natura-ondarea oro har aski onartuta, ondo kudeatuta, egoki inbentariatuta eta ondo samar babestuta egoten denez, politikak eta plangintzak kontrolatu eta gainbegiratu beharra ez da premiazkoa; baina beste herrialde batzuetan, aldiz, bai, askotan etekina ateratzeko moduko ondare bakarretakoa baita kultura- eta natura-ondarea, eta gobernu-sistema nahiz demokrazia-mekanismo eskasagoak edo okerrago garatuak baitituzte, gainera. Horrek beste auzi bat dakarkigu bidera: herrigintzari eta administrazio-jardunari buruz dauden ikuspegi ugariak, hain zuzen, horrek nazioarteko esparru juridikoa –eta hura estatuetan nahiz eskualde-mailan nola aplikatu– interpretatzeko modu bat baino gehiago eragiten dituenez gero, besteak beste. Izan ere, mundu osoan turismoak zer-nolako egitura duen aztertzen hasita, gauza bat garbi dago: *nazio-estatu* kontzeptuarekin estu lotuta dago, beti, eta XIX. mendearen bukaerako eta XX.aren hasierako geografia politikoa modernoetan eta eraikuntza nazionalen programetan ditu sustraiak, oinarri-oinarrian. Egia da, bai, *erregionalismo* kontzeptuak gero eta indar handiagoa duela, edo bestela esanda, gero eta hedatuago dagoela kulturaren eta kultura-identitatearen eraikuntzarako gune eta ardatz eskualdeak izan behar duelako pentsamoldea; baina nazioarteko turismoari begira, *estatu* kontzeptua da oraindik nagusi, argi eta garbi. Estatu guztiek, berdin dio alegiazko zernahi liga politikotan zer mailatan dauden, ikuspegi beretik sustatzen dute turismoa: kanpotik diru-sarrerak lortzeko iturri egiazko edo potentzial gisa, kapital kulturalen oinarritutako estatus politikoaren adierazle moduan, eta estatua bera lurralde-entitate moduan legitimatzeko bitarteko gisa. Eta hala, estatuetako gobernuen mendeko turismo-bulegoek *marka nazionala* saltzen dihardute etengabe, hainbestearinoko uste osoz, gainera, lasai asko pentsa baikenezake *mugikortasun*, *fluxu transnazional* eta *lurraldekoitasunaz gabetzea* kontzeptuek itxuraz ez dutela inolako baliorik. Nazioarteko turismo-azoketan, esate baterako, estatuen mikrokosmosa izaten dira standak, nahiz eta tokian tokiko eskualdeen eta azpieskualdeen berri ere eman. Hala, bidaiari-antolatzaileek produktu *nazionalak* erosten dituzte funtsean. Sustatzaileek estatu bakoitzeko gobernu-ordezkariekin egiten dute tratua, estatuan estatuko lege-esparrua kontuan hartuz, betiere. Airelinea *nazionalak* balio sinboliko agerikoa dute, bai turistentzat bai tokiko herritarrentzat ere; eta hotel-kate multinazionalak egon badauden arren (eta ez garrantzi gutxikoak, gainera), hotel-talde askok ezaugarri eta tradizio nazional jakin batzuk dituztela azpimarratzen jarraitzen dute. Bistan denez, *nazioen turismo* horrek hamaika gatazka eta tirabira sor ditzake. Edonola ere, horixe da egoera, mendebaldean identitate edo antzekotasun kulturaletan oinarrituta dauzkagun irudikapen kognitiboetatik sortua, ez bairik gabe, eta horiek, bestalde, *nazio-estatu* errealitate konplexuen interpretazio erredukzionisten bitartez mamituak.

Hirugarren tentsio-iturria maila nazionalaren eta lokalaren arteko kontraesanak dira. Turismo- eta kultura-eremuak elkarren artean lotuta daudela eta haiek uztartzea bi-bien mesederako dela



ulertu eta onartuz gero, bederen, estatuetan bertan zehaztu daitezke, beste inon baino hobeto, bi eremu horien arteko lankidetzaz bideratzeko eta hartatik ahalik eta onurarik handiena lortzeko plangintza- edo politika-esparrurik egokienak. Baina maiz askotan maila lokalean izaten da beharrezkoena eremuak uztartze eta politikak zehazte hori, eta turismo-garapeneraren presioa ere maila lokalean nabaritzen da gehien. Gakoa politikak-eta gauzatzeko moduan dago: nola eraman maila lokalera, eta nola gauzatu tokian-tokian, nazioarteko elkarrizketan eta arau egokietan oinarrituta emandako plangintza-ildo nazional koherente hori?

Turismoa eta kultura garatzeko ekimen lokalak sustatzea litzateke onena eta helburu, ezbairik gabe; baina zaila ere bada, oso, estatu bakoitzeko sistema politikoaren mende dagoelako, batak bat. Gerta liteke estatuak kanpora begira erakusten duen irudi turistikoaren atzean bertako hainbat desberdintasun egotea ezkutuan (nola lokalak hala eskualdeen artekoak), bai bitarteko ekonomikoei dagokienez, bai kultura- nahiz natura-baliabideak erabiliz tokiko turismoa modu iraunkorrean garatzeko egitura egokiak edukitzeari edo ez edukitzeari dagokionez ere. Turismoa iraunkorra izango bada, eta garapenerako helburuak lortzeko bitarteko moduan balioko badu, komunitate lokalak bete-betean hartu behar dute parte plangintza-prozesuan, kultura-ondarearen, tradizioen eta herri-jakintza oparoaren gordetzaille eta interpretatzaille direnez gero: turismorako erabil litezkeen horiena, hain zuzen. Horretarako, alabaina, estatu- eta eskualde-mailako esparru politikoetan jarduteko ahala eduki behar dute komunitate lokalak. Eta hainbat herrialdetan, tradizio demokratiko eskasekoak izan eta ustelkeria instituzionala maila guztietan gutxi-asko sartuta daukaten askotan, alegia, egia baino areago ametsa da hori.

Azken urteotan hainbat estrategia landu dira, garapen-arazoei irtenbideak bilatu nahian, eta funtsezko ideietako bat tokian tokiko ahalmena indartzea da: estatu-mailakoa, noski, baina ahalmen lokala ere bai. Nazio Batuen Ingurumen Programaren (NBIP) oinarritzko printzipioetako bat da hori, eta turismo iraunkorrerako bidean giza baliabideak nahiz ahalmen instituzionala garatzeko eta sendotzeko egin beharreko ekimenak hartzen ditu barne. Kultura-turismoaren eremuan ere ahalmenak sortze hori garrantzi handikoa da, kultura arteko elkarrizketan eta heziketan oinarrituta ikuspegi oso edo integratu bat sustatzeko lagungarri izan daitekeenez gero. Hain zuzen ere, maila horretan uztar daitezke kultura-ondarearen nahiz -aniztasunaren oinarritzko baliabideak eta garapenerako ekimenak nahiz programak, komunitate lokalak bete-betean tartean sartuta, bai ekimenak abian jartzeko fasean, baita haiek kudeatzeko eta garatzeko fasean ere.

Ingelesezko *Recognising Culture* (Matarasso, 2001) izenburupean argitaratutako zenbait informazio-artikuluren ondorioetan, honela azaldu zuten, laburpen modura, zer egitura diren beharrezko, kultura-betebeharrak hobeto uztartzeko: «Beraz, garapenerako estrategien muinean jarri behar da berriro ere kultura: programa eta proiektu guztiak berriro zehaztu behar dira, instituzioen logika eta tokian tokiko gizarte eta kulturena benetan bateragarri gerta daitezten. Hortaz, garapenerako estrategiak kulturen sormenera eta aniztasunera moldatu behar dira, eta instituzioek ikuspegi holistikoa hartu behar dute, bai eta epe luzerako ikuspuntua ere. Bestalde, proiektuak planifikatu eta gauzatu behar direnean goitik behera jokatzeko joera hori aldatu eta behetik gora jokatzen hasi behar da: proiektuek oinarrian sortu behar dute, tokian bertan, alegia, eta hortik, gero, erabaki-guneetara igo».



Generoa

Turismoaren nahiz kulturaren alorretan politikak finkatzeko prozesu ugari guztien azpian hainbat eta hainbat aurreiritzi, bidegabekeria eta desberdintasun historiko daude, eta haiek aztertu eta zuzendu edo konpondu beharra dago, ezbairik gabe. Arraza, gizarte-jatorria eta generoa direla tarteko batzuk eta besteak desberdin tratatzea, bazterkeriaz edo bidegabeki jokatzeko eta abar ez da turismo-sektorean soilik gertatzen, jakina; baina, hala eta guztiz ere, turismo-politikak zehazteko ardura dutenek kontu handiz aztertu eta zaindu beharreko gaiak dira, turismoa garatzeko prozesuan oharkabearen ez daitezela errepikatu sektore sozioekonomiko batzuei mesedegarri eta beste batzuei kaltegarri gertatzen zaizkien ereduak.

Generoekin lotutako auzia bereziki larria da turismo-sektorean, enpleguaren zati handi bat emakumezkoek betetzen dutenez gero (Kinnaird eta Hall, 1994). Nazioarteko Lan Erakundeak (2001) emandako datuen arabera, mundu-mailan turismo-sektorean diharduten langileen %46 inguru emakumezkoa da, nahiz eta herrialde batzuetatik besteetara datuak asko aldatzen diren (%2tik %80 bitartean). Turismo-sektorea, beraz, lanpostu-iturri bikaina da emakumezkoentzat, lan gehienak gainera lanaldi partzialekoak; baina horrelako lanpostuek, ordutegiaren aldetik malgutasuna ematen dutela eta alde onen bat eduki badaukaten arren, ordainsari eskasak izaten dituzte gehienetan, langabezia-babes gutxi ere bai, eta mailaz igotzeko aukerak urriak izaten dira.

Ingurumen eta Garapen Foroaren Batzordeak emakumezkoek turismo-sektorean duten parte-hartzeari eta enplegu-tasari buruzko txosten bat prestatu zuen, 1999an, Garapen Iraunkorrerako Nazio Batuen Batzorderako (Hemmati, 1999), eta informazio-iturriak urriak direla onartu eta gero, ondorio honetara iristen dira txostenaren: turismo-sektoreko egoera eta oro har lan-merkatuan dagoena antzekoak direla, antza, genero-segregazio horizontalari nahiz bertikalari dagokionez, batik bat. Turismo-sektorean garrantzizkoak diren hainbat lan eta jardun aztertu zituzten txostena egiteko, eta datuak ezin argigarriagoak dira: jatetxe- nahiz ostalaritza-zerbitzuetan eta etxeetan zerbitzari, neskame edo morroi, umezain, garbitzaile eta antzeko lanetan dihardutenen %90etik gora emakumezkoa da.

Turismo-sektoreko genero-segregazio *bertikala* ere lan-merkatuan oro har gertatzen denaren isla baizik ez da: inolako ikasketekin lotuta ez dauden lanak, edo gora egiteko aukerarik ematen ez dutenak, emakumezkoek egiten dituzte, ia gehienak; eta gerentzia-lanetan edo erabakiak hartzeko postu nagusietan, aldiz, gizonezkoak daude, batik bat. Egoera horren iturburuan arrazoi asko daude, jakina; besteak beste, sexu bakoitzekoak bete beharreko rolei buruzko ikuskera estereotipatua (alderdi kulturaleri lotuta eta tradizioak bultzatuta), eta emakumezkoek beraiek erabat barneratuta izatea beren burua zenbait lanpostutarako ezgai bilakatzen duten ikuspegi hori. Esan beharra dago, dena den, turismoaren alorrean genero-berdintasunaren auzia enplegua baino askoz harantzago doala eta beste hainbat alderdi ukitzen dituela, hala nola emakumezkoak objektu sexual moduan irudikatzea (Morgan eta Pritchard, 1988), turismo sexuala eta GIBa nahiz HIESa (Ryan eta Hall, 2001), eta genero-bereizkeria, horrek baliabide sozioekonomikoak eskuratzearekin lotuta dakartzan ondorio guztiekin.

Lehen aipatutako txostenak agerian uzten zuenez (Hemmati, 1999), turismo-sektoreak –gero eta malgutasun handiagokoa izateaz gain etengabe hazten ari denez– aukera itzelak ekar diezazkieke emakumezkoek, aurrera egiteko bidean. Horretan dago IUCN ere (Natura Babesteko Na-



zioarteko Batasuna, alegia), eta emakumezkoen ahala areagotu nahian, turismo iraunkorraren garapena nahiz ekoturismoa prestakuntza- eta heziketa-programekin aktiboki lotzen dihardu (Vargas eta Aguilar, 2005).


Txosten horrek berak dioenez, bestalde, garrantzi handikoa da lankidetzan oinarritutako politikak zehazten direnean gai horiek guztiak kontuan hartzea: «Ezbairik gabe, emakumezkoek lan-aukera zabala dute turismo-sektorean, enpresa txiki eta ertainen bidetik norberaren lanpostua eta diru-sarrerak sortzeko aukera ere bai baitute, eta hori izugarri lagungarri gerta daiteke garatzeko bidean dauden herrialdeetan, emakumezkoak nahiz komunitate lokalak pobreziatik ateratzeko bideak zabalduko lituzkeenez gero. Aukera horiek guztiak ahalik eta modurik eraginkorrean erabiltzeko, alabaina, zenbait baldintza bete behar dira, eta horretarako, ezinbestekoa da tartean dauden eragile guztiek lankidetzan jardutea: gobernuak eta gobernuarteko erakundeek, udal-agintariek, industria- nahiz merkataritza-sektoreetako eta sindikatuetaiko ordezkariak, komunitate lokalek eta tokian tokiko taldeek, gobernu kanpoko erakundeek, maila lokalean sortutako turismo-ekimenen arduradunek... Etorkizuneko turismo-proiektu orotan garbi eduki behar dira helburuak: turismo-sektoreak berez duen ahalmen eta indar itzela ahalik gehiena sendotzea, baina ingurumena eta natura- nahiz kultura-ondarea ondo zaintzeaz batera, eta justizia soziala eta ekonomikoa sendotzeaz batera».

Eragileak edo interesdunak eta lankidetzak

Turismo-, kultura- eta garapen-gaiak jende eta erakunde askori dagozkie, eta asko dira tartean daudenak, elkarren artean lotuta dauden zenbait

eremu politikoren bitartez jarduten dutenez. Teorian, turista bakoitzari eta herrialde hartzaileko herritar bakoitzari zuzenean dagokie turismo-zerbitzuak nolakoak eta zenbaterainoko kalitate onekoak diren, gerora zer-nolako bilakaera izango duten, eta zenbateko etekinak emango dituzten. Turistentzat, etekina ez da zehatz neur daitekeen ezer, baina aitzitik beste zerbaitekin lotuta egon ohi da, eskuarki: atsegin hartzeko bizipen on bat eduki izanarekin, eta batzuentzat, bizipen *egiazko* bat edukitzearen sentsazioarekin. Azpimarratzekoa da, dena den, turisten interesa ez dagoela lotuta helmuga turistiko jakin batekin. Herrialde hartzaileetako herritarrentzat, berriz, etekina materiala da, alde batera (turisten diruari esker sortutako zuzeneko nahiz zeharkako diru-sarrerak eta lanpostuak), baina bestelakoa ere bai, norberaren ingurua eta abegikortasuna beste batzuei erakusteko aukera edukitze hori oso pozgarria denez gero, batetik, eta harrotasun- eta estimu-iturri ere bai, bestetik. Alde horretatik, tokian tokiko herritarrei eta komunitateei zuzenean dagokie turismo-sektorearen garapena, argi eta garbi: hartatik sortutako etekinek pobrezian daudenen egoera hobetzeko balio badute, nabarmen; baina bestela ere bai, turismoaren garapen horrek bertako gizarteak, kulturak eta ingurumenak irauteko ezinbestekoak diren baliabideak hondatzen baldin baditu, horren kalteak zuzenean eragiten dienez gero. Horretan ere askoz interes gutxiago dute turistek, turismoaren kalte horrek ziur asko ez baitie ezertan eragingo, bertan emandako denboratarte laburrean ez bada.

Instituzioei dagokienez, turismoaren eta kulturaren garapenean diharduten eragileak lau multzo handitan sailka daitezke, kontuan hartuz zer alor duten nagusiki ardatz: turismoa, garapena,



ingurumena edo kultura. Askotan interes berberak dituzte multzo horiek, eta gero eta maizago gertatzen den kontua da hori, onartu beharra dago; baina ez da ahaztu behar, halaber, haien arteko mugak garbiak direla, oraindik ere, eta zuzenean gatazka bat baino gehiago sor daitezkeela muga horiek direla tarteko. Eragile edo interesdunek sektore publikoetan nahiz pribatuetan dihardute; baina kontuan hartzekoa da, bai estatu-mailan bai nazioarte-mailan, gobernu kanpoko erakundeek (GKE) eginkizuna eta garrantzia, eta orobat, ikerketa-institutu eta unibertsitate-sare ugariena, eta lau alor horiei laguntza ematen jarduten duten gobernuarteko erakundeena.

Azter dezagun lehenbiziko multzoa; turismoa, alegia. Multzo horretako eragile gehienek sektore pribatuan dihardute, eta askotariko kudeaketa-lanetan aritzen dira, nola estatu-mailan hala maila multinazional eta nazioartekoan: bai hotel-kate, aisialdirako gunek eta bidaiaria-agentzia handiak, bai oroigarriak saltzeko familiarterako denda xumeak. Estatu-mailako sektore publikoari dagokionez, tartean daude, turismo-garapenarekin eta -marketinarekin lotutako gobernu-sailak ez ezik, baita garraioarekin, planifikazioarekin, kulturarekin eta abarrekin lotutakoak ere. Nazioarte-mailan, berriz, gobernuarteko erakunde batek berebiziko garrantzia du turismoaren alorrean: Munduko Turismo Erakundeak (MTE), hain zuzen. Nazio Batuen erakunde espezializatua den aldetik, turismo-politikez eztabaidatzeko mundu-mailako foroa da MTE, alde batera, eta turismoa sustatzea baldin badu ere xede, helburu hauek lortzeko baliatu nahi du hura: «ekonomia garatzea, nazioartean elkar aditzea, bakea, oparotasuna, eta mundu osoan giza eskubideak nahiz funtsezko askatasunak bete eta gordetzea» (MTE, 2005).

Garapenaren, ingurumenaren eta kulturaren alorretan tartean dauden eragileei dagokienez, askoz gutxiago dira sektore pribatukoak, nahiz eta erakunde eta enpresa pribatu askoren interesek –esate baterako, arrantza-konpainienek, nekazaritzakoek, ur-hornidurakoek, eraikuntzakoek eta meatzaritzakoek– eragin zuzena duten alor horietan. Bestalde, gobernu kanpoko erakundeek (GKE) eta gobernuarteko erakundeek garrantzi handiko zeregina dute; azken horiek, batik bat, hainbat gai berez mugez haraindikoak eta denen interesekoak direnez gero, hala nola pobrezia, basamortutzea, eta hizkuntza- nahiz kultura-aniztasuna. Nazio Batuen baitako gobernuarteko erakundeak bereziki dira garrantzitsuak, hain zuzen ere mundu osora iristen direlako, funtzionamendu demokratikoa dutelako eta independenteak direlako. Haien artean daude, besteak beste, UNESCO eta haren aholku-organoak, hala nola Leku eta Monumentu Historikoen Nazioarteko Batzordea (ICOMOS), Jabetza Kulturala Zaintzeko eta Zaharberritzeko Nazioarteko Batzordea (ICCROM) eta Natura Babesteko Nazioarteko Batasuna (IUCN), bai eta Nazio Batuen Garapen Programa (NBGP) eta Munduko Osasun Erakundeak (MOE) ere.

Alor horiek guztiak alderdi askotatik daude lotuta elkarren artean, eta eragile edo interesdun asko eta askotarikoak daude tartean, maila guztietan, gainera. Horregatik guztiagatik, arras onartuta dago erabat beharrezkoa dela haiek uztartu eta lankidetzan aritzea, iraunkortasunerako printzipioak eta garapenerako betebeharrak modu eraginkorrean betetzeko modua denez gero. Lankidetzak –alderdi interesdunen artean erabakiak batera hartzeko prozesua, alegia– zer ekintza egin adosteko da baliagarria, batetik, eta arazoei modu eraginkorrean heltzeko kapital intelektuala eta bestelako baliabideak biltzeko ere bai, bestetik. Hainbat jardueraren eremu eta interes desberdin baina osagarri uztartzeko modu bat da, azken batean, gero arazoei aurre egiteko ikuskera holistikoa eta osoago bat sortu ahal izateko. Garapenaren alorrean, oro har, eta



turismo-garapenarenean, bereziki, lankidetzazko prozesu-mota asko egon dira; baina batzuetan, komunitateek dagoeneko hartuta dauden zenbait erabaki onartzea izaten da helburu nagusia, eta halakoetan, plangintza- eta garatze-lanetan dabiltzanen ikuspegitik, kontsulta-prozesua bera bihurtzen da xede. Gainera, zernahi lankidetzazko prozesu benetan *lankidetzaz* izango bada, hartan arituko direnek maila berean egon behar dute nolabait, teoriarik behintzat; egiantan, alabaina, gutxitan gertatzen da halakorik, eta direlako lankidetzazko prozesuetan batere berdintasunik gabeko botere-harremanak nagusi izatea da ohikoena, azpijokoak barne, askoz arrazoi politiko eta ideologiko zabalagoak direla tarteko.

Turismo-garapenean, desberdintasun itzelak egoten dira maiz askotan eragileen artean; turismoa sustatzen diharduten interes-taldeek –eta helburu hori lortzearren natura- nahiz kultura-baliabideak baliatzen dituztenek– hedadura handiko interes komertzial eta geopolitiko zalapartatsuak izaten dituzte askotan sorburu, eta lankidetzaren nondik norakoak ezartzeko ahala izaten dute. Baliabideak eta botere politikoa eskuratu ahal izateari dagokionez ere desberdintasunak erabat sartuta daude turismoan, eta berez nahikoa agerikoak badira ere are nabariagoak dira muturrak alderatuta: herrialde garatuak eta garatzeko bidean daudenak, aberatsak eta pobreak, landa-inguruak eta hiri-inguruak, tokian-tokian bertakoak direnak eta kanpotarrak... Eta hori mundu-mailako desoreka orokorraren isla baizik ez da: estatu-, eskualde- eta toki-mailen arteko desorekarena, batetik, eta bestetik, garatzeko bidean dauden herrialdeek herrialde garatuekiko duten mendekotasunarena. Lankidetzaz ari garen honetan, bestalde, bada garrantzi handiko beste gai bat ere: kultura-eskubideen auzia, hain zuzen, eta zehatz esatera, kultura-eskubideak nori dagozkion identifikatu eta haiek errespetatu beharra. Hori egin ezean, izan ere, nola berma daiteke komunitateek ere parte hartuko dutela kultura-aniztasunaren eta kultura-ondarearen gain epe luzean eragina izango duten erabakiak hartzeko prozesuan? Komunitateei eta kulturei lurraren nahiz baliabideen jabetzaren eskubideak aitortu behar zaizkie, eta jabetza intelektualarenak ere bai, eskubide horien babesean izango baitute ahalmena, turismo-garapenaren nondik norakoetan eta errotan eragiteko ez ezik, baita turismoaren garapen-proiektu jakin batzuei –ondorio suntsitzaileak izan ditzaketenei, adibidez– a priori onespena edo baimena emateko edo ukatzeko ere.

Baimenaz ari garenean, baliabideen jabetza legal eta moralaz ari gara (kultura- eta natura-baliabide ukigarri nahiz ukiezinenen): turismoaren garapena sustatzeko erabil litezkeen baliabideen jabetza legal eta moralaz, alegia. Edo bestela esanda, nor bere iraganaren, orainaren eta geroaren jabe izateko eta haiek erabakitze eskubideaz, eta jabetza hori beste batzuen esku utzi nahi izanez gero, horretarako aukera edukitzeaz, adostasunean oinarrituta betiere, ahobatezkoa ez bada ere, gutxienez bai denen balioak kontuan hartuta. Horrekin lotuta dago, beraz, turistei norberaren inguruetan eta norberaren baliabideekin ibiltzeko baimenak eta bisak eman ahal izatea, batetik, eta bestetik, gainerako alderdi interesdunei dagokienez, komunitatean adostutako helburuen bidetik elkarrizketan eta lankidetzan aritu ahal izatea. Delako *baimen* horren atzean, horrenbestez, autodeterminazioa dago, eta orobat, ahalmenak sortzea eta apurka-apurka autonomiarantz egitea. Kulturari eta Garapenari buruzko Munduko Batzordeak (1995) *demokrazia kulturala* esan zion horri. Benetan lankidetzarik egongo bada, funtsezkoa da kultura-eskubideak aitortzea eta babestea eta *demokrazia kulturala* sustatzea, eta horretarako, ezinbestekoak dira gobernuarteko erakunde independenteak, gizadiaren interesik onenek hitza izan dezaten, bai ingurumenaren eta kulturaren alorretan, bai ekonomiarenean.



3. atala

**Bitartekoak sortzen
- ekimenak lantzen:
UNESCOk turismoaren,
kulturaren eta
garapenaren alorretan
sustatutako ekimenak**



Turismoari, kulturari eta garapenari dagokionez, beste turismo-mota bat sor dadin sustatzea du helburu UNESCOk, oraingoaz oso bestelakoa izan behar baitu turismoak, zolia eta zentzuzkoa izango bada: kultura-aniztasuna aintzat hartu behar du, kultura- eta natura-baliabideak ahulak diren aldetik ondo babestu, baliabide horiek garapen iraunkorra lortzeko eta pobrezia murrizteko erabili, eta gizarteetan diren kultura-identitate guztiei bide egin. Helburu horiek guztiak UNESCOren sorrerako printzipioekin guztiz bat datoz; haietan azpimarratzen zenez, izan ere, “kultura zabal hedatzea eta gizadia justiziaren, askatasunaren eta bakearen alde heztea ezinbestekoak dira giza duintasunerako, eta estatu guztiek elkarri laguntzeko eta elkarrez arduratzeko espirituak bultzatuta egin beharreko betebeharrak dira, gainera” (UNESCOren Gutuna, 1945).

Nazio Batuen baitako erakundeek turismoarekin lotuta batzarretan, aldarrikapenetan, gutunetan eta araudi edo kodeetan hartutako printzipioak sustatzen ditu UNESCOk (adibidez, Munduko Turismo Erakundeak 2001an emandako *Turismoari buruzko munduko kode etiko* hartako printzipioak). Izan ere, testu horiek zaizkio UNESCOri turismo- eta kultura-alorretan batera lan egiteko erreferentzia-esparru, bai eta politikak nahiz ekintzek nondik norakoak izan behar duten argitzeko bide-erakusle ere, askoz eremu zabalagoari dagozkionez. UNESCOk turismoaren garapenari buruz duen ikuspegiaren oinarria, hain zuzen, Nazio Batuek *Milurtekoko aldarrikapen* (2000) zehaztutako helburua da: pobrezia behin betiko desagerraraztea.

Turismoa bereziki da bide praktikoa kultura arteko elkarriketa egia bihur dadin lortzeko, elkar-guneak sortu eta herriek *besteek* ikusteko eta ezagutzeko modua izateko (van den Berghe, 1980). Turismoaren bitartez, ondare ukigarri nahiz ukiezineko hainbat baliabide jar daitezke abian, kulturen arteko elkarriketa eta trukea sustatu eta denok gizadi bakar bateko kide garelako sentimendua sortzeko. Asko eta astarikoak gara kulturak munduan, eta askotarikoak gizon-emakumeak, kultura-ezaugarrien aldetik; baina bakarra da gizadia, eta horrek batzen gaitu. Alde horretatik, aniztasun horren aberastasunaz eta gizadiaren bakartasunaz ohartzeko bidea ematen du turismoak, beste zenbaitek bezala, eta bidea ematen du, halaber, bere horretan lagata edo galtzeko zorian dauden kultura-ondareko baliabideak berreskuratu eta iraunarazteko, haiek erabiliz aberastasuna eta talde-identitateko sentimendua sor daitezkeenez gero. Ondorio onak ez ezik txarrak ere eragin ditzake turismoak, alabaina, behar bezalako plangintzarik edo kudeaketa egokirik egiten ez bada: ingurumena hondatzea, kultura-ondareko baliabideak suntsitzea, alienazio soziala, eta kultura-estereotipoak nahiz -urreiritziak errepikatu eta sendotzea, besteak beste (UNESCO, 2000b). Lekuak gehiegi ustiatu eta lepo egotea, jokabide turistiko esplotatzaile edo harroputza, zenbait bidaia-antolatzaileen jarrera hegemonikoa, tokian tokiko herritarrak oso jabetuta ez egotea bertako ekosistemak zein baliotsuak diren eta bertako ondareak turismoaren aldetik zenbaterainoko garrantzia duen... Alderdi horiek guztiek ondorio kaltegarriak eragin ditzakete, ezbairik gabe; UNESCOren programetan eta printzipioetan zehaztutako helburuen kontrakoak, agian.

UNESCOk, bere helburuak ekintza bihurtu nahi horretan, plangintza- eta politika-esparruak abiarazteko eta koordinatzaile- nahiz laguntzaile-lanak egiteko ardura hartu du bere gain, gero nazioarteko, eskualdeetako eta tokiko estrategiek bidea urratuta eduki dezaten. UNESCOren asmoetako bat hartako 191 estatu kideei politika egokiak prestatzen laguntzea da, eta orobat,



hiru alderdi hauek elkarren artean nola dauden lotuta eta zer-nolako bilakaera duten etengabe aztertzea: turismoa eta kultura-aniztasuna, turismoa eta kultura arteko elkarrizketa, eta turismoa eta garapena. UNESCOk, bere helburuak lortzeko bidean, Nazio Batuetako beste programa eta erakunde batzuekin elkarlanean aritzeko ahalegina egiten du, hala nola NBGP eta NBIP programekin eta MTE erakundearekin, eta estu aritzen da lankidetzan, halaber, bai sektore publikoarekin, bai sektore pribatuarekin, bai GKEekin. UNESCOk turismo-alorrean egiten dituen ekimenei dagokionez, asko dira haiek ukitzen dituzten gaiak, denak ere elkarren artean lotuak: arauak lantzea, kultura-baliabideak babestea eta abiaraztea, ekimen ekonomiko lokalak sustatzea eta pobrezia murriztea, bakearen alde kultura arteko elkarrizketa sustatzea eta garapen iraunkorraren alde hezteak, besteak beste. Hirugarren atal honen helburua hori azaltzea da, hain zuzen: UNESCOk gai horiek lantzeko zer eremutan jarduten duen argitzea eta UNESCOren ekimenak zein askotarikoak diren erakustea.

Araugintza

Nazio Batuetako sistemaren baitan, UNESCO da kulturaren, zientziaren eta hezkuntzaren eremuetarako arauak sor ditzakeen nazioarteko erakunde bakarra. Kultura-baliabide ukigarri nahiz ukiezinak hobeto babesteko, hainbat bitarteko juridiko dauzkate estatuek, UNESCOk emanak eta hartako estatuek onartuak: aldarrikapenak, gomendioak eta konbentzioak, hain zuzen. Baina bitarteko juridiko guztiek ez dute betebeharririk bera. UNESCOren aldarrikapenak, esaterako, konpromiso moral edo politikoak dira, besterik gabe: estatuak on ustean oinarrituta elkarrengana biltzen dituzten konpromiso moral edo politikoak, alegia. UNESCOk estatu bati edo batzuei egindako gomendioek, berriz, beste zerbait dute helburu: estatu horri edo horiei nolabait eskatzea har dezatela ikuspegi jakin bat edo joka dezatela modu jakin batean, kulturaren eremu jakin batean. Beraz, gomendioek ere ez dakarte inolako betebeharririk, ez dira lotesleak. UNESCOren konbentzioak, aldiz, beste maila batean daude: itunen pareko dira, nolabait, eta estatu kideetatik gutxienez hogeita hamarrek berretsitako hitzarmenei deritze. Hitzarmen horiek alderdien nahiaren ondorio dira, eta konbentzioek, hori oinarri hartuz, konpromiso legal lotesleak ezartzen dizkiete estatuei.

Atal honen helburua turismoaren, kulturaren eta garapenaren alorretako zenbait bitarteko juridiko garrantzitsuren atarikoak eta helburuak azaltzea da. Tartean izango ditugu, labor-labor, *Munduko kultura- eta natura-ondarea babesteko konbentzioa* (1972), *Urpeko kultura-ondarea babesteko konbentzioa* (2001), *Kultura-aniztasunari buruzko aldarrikapen unibertsala* (2001), eta *Kultura-ondare ukiezinak babesteko konbentzioa* (2003). Bestalde, UNESCOk aktiboki jardun du laguntzen Ingurumenari eta Garapenari buruzko Munduko Batzordearen nahiz Kulturari eta Garapenari buruzko Munduko Batzordearen eginkizunetan, eta laguntza horrek eragin erabakigarria izan du *Garapen iraunkorari buruzko Johannesburgeko aldarrikapen* (2002) hartan laborbildutako zenbait ideia, aldarrikapen eta gomendiotan.



Informazio gehiago nahi izanez gero, jo webgune honetara: www.unesco.org (Testu arauemaileak esteka).

Munduko kultura- eta natura-ondarea babesteko konbentzioa (1972)

XX. mendearen bigarren erdian hainbat estatu independente sortu ziren, eta horrek hamaika arazo ekarri zuen, kultura-ondareko lekuak, arkeologia-indusketak, museoak eta natura-guneak aukeratzeko, kudea-

tzeko eta jendaurrera zabaltzeko moduei zegokienez. Horrelako lekuak babestea garesti izan ohi da, eta teknikoki zaila ere bai maiz; eta estatu sortu berri haiei bai alderdi logistikotik bai alderdi finantzariotik ezinezkoa gertatzen zitzairen halakoak babestea, hain zeuden lanpetuta bertako egoera sozioekonomiko aldakorrari aurre egiten. Hori zela eta, kultura- eta natura-ondareko leku bereziak babesteko nazioarteko esparru juridiko bat sustatu zuen UNESCOk. 1950 eta 1960ko hamarkadetan zenbait aldarrikapen eta gomendio eman ondoren¹, UNESCOren Batzar Nagusiak *Munduko kultura- eta natura-ondarea babesteko konbentzioa* onartu zuen, 1972an, Parisen (Frantzia); hura izan zen, hain zuzen, legez loteslea zen lehenbiziko proiektua.

Konbentzio hartarako helburuak garbi zeuden: gizadiarentzat balio berezikotzat har zitezkeen mundu osoko kultura- eta natura-ondareko elementuak identifikatu, babestu eta zain zitezen sustatzea. Balio berezia izateko, ikuspegi artistiko, estetiko, zientifiko, etnologiko edo antropologikotik begiratuko zitzaion kultura-ondareari (1. artikulua), eta estetikaren, zientziaren, babesteko premiaren edo edertasunaren ikuspegitik, berriz, natura-ondareari (2. artikulua). Hasiera hartan, beraz, bi multzotan sailkatu zen ondarea: kultura-ondarea, batetik, eta natura-ondarea, bestetik. Baina gizakiak eragindako arrasto kultural, historiko edo artistikoa dela tarteko dira natura-gune batzuk balio berezikoak; eta horregatik, natura-gune jakin horiei kalitatea ikuspegi horretatik aitortu ahal izateko, Konbentzioa ezartzeko ildo nagusien barruan lekuak sailkatzeko beste kategoriatan sartzea erabaki zuen Ondareari buruzko Munduko Batzordeak, 1992an: kultura-paisaiak kategoriatan, hain zuzen (Fowler, 2003).

Munduko kultura- eta natura-ondarea babesteko konbentzioak honela dio hitzaurrean: “[...] arrisku handi eta larri berri askoren eraginpean dagoela-eta, nazioarteari osoari dagokio gizadiarentzat balio bereziko den kultura- eta natura-ondarea babesteko eginkizunean parte hartzea, tokian tokiko estatuari baterako laguntza emanez, estatuei beraiei dagozkien egitekoak nazioartearen gain hartu gabe, betiere, baina haien osagarri eraginkorra izanez”.

“Konbentzio honen kide diren estatuei beraiei dagokie bakoitzaren lurraldean goragoko 1. eta 2. artikuluetan aipatutako ondasunetatik zein dauden identifikatzea eta mugatzea.” Horrela dio

1. Arkeologia-indusketarako nazioarteko printzipioei buruzko gomendioa (UNESCO, 1956), Paisaien eta lekuen edertasuna eta izaera babesteari buruzko gomendioa (UNESCO, 1962), Lan publiko nahiz pribatuen eraginez galtzeko zorian dauden kultura-ondasunak babesteari buruzko gomendioa (UNESCO, 1968a), eta Estatu-mailan kultura- eta natura-ondarea babesteari buruzko gomendioa (UNESCO, 1968b).



3. artikulua, eta gero, ekimen arauemaile horren ildo nagusietako bat nazioartean lankidetzan eta elkarrizketan aritzeko espiritua dela azpimarratzen du berriro.

Espiritu horren argitan, eta Konbentzio honen parte gisa, UNESCOren barruan Munduko Ondarearen Zentroa sortu zen, finkatutako printzipio eta helburuak modu eraginkorrean ezarri ahal izateko. UNESCOren egoitza nagusian dago delako zentroa, Parisen, eta ICOMOS nahiz ICROM batzordeekin elkarlanean, Munduko kultura- eta natura-ondareko lekuen zerrenda kudeatzen du, bai eta Arriskuan dauden munduko ondareen zerrenda ere.

Informazio gehiago nahi izanez gero, jo webgune hauetara: whc.unesco.org eta whc.unesco.org/opgutoc.htm (Munduko ondareari buruzko konbentzioa ezartzeko ildo nagusiak esteka).

Kultura-aniztasunari buruzko aldarrikapen unibertsala (2001)

1990eko hamarkadan, UNESCOko estatuak gero eta kezkatuago agertu ziren, globalizazio bizkorren eraginez eta zenbait kultura-eredu nagusitzen ari zirela-eta kultura-homogeneizazioa gertatzeko arriskua zegoela ikusita. Eta kezkatuta agertu ziren, halaber, gerra hotzaren osteko testuinguru

hartan zenbait kultura edo zibilizazio ez ote ziren estigmatizatuko, eta azkenean ez ote zen gertatuko kultura edo zibilizazio horiek elkarrekin ondo moldatu ezinda ibiltzea (Huntington, 1998). Kezka horiei nolabaiteko erantzuna eman nahian, Kultura-aniztasunari buruzko aldarrikapen unibertsala prestatu zuen UNESCOk, 2001ean, irailaren 11 hartako gertakariak jazo eta gutxira (Stenou, 2000, 2002). UNESCOren zuzendari nagusi Koïchiro Matsuura jaunak esan bezala, “estatuek kultura arteko elkarrizketa bakerako bermerik onena delako uste osoari benetan eusteko eta kulturen edo zibilizazioen arteko konpondu ezina saihestezina zelako teoria guztiz ukatzeko” aukera izan zen hura. Kultura-aniztasunari buruzko aldarrikapen unibertsala guztiz bat dator UNESCOk aurretik egindako aldarrikapen eta konbentzioen² norabidearekin, bai eta konferentzia eta batzorde hauetan ateratako ondorioekin ere: Kultura Politikei buruzko Munduko Konferentzia (1982), Kulturari eta Garapenari buruzko Munduko Batzordea (Gure aniztasun sortzaile hau, 1997), eta Garapenerako Kultura Politikei buruzko Gobernuarteko Konferentzia (Stockholm, 1998). Honela laburbildu zituen Koïchiro Matsuura jaunak Aldarrikapenaren helburuak: “Kultura-aniztasuna altxor bat da, baina bizirik dagoen altxor bat, eta hortaz, berriztagarria. Kultura-aniztasuna inoiz ez genuke ikusi behar ondare aldaezin eta estatiko moduan, baizik eta gizadiaren biziraupena bermatzeko prozesu gisa, eta orobat, segregazioa eta fundamentalismoa eragozteko bide moduan, kultura-desberdintasunak santutuz eta haiek erabiliz Giza eskubideen aldarrikapen unibertsalaren mezua urratzen dutenez gero. Kultura-aniztasuna ikuspegi horretatik babestea du helburu Aldarrikapenak”.

2. Besteak beste, eta batik bat, Florentziako hitzarmena (UNESCO, 1950) eta haren ondorioz sortutako Nairobioko protokoloa (UNESCO, 1976a), Jabetza intelektualari buruzko konbentzio unibertsala (Copyright) (UNESCO, 1952), Nazioarteko kultura-lankidetzarako printzipioei buruzko aldarrikapena (UNESCO, 1966), Kultura-ondasunak legez besterendu, inportatu eta esportatu daitezzen galarazteko eta aurrea hartzeko bitartekoei buruzko konbentzioa (UNESCO, 1970), Munduko kultura-eta natura-ondarea babesteari buruzko konbentzioa (UNESCO, 1972), Eremu historikoak babesteari eta haien gaur egungo garrantziari buruzko gomendioa (UNESCO, 1976), Arrazari eta arraza-aurreiritziei buruzko aldarrikapena (UNESCO, 1978), Artisten estatusari buruzko gomendioa (UNESCO, 1980), eta Kultura tradizionala eta folklorea babesteari buruzko gomendioa (UNESCO, 1989).



Kultura-aniztasunari buruzko aldarrikapenaren funtsezko ideietako bat aniztasun biologiko edo biodibertsitate kontzeptua gure gizartean testuingurura ekartzea da; gizakionera, alegia. Esaterako, 1. artikulua honela dio: “trukerako, berrikuntzarako eta sorkuntzarako iturri den aldetik, kultura-aniztasuna erabat beharrezkoa da gizadirako: aniztasun biologikoa naturarako den bezainbeste-koa”. Hori kontuan izanda, kulturen edo zibilizazioen arteko konpondu ezina saihestezina delako tesia (Huntington, 1998) kultura arteko elkarrizketa kontzeptuaren aurkakoa da, kontzeptu hori munduko herrien artean bakezko harremanak lortzeko modu bakartzat hartzen denez gero.

UNESCOk kulturarekin eta kultura-baliabideekin lotuta araugintzaren aldetik aurretik egindako ekimenen artean azpimarratzekoak dira *Munduko kultura- eta natura-ondarea babesteari buruzko konbentzioa* (1972) eta *Kultura-aniztasunari buruzko aldarrikapena* (2001), haietan UNESCOk kulturari, kultura-aniztasunari eta sormen kulturalari buruzko ikuspegi berritzailea hartu zuenez gero. Orain, kultura eta kultura-aniztasuna ez dira historiaren nolabaiteko hezur-mamitze hutsa edo erlikia historikoak; kultura eta kultura-aniztasuna orain ez dira saleros edo truka daitezkeen merkantzia edo kontsumo-ondasun hutsak, eta bai, aitzitik, gizarte bakoitzeko kultura-tradizioen askotarikotasunean errotutako prozesu sortzaile eta ebolutiboa. Alde horretatik, eta 7. artikuluan zehaztutakoaren arabera, hauxe du helburu 2001eko aldarrikapenak: sorkuntza oro “beste kultura batzuekin harremanetan egonda loratzen denez”, horretarako ahalik eta egoerarik egokiena sortzea. Hartan esaten denez, egoera hori bermatuta dago, zenbait bitarteko juridiko direla tarteko, hala nola *Giza eskubideen aldarrikapen unibertsala* eta *Eskubide ekonomiko, sozial eta kulturelei buruzko nazioarteko ituna*, bai eta nazioarteko zenbait erakunde-mota berri direla medio ere. UNESCOk berebiziko garrantzia du Aldarrikapen horretako printzipioak eta edukiak ezartzeari dagokionez (Winkin, 2002).

Informazio gehiago nahi izanez gero, jo webgune honetara: www.unesco.org (Testu arauemaileak esteka).

Garapen iraunkorrari buruzko Johannesburgeko aldarrikapena (2002)

UNESCOk berak turismoaren, kulturen eta garapenaren alor zabaletan arauak sortzeko hainbat ekimen eta bitarteko garrantzitsu sustatzea gutxi ez, eta Nazio Batuetako beste erakunde batzuek landutako garrantzi handiko beste arau-esparru batzuk ezar daitezzen laguntzen ere aritu da, gainera. Garrantziko adibide bi aipatzearren, hor daude, besteak beste, *Garapen iraunkorrari buruzko Johannesburgeko aldarrikapena* eta haren eranskina, *Garapen iraunkorrari buruzko munduko goi-bilera ezartzeko plana (Rio+10)* (NBE, 2002a, 2002b).

Johannesburgeko aldarrikapenak garapen iraunkorraren garrantzia azpimarratzen du berriro: giza garapena lortuko bada, eta pobrezia desagerraraziko bada, nahitaez garapen iraunkorraren bidetik jo behar dela, alegia. Alde horretatik, Nazio Batuek 1972an Stockholmen Giza Ingurumenari buruzko Konferentzian adierazitakoak berresten ditu, baita 1992an Ingurumenari eta Garapenari buruzko Konferentzian egindako Ingurumenari eta garapenari buruzko Rio de Janeiroko aldarrikapen hartan eta haren mundu-mailako Agenda 21 programan ezarritako printzipioak ere:



ingurumena andeatzeari dagokionez irtenbide bat eman beharra dagoela, hain zuzen. Arazoak beste ikuspegi batetik aztertu izanaren poza eta arrakasta azpimarratzen du, batik bat, *Johannesburgeko aldarrikapenak*; hots, nola estatu- eta eskualde-mailan, hala maila lokal eta globalen, arazoei garapen iraunkorraren printzipio sinergiko eta elkarren mendeko horien ikuspuntutik begiratzearen arrakasta: garapen ekonomikoa, garapen soziala eta ingurumena babestea.

Bestalde, *Aldarrikapenak* argi eta garbi adierazten du printzipio horiek gauzatu ahal izatea benetan kontu nekeza dela, baldin eta aberastasunak maila horietan guztietan orain arte bezain desberdin banatuta egoten jarraitzen badu. UNESCOk zenbait txosten, aldarrikapen eta konbentziotan adierazitakoarekin bat, hala nola *Garapenerako kultura-politikei buruzko gobernurako azken txostena* (Stockholm, 1998), *Kultura-aniztasunari buruzko aldarrikapen unibertsala* (2001c), *Urpeko kultura-ondarea babesteari buruzko konbentzioa* (2001a) eta *Kultura-ondare ukiezina babesteko konbentzioa* (2003), *Johannesburgeko aldarrikapenak* ere beste desberdintasun-egoera batekin lotzen du egoera hori: natura- eta kultura-baliabide ukiezin nahiz ukigarri eta higiezin nahiz higigarriak erabiltzeko eta jabetzan izateko aukera berberak ez edukitzearekin, alegia. Baliabide horiek babesteko eta garatzeko politikak eta jardunbideak abian jarri eta sendotzeko, batetik, baina hurrengo belaunaldietarako berregiteko ere bai, bestetik, eta pobrezia desagerraraztea lehentasun bihurtu nahian Nazio Batuetako idazkari nagusiak³ emandako Milurtekoko aldarrikapen (NBE, 2000) harekin bat, *Johannesburgeko aldarrikapenak* berriro gogorarazten du kultura eta hura behar bezala planifikatzea funtsezkoak ez ezik garapenerako estrategien ardatz eta bihotz izan behar dutela.

Informazio gehiago nahi izanez gero, jo webgune hauetara: www.un.org/esa/sustdev/ eta www.johannesburgsummit.org/

Kultura-ondare ukiezina babesteko konbentzioa (2003)

Esan bezala, kultura prozesu dinamiko eta sortzaile moduan –eta ez monumentu aldaezin gisa– hartu zuen, batik bat, *Kultura-aniztasunari buruzko aldarrikapen unibertsalak* (2001), bai eta *Istanbuleko aldarrikapenak* ere (2002), Kultura Ministroen Hirugarren Goi Bileran emana. Ikuspegi berritzaile hartatik

begiratuta, zenbait estatu kide kezkatuta agertu ziren, bai kultura- eta natura-ondare ukigarria bai kultura-ondare ukiezina arriskuan zeudelako. Globalizazio-prozesua ere tartean sartu zuten, argi eta garbi: kultura-ondare ukiezina hondatzeko, galtzeko eta suntsitzeko arriskupean jarrita zeukaten eragileen artean, alegia. Eta globalizazioarekin batera, haren eta gizartea aldatzen ari izatearen prozesuaren eraginez komunitateen artean beste harreman-mota batzuk sortu izana ere bai. Estatu kideek ondorio hauek atera zituzten: eragile horiek guztiak zitzaizkion mehatxu kultura-ondareari, eta herrialde askotan –garatzeko bidean dauden herrialdeetan, batik bat– ondarea babesteko nahikoa baliabiderik ez izatearekin lotuta zeuden mehatxu horiek, nagusiki.

Hala, gizadiaren kultura-ondare ukiezina babestu eta zaindu ahal izateko nazioarteko esparru juridiko bat sortu nahian, UNESCOren Batzar Nagusiak *Kultura-ondare ukiezina babesteko kon-*

3. A/RES/55/2 Ebazpena, Nazio Batuen Batzar Nagusiak 2000ko irailaren 8an hartua.



bentzioa (2003) onartu zuen, lehendik onartutako giza eskubideei buruzko zenbait aldarrikapen eta bitarteko juridikotan⁴ eta Kultura tradizionala eta folklorea babesteari buruzko gomendioan (UNESCO, 1989) oinarrituta. Konbentzioan, honela definitu zen kultura-ondare ukiezina: “komunitateek, taldeek eta, batzuetan, gizabanakoek beren kultura-ondarearen partetzat dauzkaten ezaguerak, erabilerak, adierazpenak, adierazpideak eta trebetasunak [dira kultura-ondarea], eta halaber, horiekin lotutako tresnak, objektuak, tramankuluak eta kultura-guneak” (2. artikulua). 2003ko konbentzioa agiri aldeaniztun loteslea da, eta gainera, bizirik dauden kultura-mota eta -modu guztiak babesteaz gain haiek komunitate, talde eta batzuetan gizabanakoek autonomia lortzeko baliabide gisa onartzen dituen agiri lotesle bakarra, baliabide horiek abian jarri eta beregin daitezten, eta kultura-aniztasuna nahiz giza sormena aberats daitezten.

Kulturari buruzko ikuspegi dinamikoko hori eta heziketari garrantzi handia emate hori ez datoz bat 1972an emandako Munduko kultura- eta natura-ondarea babesteari buruzko konbentzio hartako ikuspegi estatiko eta kontserbadorearekin. Horren erakusgarri da, batik bat, ondarea babeste hori bera zertan datzan definitzeko modu erabat desberdina: “kultura-ondare ukiezinaren bideragarritasuna bermatzeko neurriak hartzea da; besteak beste, hortaz, ondare horren alderdiak identifikatzea, informazioa biltzea, ikertzea, babestea, zaintzea, sustatzea, hobetzea, jakinaraztea –heziketa formalaren eta ez-formalaren bitartez, batik bat– eta biziberritzea”. Informazio gehiago nahi izanez gero, jo webgune honetara: www.unesco.org (Testu arauemaileak esteka).

Kultura-baliabideen babesa eta erabilera

UNESCOk emandako testu arauemaileen eta ekimenen printzipioekin eta filosofiarekin bat, erakundea gero eta indar handiagoz ari da hartzen parte zenbait ekimen eta proiektu pilotutan laguntzeko edo zuzentzeko lanetan. Izan ere, testu arauemaile asko berriak dira, eta probatu eta aztertu egin behar dira, behar izanez gero etengabe aldatzen ari diren gizarte- eta ekonomia-egoera berrietara moldatu ere bai, jardunbide onetan oinarritutako eredu egokiak sortuko badira. UNESCOko zenbait sail aritzen dira testu arauemaile horiek abian jartzen, zein bere alorrean aditua eta eskarmentu handikoa dela baliatuta. Turismoaren, kulturaren eta garapenaren alorrean hartutako konpromiso horien helburuak eta prozedurak argiago erakusteko, kultura-baliabideak babestearekin eta erabiltzearekin lotutako zenbait ekimen azalduko ditugu jarraian, adibide modura.

4. Batik bat, *Giza eskubideen aldarrikapen unibertsala* (NBE, 1948), *Eskubide ekonomiko, sozial eta kulturaleri buruzko nazioarteko ituna* (NBE, 1966), eta *Eskubide zibil eta politikoei buruzko nazioarteko ituna* (NBE, 1966).



Jesu Kristoren ibilbidea: kultura-turismoko ibilbide bat, Palestinako lurraldeetan

2005ean, UNESCOk, Ramalan daukan ordezkartzaren bitartez (Palestinako lurraldeetan), Kultura-ibilbidea: Jesu Kristoren ibilbidea proiektua jarri zuen abian, Palestinako zenbait ministeriorekin elkarlanean. Proiektu bateratu haren helburua garbia zen: eskualdeko kultura-, erlijio- eta natura-ondareko zenbait baliabide ukigarri nahiz

ukiezin abian jartzea, nazioarteko merkatuetan eskaintzeko moduko kalitate oneko zenbait produktu turistiko sortzeko. Nazio Batuek 2000. urtean emandako *Milurtekoko aldarrikapena* ren ildoari jarraiki, proiektua sortzearen helburu bakarra ez zen Jesu Kristoren ibilbidean zehar dagoen ondareko baliabide ukigarri nahiz ukiezinak sustatu eta babestea, eta bai, aitzitik, beste alderdi asko hobetzeko eta horretarako egoera egokiak sortzeko ere baliagarria gertatzea, hala nola bertako ahalmenak eta ezagutzak areagotzeko, inguruko ekonomia eta azpiegiturak hobetzeko, gobernagarritasun demokratikoan eta sektoreen arteko lankidetzan aurrera egiteko, eta bertakoen kultura-sormena eta autoestimua hobetzeko. Proiektua dela tarteko, lanpostu-mota asko sortu dira, eta gaur egun tartean dira, besteak beste, zientzialariak, teknikariak eta hainbat arlotan gaitutako eta erdi gaitutako langileak: arkitekturan, arkeologian, kontserbazioan, garraioan, komunikazioan, turismoarekin lotutako jardueretan (gidari-lanak, jatetxe eta ostalaritzako lanak...) eta beste zenbait sektoretan (eskulangintza, museoak eta nekazaritza, adibidez).

Proiektu horren muina, eta UNESCOk abiarazi eta gauzatutako ibilbide moduko beste batzue-na ere bai, hauxe da: eskualde edo eremu jakin bateko aktibo ugari eta askotarikoetatik bat-zuk oinarri modura erabiliz, lurralde zabalago baten eta hartako ekonomia-sektoreen garapen orokorra lortzen saiatzea. Horrelako proiektu guztiek iraunkortasun eta bideragarritasun ekonomikoa dute ardatz, nabarmen; baina erlijioen eta kulturen arteko elkarriketarako eta bakerako egoera egokiak sortzeko aukera ere ikusten du haietan UNESCOk, eta horretarako, tokian tokiko gobernuekin, Nazio Batuetako beste erakundeekin eta gobernuz kanpoko erakundeekin elkarlanean aritzen da, estu aritu ere, sortu nahi diren garapenerako estrategiak tokian tokiko testuinguruaren arabera izan daitezkeen (tokiko egoerara moldatuak, alegia), eta kontuan har ditzaten, beraz, bertako instituzio, komunitate, talde eta eragile ekonomiko nahiz politiko guztiguztien beharrak eta helburuak. Horren adibide garbia da, beste edozein baino areago, Jesu Kristoren ibilbidea, Palestinako gobernuko zenbait ministerio eta hartarako sortutako lan-taldea elkarrekin aritu baitziren proiektuko fase guztietan, bai ikerketa- eta plangintza-faseetan, bai trebatzeko eta proiektua ezartzeko faseetan.

Eskulangintzaren ibilbide bat sortzen, Erdialdeko Amerikan (Masaya, Nikaragua)

2004. urteaz geroztik, UNESCOk, San Josen (Costa Rica) Erdialdeko Amerikarako daukan ordezkartzaren bitartez, eskulangintzaren ibilbide bat sortzen dihardu Masaya inguruetan (Nikaragua),

bete-betean jardun ere. Tokiko eskulangintza-tradizioak maiz askotan akuilu bikainak izan li-



tezke, bai turismo-ekonomia modu iraunkorren garatzeko –tokiko enpresa txiki eta ertainen ikuspegitik, batik bat–, bai pobrezia arintzeko; eta Erdialdeko Amerikan ere hala izan zitekeela ikusita sortu zen proiektu pilotu hau, hain zuzen. Gainera, alderdi ekonomikoa alde batera utzita ere oso proiektu baliagarria da hau, ondo baino hobeto erakusten baitu benetan sor daitekeela azpieskualdeen arteko elkarriketarako eta elkarlanerako egoera egokia eta, beraz, bakerako bidea, denena den kultura- eta natura-ondarea babesteko ahalegina batera eginez.

Proiektu pilotu hori abian jartzeko, lankidetzeta betean aritu da UNESCO, bai UNESCOrako Nikaraguako Batzordearekin, bai Nikaraguako Turismo Institutuarekin, bai Erdialdeko Amerikan Kultura eta Lankidetzeta Sustatzeko Frantziako Zentroarekin. Eta Nikaraguako estatu- nahiz eskualde-mailako eta tokiko hainbat instituziok, turismo-enpresak eta gobernuz kanpoko erakundek ere hartu zuten parte proiektuan, era guztietako interesak uztartu ahal izateko, hala nola kultura babesteko ekimenak, komunitateei autonomia ematekoak eta ekonomia-garapena lortzeko estrategiak. Beste ezer baino lehen, proiektua zer helburuk, baldintzak eta ekimenek osatuko zuten jakin behar zen, eta interesa zutenen artean zenbait bilera egitea izan zen, hortaz, lehenbiziko urratsa. Helburuen-eta artean zeuden, besteak beste, sektore publikoaren eta pribatuaren arteko sinergia sortzea, ibilbidearen nondik norakoak finkatzea eta hura bideragarri izateko printzipioak zehaztea, eta turismo-gaietako adituek komunitateei irakastea, turismo-industriako zirkuitu komertzialetan sartzeko aukera izan zezaten.

Kultura- eta natura-ondareko lekuen ahultasunaz kontzientziatzen

Mundu osoan kultura- eta natura-ondarea babesteko ahaleginak kolokan geratzen dira batzuetan, suntsiketa- eta basakeria-ekintzak direla tarteko. Halako ekintzek zergatik

politikoak izaten dituzte atzean batzuetan: ondare-lekuak modernitatearen ikur eta tokiko baliabideak kanpoko indarren kontrolpean egotearen sinbolo bihurtuta, protesta egiteko modu bat da halako lekuen kontra egitea⁵. Beste batzuetan, berriz, turistek –askotan asmo txarrik gabe– oroigarriak bildu edo eduki nahi izatea da atzean dagoena. Baten batek harri, landare edo zeramika-zati bat hartzea garrantzi handirik gabeko kontua izan liteke bere horretan, eta norbait estatua bat ukitzen ibiltzeak ez du sekulako kaltea eragingo leku horretan, oro har; baina horrela dabiltzanak milaka lagun badira, larriak izan daitezke ondorioak.

Kultura-ondare izendatutako lekuak ahulak dira, oso, erraz suntsitzekoak, alegia, eta halakoak babesteko eta zaintzeko kostuak, berriz, ikaragarriak. Turista askok ez dakite horren berri, seguru. Horregatik, turistek kultura-ondare diren lekuen ahultasunari buruzko informazio gehiago izango balute ardura handiagoz jokatu lukezela pentsatuta, proiektu esperimental bat zuzendu zuen Jabetza Kulturala Zaintzeko eta Zaharberritzeko Nazioarteko Batzordeak (ICCROM), eta UNESCO ere tartean aritu da, laguntzen. Lehenik eta behin, papereko turismo-gidak zenbateraino diren era-

5. Ikus *Kultura-ondarea nahita suntsitzeari buruzko aldarrikapena* (UNESCO, 2003), gerra-guneetan UNESCOk kultura-ondare izendatutako zenbait leku nahita suntsituak gertatu ondoren emana.



ginkorrak aztertu nahi izan zen, eta horretarako, azterketa pilotu bat jarri zen abian, 2002an. Neur-tu beharrekoa garbi zegoen: oro har, turismo-gidak turisten kontzientzia pizteko baliagarriak diren ala ez, eta zehatzago, horrelako gidetako informazioaren kalitatea kultura-ondareari dagokionez zer moduzkoa zen. Oso hedatuak diren hainbat gidaliburu lagin modura aztertu eta gero, ondorio hauek atera ziren lehenbiziko azterlan hartan: gidaliburu guztietan informazio kultural asko eta his-toriari nahiz arteari buruzko aipamen ugari agertzen dela, baina kultura-ondarearen ahultasunari eta hura errespetatzearen garrantziari buruzko mezurik ia batere ez.

Azterlan hartako emaitzak ikusita, eta papereko gidaliburuak heziketarako baliabide bikainak izan daitezkeela jakinda, ICCROMek bilera batera gonbidatu zituen, UNESCOren babespean, turismo-giden zenbait argitaratzaile, ondarea babesten eta zaintzen diharduten zenbait aditu, Leku eta Monumentu Historikoen Nazioarteko Batzordearen (ICOMOS) ordezkariak eta Mu-seoen Nazioarteko Batzordearenak (ICOM). 2003an egin zen bilera, Erroman (Italia), eta turis-mo-gidetan kontserbazio-gaiak sartzeko aukera aztertzen aritu ondoren, oso emaitza onak lor-tu ziren: turismo-giden eremuko argitaletxerik garrantzitsuenek –besteak beste, Lonely Planet, Touring Club eta Michelin argitaldarek– hurrengo gidaliburuetan irakurleak kontzientziatzeko mezuak sartuko zituztela onartu zuten. Ekimen pilotu haren arrakastak bultzatuta, gaiak eragi-ten dien beste talde batzuetara ere hurbildu ziren sustatzaileak, hala nola bidaiaria-antolatzaileen elkarteetara, estatuetako turismo-bulegoetara, airelineetara eta turismo-azoketara, gu guztion ondarearen ahultasunari buruzko mezua munduan ahalik gehiena zabaltzeko.

Informazio gehiago nahi izanez gero, jo webgune hauetara: www.iccrom.org, www.icom.museum eta www.icomos.org

Basamortuko hiri islamikoen espiritua berreskuratzen, Mauritanian

Ouadane, Chinguetti, Tichitt eta Oualata Mauritaniako basamor-tuko lau hiri dira, eta Gizadiaren Ondarearen Zerrendan daude 1996. urteaz gero (Sidorenko-Dulom, 2003). Oasi oparoetan

eta ur-putzuen inguruetan eraikiak, herri sedentario eta nomaden arteko harremanerako gune garrantzitsuak izan dira lau hiriak Erdi Arotik. Saharan zehar gatzak, urrea eta esklaboak garraia-tzeko bideak haietan zehar igarotzen zirela eta, XV. mendea izan zen lau hirien urrezko garaia. Zenbait herri sedentario eta nomada elkarrekin bizi izan zirela eta, batetik, eta haien izate moral nahiz materialak nahasi egin zirela eta, bestetik, lekuaren espiritu berezi bat sortu zen hiri haie-tan, era askotako lankidetzan oinarrituta. Espiritu hori bertako auzoen giroan eta arkitekturan da nabari, batik bat; haietan, izan ere, argi eta garbi ageri da zenbat eta zenbat talde tribal eta komunal bizi eta aritu izan diren elkarrekin.

XX. mendearen erdialdean, lau hirietako egoera sozioekonomiko oinarritzkoa aldatzen hasi zen, Mauritanian bertan gertatutako aldaketa estruktural itzelen ondorioz. Garapen sozioekono-mikoko gune berriak sortu ziren kostalde osoan, eta basamortuko hirietako biztanleriaren exo-doa ekarri zuen horrek. Gainera, herri nomada ugari sedentario bihurtu izanak eta jarraian zen-bait lehorte gertatu izanak handitu egin zuen exodoa. Egoera ikusita, Mauritaniako gobernuak



erreforma-programa bat jarri zuen abian; pobrezia murrizteko zenbait neurri zeuden tartean, eta haien helburuetako bat haxe zen, hain zuzen: aukera ekonomiko eta sozial berriak eskainiz, basamortuko biztanleen exodoa geldiaraztea.

2002an, gizadiaren ondare izendatutako Mauritaniako hiriak babesteko eta garatzeko alderdi askoren arteko programa baten barruan, UNESCOk, Mauritaniako gobernuak eta Munduko Bankuak konbentzio bat sinatu zuten, Ouadane, Chinguetti, Tichitt eta Oualatako hirigune historikoen birgaitze eta garapen iraunkorrek lotutako proiektu pilotu bat bultzatzeko. Proiektuaren helburua garbia zen: exodoa geldiarazteko estrategia bat lantzea, eta hala, leku baliotsu horiek hutsik gera zitezten eragozte. Estrategia hura zela tarteko, lau hirietako hiriguneak birgaitzeko esparri bat lortu zen, eta bertako komunitateetan garapen sozioekonomiko iraunkorra sustatzeko bidea ekarri zuen horrek. Hiri haietako espiritua berriro pitz zedin lortzeko, zenbait tailer antolatu ziren lehenbizi, herritarrak eta eragile politiko nahiz teknikoak jabetu zitezten zein garrantzi handikoa den arkitektura-ondarea babestea, eta treba zitezten leku horiek birgaitzeko finantziatio-iturriak aurkitzen. Gaur egungo nomadismo-modu bat da turismoa, zentzu zabalean; eta alde horretatik, oso bide egokia izan liteke bai lanbide eta ogibide tradizionalak berriro indartzeko, bai jarduera berriak sortzeko, bai bisitariari harrera nahiz ostatu emateko ahalmena hobetzeko.

Turismo iraunkorrerako hezkuntza: jemertarren irribarrea babesten, Angkorren

Gaur egun, Kanbodiako biztanleen %36 inguru pobrezia-mugatik behera bizi da, eta aldi berean, Asiako Hegoekialdean bisitari gehien hartzen dituen erakargune

turistikoetako bat Kanbodian dago: Jemer Inperioko zenbait hiribururen hondakinak (IX.-XV. mendeak), hain zuzen. Asiako arkeologia-leku nagusietako bat da Angkor, eta UNESCOren ekimen bati esker ikus liteke hura gaur egun, 1992an Angkorreko Arkeologia Parkea Gizadiaren Ondarearen Zerrendan sartzea erabaki zuela eta. Angkor babesteko deia egin eta leku hura nahiz haren inguruak babesteko programa zabal bat abian jarri eta hamar urtera, beste deialdi bat egin zen: ordukoan, turismoa garatzeko programan herritarrek beraiek aktiboki parte har zezaten sustatzeko. Gorde dezagun jemertarren irria esaldia ikurriz hartuta, arkeologia-lekuak babesteko lanak eta turismo-etorria modu eraginkor nahiz iraunkorren kudeatzekoak uztartzea du helburu deialdiak: Angkorreko irribarre jemertarra turismo-oldetik babestea, eta aldi berean, enpresa txikiak turismoko sare komertzialetan sar daitezten erraztea, hain zuzen. Bide horretatik jota, pobrezia murriztuko da, eta bertako nutrizio-, hezkuntza- eta osasun-egoera hobetuko. Edo hori espero da, bederen.

Programa hori abian jartzeko, UNESCOk mintegi bat antolatu zuten 2003an, Angkor Babesteko eta Kudeatzeko Kanbodiako Agintaritzarekin (APSARA) eta Frantziako AIDETOUS gobernu kanpoko erakundearekin elkarlanean, hainbat hezitzaile Angkorreko turismo-garapen iraunkorrek lotutako gaietan trebatzeko. Mintegi hartatik abiatuta, gazte kanbodiarrak trebatzeko programa bat jarri zen abian, turismo-alorreko profesionalengan, turistengan eta bertako herritarrengan turismo etiko eta iraunkorri buruzko kontzientzia nola piztu irakasteko. Hasierako



proiektu horren ondoren beste hainbat hezitzaileen trebakuntzak etorri beharko luke, eta batik bat, emakumezkoen parte-hartzea areagotzea, batetik, eta bestetik, enpresa txikientzako aukera eta enplegu ugari sortzea. Hori espero da, alde batera, eta bestera, deialdiaren arrakastak turismo iraunkorarekin lotutako gaien buruzko kontzientzia piztea ere bai, nola herrixka, barruti eta pagodetako funtzionarioengan, hala lehen hezkuntzako irakasleengan. Horrek guztiak, azken batean, beren iraganaren eta antzinako monumentu haienaren berri jakiteko aukera emango lieke bertakoei, eta hala, beren historia kontatzeko gai sentitzeko aukera ere bai.

Informazio gehiago nahi izanez gero, jo webgune hauetara: www.unesco.org, www.aidetous.org eta www.autoriteapsara.org

Turismoa, kultura eta garapena, Mendebaldeko Afrikan

XXI. mendearen hasieran, munduko turista guztien hogeirena soilik erakartzen zuen Afrikak (2005ean,

%4,5). Eta gainera, Afrikan bertan ere egoera ez dago batere orekatuta, nazioarteko turista gehien-gehienak iparraldera eta hegoaldera joaten baitira. Egoera hori ikusita, eta turismoa garapen iraunkorrerako bide bikaina izan litekeela jakinda, Senegalgo Ordezkaritza Iraunkoraren ekimen bat jarri zuen abian UNESCOk, aztertzeke ea Mendebaldeko Afrikan turismoa garatzeko zer-nolako aukerak dauden eta ea estatu- nahiz azpieskualde-mailan horretarako zer oztopo dauden.

Afrikaren garapenerako esparru estrategikoaren ildotik (Afrikar Batasuna - NEPAD, 2001)⁶, proiektu pilotu hark ere ikuskerara hau zuen oinarri-oinarrrian: Afrikan ekonomia-garapena lortzeko erronkei helduko bazitzairen ezinbestekoa zela pobrezia desagerrarazteko ikuspegi oso eta bateratu bat izatea, eta haren oinarri izan behar zutela, besteak beste, giza gaitasuna areagotzea edo garatzea, bakea erdietsi eta sendotzea, informaziorako eta komunikazio-teknologietarako bideak zabaltzea, eta eskualdeen arteko lankidetzak indartzea. Azpieskualdeei zegokienez, ikusita maila horretan sekulako eragina izan zutela bai globalizazio-prozesuen azkartasunak bai haren ondorioz sortutako kontzentrazio nahiz mugikortasun ekonomiko berriek, eta ikusita, halaber, itzeleko arazoak zeudela nazio- nahiz azpieskualde-mailako kultura-identitateei zegokienez, hiru helburu nagusi finkatu zituen proiektuak, eta haiek lortzeko estrategiak hartu zituen ardatz, batik bat; hona hemen hiru helburuak: baliabide ukigarriak babestea eta berregitea, turismoaren prozesu dinamikoetan herritarrak ere sartzeko (baina errespetua eta zuzentasuna gordez), eta komunitate-espirituari eustea.

Sei herrialdetako batzordeek hartu zuten parte proiektu hartan: Burkina Faso, Cabo Verde, Ghana, Mali, Niger eta Senegalgo batzorde nazionalak, hain zuzen. Ikerketarako oinarriak finkatu zituzten, lehenbizi, denentzat berberak; eta gero, egoerak aztertzeari ekin zioten (Komla eta Veirier, 2004). Hona hemen azterlanen helburuak: (a) azpieskualdeen mailan kultura, turismoa eta garapena zenbateraino zeuden lotuta aztertzea; (b) instituzioen zeharkako estrategiak eta

6. Afrikar Batasunerako Erakundeak (OUA) Aljeriako, Egiptoko, Nigeriako, Senegalgo eta Hegoafrikako estatuburuiei egindako mandatu baten ondorioz sortu zen NEPAD esparru-agiri estrategikoa. Afrikaren garapen sozioekonomikorako esparru bateratu bat antola zezatela adierazi zuten mandatu hartan, eta OUAren XXVII. gailurrak onartu zuen esparru-agiri estrategikoa formalki, 2001eko uztailean.



sektoreen arteko sinergiak identifikatzea, kultura-turismoaren kalitatea nahiz lehiakortasuna hobetzeko; (c) erabaki tekniko eta politikoak hartzeko ardura zutenengan kultura-turismoari buruzko kontzientzia handitzea; eta (d) proiektu berriei ekitea, zenbait erakunde eta abarrekin elkarlanean, hala nola Nazio Batuen erakundeekin, lankidetzeta-agentziekin, estatu kideekin eta sektore publiko nahiz pribatuekin. Ikuspegi horrek oso emaitza onak izan zituen. Alde bate-tik, azterlan haietatik ateratako datuak balio handiko informazioa izango zaie parte hartu zuten herrialdeei, bai estatu-mailako bai azpieskualde-mailako erabakiak hartu eta politikak finkatu beharko dituztenean; eta bestetik, munduko beste leku batzuetan hartu eta molda daitekeen eredu ere bihurtu da.

Informazio gehiago nahi izanez gero, jo webgune honetara: www.dakar.unesco.org

Emantzipazio ekonomikoa eta pobreziaren kontrako borroka

Nazio Batuek pobrezia murriztea hartu zuten helburu nagusi *Milurtekoko aldarrikapen* (2000), eta UNESCOk, helburu hori lortzen laguntzeko, herriek emantzipazio sozioekonomikoa lor dezaten sustatzeko proiektu ugarietan dihardu, aktiboki jardun ere. Proiektu bakoitzak bertako egoerari erantzun nahi dio, eta testuinguruak ez dira berberak bazter guztietan. Baina maiz askotan, herritarrek krisi-mota berberari egin behar diete aurre: deskolonizazio-prozesuaren, gerra hotzaren amaieraren eta azken urteotako globalizazio-prozesu azkarraren ondorioz bai nazioartean bai estatu- eta azpieskualde-mailetan gertatutako aldaketa estrukturalak eragin-dakoari, hain zuzen. Gertaera horiek aldaketa ekonomiko eta demografiko itzelak eragin zituz-ten ia mundu osoan, eta aldaketa horiek arrisku larrian jarri zuten kultura- eta natura-baliabide ukigarri nahiz ukiezinak zaindu, babestu eta berregitea. Gainera, mugimendu horien eragina are handiagoa izan zen garatzeko bidean dauden herrialde batzuetan, pobrezia-egoera larria izanik biziraupen sozial eta ekonomikoa izaten baita epe laburrean premiazkoa, eta ez ondare-baliabideak babestea (Migrazioetarako Nazioarteko Erakundea, 2005). Herriak eta herritarrak ekonomikoki emantzipatzeko proiektuetan UNESCOk zertan eta nola lagundu duen aztertuko dugu atal honetan.



Kulturen eta gizon-emakumeen Sahara: turismo iraunkorra garatzeko estrategien bila

Nazio Batuek premiazko eske bat egin zien erakunde espezializatu guztiei, Milurtekoko aldarrikapenaren bidez (NBE, 2000): har zitzatela pobrezia desagerrarazteko neurriak, erabateko lehenasunez. Eske horren harira dator, hain zuzen, atal honetako proiektua: Kulturen eta gizon-emakumeen Sahara: Saharan turismo iraunkorra garatzeko estrategien bila, pobrezia kontrako borrokaren barruan. Izan ere, Nazio Batuen deiar erantzun nahian, eta Pobrezia desagerraraztea gaia ardatz hartuta, 2001eko azaroan zenbait proiektuz osatutako Ekintza Plan bat onartu zuen UNESCOren Batzorde Nagusiak (tartean Saharakoa), XXXI. bilkuran. Ekintza Planaren oinarrian, bai eta aukeratutako proiektuen oinarrian ere, kezka bat da nagusi: globalizazio-prozesu azkarraren ondorioak, oro har, eta haren eraginez estatu-nahiz azpieskualde-mailetan gertatutako aldaketa estrukturalenak, zehatz esatera.

Saharari dagokionez, natura-baliabideen urritasunarekin eta gehiegizko ustiapenarekin lotuta daude nagusiki arazoak –batik bat, ur-eskasiarekin (NBE, 1994)–, horiek arriskuan jartzen baitituzte bai oasietako ekosistema ahulak bai basamortuko herri erdi nomaden bizimodua. Arazo horiei erantzun nahian, hauxe du helburu proiektuak: UNESCOko kide eta Saharan mugakide diren estatuak, bai eta eskualde horretan diharduten turismo-eragileei ere, turismo iraunkorra sustatzeko lankidetzazko estrategiak abian jartzen laguntzea (Boumedine eta Veirier, 2003). Beraz, Saharako hamar estatuak daude sartuta proiektuan (Aljeria, Egipto, Libia, Mali, Maroko, Mauritania, Niger, Sudan, Tunisia eta Txad, alegia), eta garapen iraunkorrerako egoera egokia sortu eta pobrezia arindu nahi horretan, estrategia bakar bat du ardatz, estatu denentzat berbera, turismoarekin lotutako auziei denek nola heldu finkatzeko: enpleguari, sortzeko ahalmenari, produktuak sortzeari, eta ondarea nahiz ingurumena zaindu eta babesteari, besteak beste.

Proiektu horietatik abiatuta zenbait gomendio, printzipio eta neurri sortu ziren, parte hartzen ari ziren estatuak beraiek estatu-nahiz azpieskualde-mailan abian jar zitzaten; kultura-politikaren eremuko bitartekoak eta esparruak lantzearekin lotuta zeuden batik bat, eta turismoa bitarteko moduan baliatuz zenbait helburu lortzea zen ardatza: herrien emantzipazioa, natura-nahiz kultura-baliabideak zinez babestea, eta kultura arteko elkarriketa eta bakea sustatzea. Informazio gehiago nahi izanez gero, jo webgune honetara: www.unesco.org (kultura eta kultura-turismoa estekak).

Diziplinarteko ikuspegi berritzaileak sortzen, Aral itsasoaren arloan

Turismoa eta kultura hain dira eremu zabalak, haietan oinarritutako garapen iraunkorrerako egoerak sortu nahi izanda elkarren artean lotuta dauden hainbat diziplina izan behar baitira kontuan, gaiari ikuspegi egokitik begiratu tuko bazaio. Horregatik, krisi-egoeretan eta

aldaketa estruktural handikoetan pobrezia diziplina askotatik heltzen dioten proiektu ugari sartuta dago UNESCO. Horren adibide da, besteak beste, Aral itsasoaren arloan



diziplinarteko ikuspegi berritzaileak sortzen izeneko zeharkako proiektua, hainbat erakunde eta abarrek batera elkarlanean aritu baitzen UNESCO hartan, hala nola Garapenerako Ikerketarako Alemaniako Zentroarekin, eta Uzbekistan nahiz Kazakhstango gobernu, eskualdeetako arduradun politiko eta komunitate akademikoekin.

Proiektu guztiak bezalaxe, testuinguru jakin batean eta arazo jakin batzuei erantzun nahian sortu zen hura ere: pestizidak eta ongari kimikoak erabiltzearen ondorioz Aral itsasoaren arroan zeukaten krisi ekologiko, ekonomiko eta sozial larria konpontzen saiatzea zen helburua, lurzoruak gazitu izanak eta kutsadurak hamaika arazo eragin baitzituen ordurako. Osasun-arazo kronikoak eta langabezia- nahiz emigrazio-tasa altuak ziren zantzu agerikoenak, eta krisiaren sorburua garbi zegoen: gehiegizko ureztaketa eta monolaborantzak eragindako mendetasuna, hain zuzen. Sobietarren garaian hala ezartzearen eraginez, izan ere, kotoia zen inguruetakoa ia labore bakarra, eta hura landu ahal izateko, ur-kantitate itzelak atera behar izan zituzten Aralen itsasoratzen diren ibai nagusietatik.

UNESCO proiektu horretan sartzearen xedea eskualde-garapenerako eredu egokiak taxutzen eta abian jartzen laguntzea zen. Lurzoria eta ura modu iraunkor eta eraginkorrean erabiltzeko behar zuen izan ereduaren oinarria, eta proiektuaren helburua, berriz, toki-mailan lanpostuak eta diru-sarrerak sortzea, pobrezia murrizteko. Horretarako, natura- nahiz kultura-ondareko baliabideak babestu, sustatu eta modu iraunkorrean garatuko ziren, eta turismo-sektorean jarduera ekonomiko iraunkorrek sortuko. Hainbat alderdiren arteko elkarlan horri esker, antzinako Khorezm zibilizazioaren aurkikuntzarekin lotutako zenbait proiektu sortu dira, hala nola turismo-ibilbideak sortzekoak, turistak tokietan bertan maila txikian eta era integratua hartzeko moduak eta yurta-kanpamenduak, eskulangintzako produktuen ekoizpena eta salmenta lantzekoak, gidaliburuak sortzekoak, eta turismoko profesionalak trebatzeko proiektuak. Proiektuak ikuspegi oso eta diziplinartekoa izatea zeharo lagungarria izan da, ezbairik gabe, turismo-jarduera sortu berriak eskualdearen garapenerako estrategia zabalaren barruan sartzeko. Proiektuak aktiboki sustatu zuen, besteak beste, ura aurrezteko teknologien erabilera, bai eta beste labore batzuk lantzea ere, hala nola koloregai naturalak, sendabelarrak eta fruitu nahiz barazkiak, bai inguruko hotel eta jatetxeetan erabiltzeko, bai eta, jakina, bertako herritarrek jateko ere. Informazio gehiago nahi izanez gero, jo webgune hauetara: www.unesco.org (kultura eta kultura-turismoa estekak) eta www.zef.de

Kultura-turismoko politiken bidean, Baltikoan

Estoniak, Letoniak eta Lituaniak independentzia lortu zutenetik (1991n izan zen hori), hiru herrialdeetako turismo-sektoreak erabat aldatu behar

izan dira egituraren aldetik; nahitaez aldatu, gainera, turismo-sektorea ere moldatu beharra baitzegoen eskualdeko berrantolaketa politiko eta ekonomikora, eta batik bat, turismo-merkatu berriak zabaltze horretara. Baltikoan sortzen ari zen turismo-industria hura ekonomiaren, gizartearen eta kulturaren aldetik iraunkorra izan zedin lortzeko, eta eskualdeko kultura-ondareko baliabideak babestu eta hobetu ahal izateko, beraz, UNESCOk funtsezko eginkizuna bete zuen Estoniako, Letoniako eta Lituaniako batzorde nazionalekin elkarlanean kultura-turismoko politika baltikoei buruzko



agiri bat lantzeko eta idazteko prozesuan: *The Baltic Cultural Tourism Policy Paper* izan zen agiria. *Milurtekoko aldarrikapen*arekin bat (NBE, 2000), kultura-turismoko zerbitzuak sortzeko estrategiak finkatu ziren agiri horretan, denak ere bideragarriak eta kalitate handikoak, bertakoentzat nahiz nazioarteko bisitarientzat pentsatuak, eta helburu orokor hauetarako lagungarriak: demokratizazio-prozesua sendotzea, pluralismoa eta kultura arteko elkarrizketa sustatzea, pobrezia murriztea, eta eskualdean bertan nahiz eskualdetik kanpo bakezko harremanak bultzatzea.

Premiazkoa zen zenbait arlotako xede eta interesak uztartzea (hala nola turismo-industriaren xedeak nahiz interesak, politika publikoen arduraren zutenean eta ondarea babesten ziharduten erakundeekin), eta hori akulu izan ziteza proiektuari. Kultura eta kultura-jardunak garapen sozioekonomikoa lortzeko ekimenen bihotzean bertan kokatzea zen UNESCOren nahia, eta proiektuaren espiritua ere horrekin guztiz bat zetorren. Bestalde, kulturaren eta garapenaren arteko loturak sendotzen laguntzen zuen, turismoaren bidez, eta horrenbestez, Garapenerako Kultura Politikei buruzko Gobernuarteko Batzarrean onartutako Ekintza Planarekin (1998) ere bat zetorren proiektua.

Politika zehatzei buruzko azken agirira iritsi aurretik, hainbat eztabaida publiko antolatu ziren hiru herrialde baltikoetan. Sortutako diziplinarteko lantalde haietan turismo-sektorearen ordezkariak zeuden, bai eta kultura-politiketarako arduradunak ere, eta estatu-mailan ez ezik, eskualde-mailan ere jardun zuten. Talde haien lanaren ondoren, Kultura Turismoari buruzko Baltikoko Konferentzia antolatu zen Tallinnen, 2003ko maiatzean; hantxe aurkeztu zen agiri-proiektua, eta eztabaidatu. Baltikoko hiru herrialdeetako estatu-agintariak, instituzio publikoak, gobernuz kanpoko erakundeak eta sektore pribatuko erakundeak ez ezik, nazioarteko erakunde guztiak ere izan ziren bertan: UNESCO, Munduko Turismo Erakundea, Europar Batasuna, ICOMOS, ICOM, Ministro Kontseilu Nordikoa, etab.

Informazio gehiago nahi izanez gero, jaitsi *Baltic Cultural Tourism Policy Paper* (UNESCO, 2003d) agiria, webgune honetatik: www.unesco.org (kultura esteka).

Baliabideak kudeatzeko tokiko sistemak eta tokiko ahalegina, Asian eta Ozeano Barean (LEAP)

UNESCOk aspalditik du onartua erabat beharrezkoa dela tokian tokiko komunitatearen parte-hartzea bultzatzea, kultura- nahiz natura-ondare diren lekuak babestu eta zaintzeari dagokionez. Uste hori da, hain zuzen, LEAP programaren oinarri etikoa. Eskualde-mailako

ekimen bat da LEAP, eta Asiako nahiz Ozeano Bareko ondare-baliabide ugari eta askotarikoak tokiko komunitateek kudea ditzaten sustatzeko jarri zen abian. Garapen iraunkorra sustatzea eta lekuan lekuko komunitateak emantzipatzeko nahiz pobrezia arintzeko egoera egokiak sortzea da UNESCOren xede nagusia, eta LEAP programa ere ildo beretik dator, komunitateek bertako ondarea babestearen alde jardun dezaten sustatzen duenez gero, indarrean den lege-esparruaren barruan eta babeste-kontuetan aditu direnen gidaritzapean, betiere. LEAP programako jardueren helburua, beraz, ondare diren lekuetan edo inguruetan bizi direnei laguntzea da: leku horien zaintza eta kudeaketa bere gain har dezaten sustatzea, bisitariei leku horiek



interpretatu beharko zaizkienean ere protagonistak bertako herritarrak izan daitezten bultzatzea, eta hala, tokian tokiko herritarrei aukera ematea ondare-baliabideen babesari onura ekonomiko nahiz soziala ateratzeko. Programaren estrategia garbi dago, horrenbestez: tokian tokiko komunitateek aktiboki parte har dezaten sustatzea, bai bertako ekonomiaren garapenean bai kudeaketan, betiere kulturalan, historian eta ingurumenean oinarrituta.

Estrategia hori Asian eta Ozeano Barean taxutu eta landu zen, hasiera batean, hango ondare-leku eta kultura-paisaia gehienetan bertakoak bizi dira eta. Maiz askotan ikusi denez, horrelako lekuetan askoz eraginkor eta iraunkorragoa gertatzen da kultura- nahiz ingurumen-baliabideak kudeatzeko sistemak herrialdean bertan taxutzea, eta ez administrazio-kontuetan oso bestelako ohiturak dituzten herrialdeetatik halakoak inportatzea. Horregatik, UNESCOk zenbait proiektu pilotu jarri zituen abian, tokiko kudeaketa-sistema horien azpian dauden ohituretan eta balioetan oinarritutako garapen-estrategiak sustatzeko. LEAP programaren estrategia hori abian jartzeko, zenbait urrats egin ziren. Lehenbizikoa, zenbait partaidetza-jarduera antolatzea, interesa zuten tokiko taldeak mobilizatzeko, haiek azter zezaten zer-nolako ezaugarriak eta indar ekonomikoak zeukaten bertako kultura- nahiz natura-baliabideek. Bigarren urratsa, baliabide horiek garatzea, baina bai errentagarri bai iraunkor gertatzeko moduan, horrela baizik ez baitziren lagungarri izango beste helburu orokorrako batzuk lortzeko: pobrezia murriztea, emantzipazio ekonomikoa sustatzea eta ahalmena sortzea, hain zuzen. Zenbait lekutan jarri dira abian proiektu pilotuko jarduerak, froga moduan, eta haietan oinarrituta, hamar urratseko sekuentzia bat osatu da, urratsei jarraitu ahala komunitateetako kideek apurka-apurka beren gain har dezaten ondare-baliabideak babesteko, kudeatzeko eta garatzeko ardura. LEAP programaren jarduera-egitura hori eredu moduko bat izan liteke, beraz: leku pilotu horietarako ez ezik, eskualdeko eta, orobat, mundu osoko beste hainbat komunitatetara eraman eta oso baliagarri izan litekeen eredu bat, alegia.

Informazio gehiago nahi izanez gero, jo webgune honetara: www.unescobkk.org/index.php?id=2083

Turismoaren bidez komunitateak emantzipatzen, Erdialdeko nahiz Hegoaldeko Asiako mendialdeko eskualdeetan

Turistek egiten duten gastutik gehiena bidaiako kostua, ostatua eta jan-edana ordaintzeko izaten da, eta tokiko kultura- nahiz natura-lekuetara sartzeko, berriz, ia batere ez, maiz askotan doakoak

izaten baitira, edo bestela, oso merkeak. Horrenbestez, turistek gastatzen duten ia diru guztia ez da tokian bertan geratzen: atzera herrialde garatuetako ekonomietara itzultzen da. Arazo horri konponbide bat bilatu nahian, pobreen aldeko zenbait estrategia landu ditu UNESCOk, Nazio Batuetako beste erakunde batzuekin eta gobernuo nahiz gobernuz kanpoko hainbat erakunderekin elkarlanean, enpresa-aukerak sortuz tokian tokiko herritarren egoera sozioekonomikoa hobetzen laguntzeko. Estrategia horien berariazko helburuetako bat hauxe da: herritar horiek turismo-sektoreko zirkuitu komertzialetan sartzeko trebatzea. Herritarrek ekonomian parte hartze horrek, gainera, kultura- nahiz natura-baliabideen ahultasunaz jabetzeko eta haiek babestu beharraz kontzientziatzeko ere balioko luke.



Mota horretako ekimena da, esate baterako, Kultura-turismoaren eta ekoturismoaren garapena Erdialdeko nahiz Hegoaldeko Asiako mendialdeko eskualdeetan izeneko diziplinarteko proiektua. UNESCOk pobrezia eta, batik bat, pobrezia larria desagerrarazteko taxututa daukan diziplinarteko estrategiaren parte da proiektu hori, eta alde horretatik, tokiko komunitateen, estatuetako bertako nahiz nazioarteko gobernuz kanpoko erakundeen eta bidaia-agentzien arteko lankidetzaren sustatzea du helburu, tokian tokiko komunitateek ere aukera izan dezaten turismoak diru-sarreraren eta lanpostuen aldetik ematen dituen aukerei onura betea ateratzeko. Aipatutako eskualdeetan kultura-turismo eta ekoturismo iraunkorrak gara daitezten sustatzen du proiektuak –komunitateen oinarrituak, beraz–, eta turismo-garapenaz baliatuz beste helburu orokorrago batzuk lortzea du xede nagusi: pobrezia murriztea, nekazari-exodoa geldiaraztea, eta kultura-nahiz natura-ondareak babestea, hain zuzen ere.

Bhutan, India, Iran, Kazakhstan, Kirgizistan, Nepal, Pakistan eta Tajikistango mendialdeko hamar lekutan jarri da abian proiektua, eta komunitateen oinarritutako turismo-mota horretaz baliatuz tokiko ekonomia-ekimenak sustatzea eta enplegua sortzea du ardatz, batik bat bertakoak trebatuz eta heziz, herritarren etxeetan ostatu emateko aukerak sortuz, eta kalitate handiko eskulangintza-produktuak eginez eta salduz, hori guztia helburu nagusi bat lortzearen: Asian ekonomiaren aldetik okerren dauden eskualdeetako bat hura izanik, bertan lanpostu iraunkorrak sortzea eta pobrezia murriztea.

Mendialdeko eskualdeetako ondarea babestu nahian, Erdialdeko nahiz Hegoaldeko Asiako eskualderik urrunenetako batzuetan bizi diren komunitateei horixe irakasten zaie: turismoaren bitartez nola erabili bertako natura- nahiz kultura-baliabideak, ekonomia garatzeko, baina etekinak ahalik eta modurik zabalenean banatzeko moduan, eta batik bat, baliabide horiek ondo babesteko moduan, hurrengo belaunaldietakoek ere aukera izan dezaten haietaz gozatzeko eta haietatik onura ekonomikoa ateratzeko. Emaitzak hainbat eragileri jakinarazten zaizkie gero, hala nola garapenerako agentziei, gobernuz kanpoko erakundeei, turismo-ministerio eta -sailei, bidaia-antolatzaileei eta, oro har, herritarrei, datu-base elektronikoen baten eta lineako bitartekoen bidez, ikasitakoek eta jardunbiderik egokien berri izan dezaten.

Proiektu horren baitan egindako jarduerak garrantzi handiko bi sari jaso zituzten, 2005ean: bata, Ohorezko aipamena saria, Responsible Tourism Award direlakoen barruan (ardurazko turismorako sariak), eta bestea, Global Vision Award for Comunity Outreach izenekoa, New Yorkeko *Travel and Leisure Magazine* aldizkariak emana. Horrek ederki erakusten du zein interes handia piztu zuen proiektuak turismoarekin eta garapenarekin lotutako komunikabide eta taldeetan. Zenbait erreportajeren aztergaia ere izan zen proiektua, hala nola 2004ko *Lonely Planet Guide to Central Asia* argitalpenean, Tajikistani buruzko atalean, *The Silk Roads Trail Blazer Guide* gidaliburuaren 2005eko argitaraldian, eta *National Geographic Adventure* aldizkariaren 2005eko abuztuko zenbakian.

Informazio gehiago nahi izanez gero, jo UNESCOren www.unesco.org/culture/ecotourism webgunera, edo bestela, proiektuan parte hartu duten erakundeen orri hauetara:

www.rspn-bhutan.org, www.mountain.org, www.himalayan-homestays.com, www.snowleopardconservancy.org, www.sikkiminfo.net/ecoss/, www.kazakhstan-ecotourism.org, www.novinomad.com, www.nepaltrust.org, www.camato.org.pk eta www.acted.org



Kultura arteko elkarrizketa eta bakea sustatzen

2001. urtea Zibilizazioen arteko Elkarrizketarako Urtea izendatu zuten Nazio Batuek. Herrien arteko elkarrizketa bilatu nahi horren azpian –eta oro har zibilizazio edo erlijio deritzenena ere bai (UNESCO, Katalunia, 1994)–, uste sendo hau dago: herriek elkarren berri jakiteak eta elkarren artean harremana izateak berrmatuko duela munduan bakea, eta orobat, elkarbizitza (Annan, 1999; UNESCO, 2001b). Horregatik, elkarren berri jakite horretarako eta elkarrekin harremana izate horretarako egoera egokiak sortzen laguntzeko, hainbat proiektu eta ekimenetan hartu du parte UNESCOk mundu osoan; besteak beste, mundu-, eskualde- nahiz azpieskualde-mailako zenbait konferentziaren antolaketan, eta azpieskualde-mailako zenbait proiektu eta ibilbide abian jartzeko lanetan. Alde horretatik, turismoa funtsezkoa izan da, zentzurik zabalenean; hots, gizon-emakumeek beste herri batzuen errealitate sozialaren berri jakin nahian batera eta bestera mugitzea. Ekimen guztiak ez dira testuinguru berean sortu, noski: batzuetan, gerraren osteko adiskidetze-prozesua zen testuingurua; beste batzuetan, estatuz haraindiko edo azpieskualde-mailako ibilbideak sortzea; eta beste zenbaitetan, globalizazioaren esparru zabal horretan tokian tokiko ezaguerak sustatzea. UNESCOk bultzatutako horrelako zenbait ekimen aztertuko ditugu atal honetan.

Etorkizunean elkar hartuta ibiltzeko zubiak eraikitzen: kultura arteko bitartekotza, Balkanetan

Jugoslavia ohian izandako gatazka armatuaren ostean, bitartekotza kulturalerako proiektu bat jarri zuen abian UNESCOk Balkanetan, Sarajevon duen ordezkariarekin eta Italiako gobernuarekin elkarlanean. Proiektuaren helburua garbi zegoen: Balkanetako gutxiengo nazional eta

etnikoen kultura-tradizioen pluraltasuna hobeto ulertu eta onartzeko eta haien arteko bizikidetzaz ahalik bakezkoena izateko egoera egokiak sortzea. Horretarako, gerran suntsitu edo hondatutako ondare-baliabide ukigarriak konpontzea eta berregitea zegoen proiektuari, alde batetik, eta bestetik, ondare-baliabide haiek erabiliz bertako herrien arteko elkarrizketa-modu berriak sortzeko eta haien arteko loturak edo harremanak leheneratzeko bideak aurkitzea ere bai.

Auzi horiei heltzeko, eta gatazka modu baketsuan konpontzeko testuinguru egokia sortzeko, zenbait ekimen taxutu eta jarri ziren abian, denak ere toki-mailan; besteak beste, auzi horiek hezkuntza formal nahiz informalean sartzeari, eta tokiko eragileen arteko topaketak erraztea, gazte-trukerako programak antolatuz, batik bat. Ondare ukiezineko baliabideak indartzeko ere abiarazi ziren zenbait ekimen, bertakoen artean denak komunitate bereko kide direlako sentimendua eta inguruko ondarearen jabe denak direlako zentzua sortzeko.



Aipagarriak dira, alde horretatik, bertako erlijio-komunitateentzat garrantzi handikoak ziren zenbait monumentu eta eraikin konpondu eta berregiteko abian jarritako proiektuak, denak ere UNESCOko zuzendari nagusiak nahiz Bosnia-Herzegovinako gobernuetako ordezkariak 1995ean sinatutako Lankidetzarako Memorandumaren bidez eginak. Proiektu haietako bat izan zen, hain zuzen, Mostarreko Stari Most zubi zaharra (XVI. mendekoa) berregitea; UNESCOk izendatutako nazioarteko aditu-talde baten gidaritzapean egina, garrantzi sinboliko itzela izan zuen proiektu hark: Munduko Bankuak finantzatuta eta zenbait estatu kideren ekarpenei esker (Turkia, Italia, Herbehereak eta Frantzia), zubia konpondu eta 2004an berriro zabaltzeak Mostarreko hiri etnikoki banandu hura atzera ere batzeko aukera ekarri zuen. Testuinguru berean, Hego-ekialdeko Europako eta Italiako kultura-ministroek aldarrikapen bateratu bat sinatu zuten, kultura-ondareari balioa gehitzeari buruzkoa, eskualdea egonkortzeko eta garapen iraunkorra bultzatzeko bitarteko gisa (UNESCO, Mostarreko aldarrikapena, 2004a).

Informazio gehiago nahi izanez gero, jo webgune honetara: www.unesco.org (kultura eta kultura arteko elkarrizketa estekak).

Esklabotzaren ibilbidea: ezagutzak jakinarazten eta iraganarekin adiskidetzen

Oraina lehenaren ondorio izan ohi da, hein handi batean; eta berdin gertatzen da errealitate sozial eta demografikoekin ere: oraingo egiturak neurri handi batean ezaugarri eta testuinguru historiko jakin batzuen

ondorio direla, alegia. Horregatik, ezaugarri, egoera eta testuinguru horiek zer-nolakoak izan ziren jakitea garrantzi handikoa da, gaur egungo mundua eta gaur egungo gatazkak, arazoak nahiz tentsioak ulertuko badira. Tentsio horiek, izan ere, iraganari buruzko ikuskera okerra izateagatik sortu ohi dira maiz askotan, eta iragana interpretatzeko moduan bat etorri ezinagatik ere bai zenbaitetan. Tentsio horiek desmitifikatzen eta gainditzen laguntzeko, iraganeko gertaerak enpirikoki berriro aztertzeko zenbait proiektutan aktiboki hartu du parte UNESCOk.

Laguntza horren adibide da, besteak beste, Esklabotzaren ibilbidea izeneko proiektua gauzatzeko egindako lana. Haitik eta Afrikako zenbait herrialdek egindako proposamen batetik sortua, Afrikaren, Europaren eta Amerikaren arteko esklabo-salerosketa berriro aztertzea zuen helburu proiektuak, bai zentzu sinbolikoan bai zentzu literalean, eta 1994ean heldu zitzaion ofizialki lehenbizikoz hari, Esklabotzaren Ibilbidearen Nazioarteko Batzorde Zientifikoaren lehenbiziko bileran, hain zuzen, Ouidah hirian (Benin): Gineako Golkoan esklabo-salerosketarako izan zen gune nagusietako batean, beraz. Ibilbide kontzeptuaren bidez, herrien, zibilizazioen eta kulturen mugimendu dinamikoa eman nahi zen aditzera, eta esklabotza kontzeptuaren bidez, berriaz, ez soilik esklabo-salerosketari dagokionez mundu osoan izandako fenomenoak, baizik eta, zehatzago esatera, Mediterraneo itsasoan eta Indiako Ozeanoan nahiz Ozeano Atlantikoan zeharrekoa.

Hainbat ikerlari aritu ziren lanean proiektuan: Ozeano Atlantikoan zeharreko esklabo-salerosketaren eta Indiako Ozeanoan nahiz Mediterraneo itsasoan izandakoaren kausak eta esklabotza-motak aztertzen ziharduten hainbat, eta esklabo-salerosketa hark batik bat Europa, Afrika eta



Karibeko herrietan izandako ondorioak ikertzen ziharduten zenbait ere bai. Horrekin batera, informazio hori guztia ahalik gehiena zabaltzeko zenbait programa ere jarri ziren abian; hain zuzen ere, esklabo-salerosketaren historia enpirikoari buruzko ezaguerak, haren ondorioei buruzkoak eta gaur egungo esklabotza-motei buruzkoak ahalik eta jende gehienari helarazteko. Hala, UNESCOk kultura-turismorako duen programa oinarri hartuta, Afrikan, Amerikan eta Indiako Ozeanoaren inguruko eskualdean Esklabotzaren ibilbidearen baitako zenbait lekuren sare bat sortu zen. Tes-tuinguru horretan, beraz, esklabotzari buruzko kultura arteko elkarrizketarako funtsezko oinarriak sortu zituen turismoak, batetik, eta historia-ondareko baliabideak tokian tokiko herrien emantzipa-ziorako eta pobrezia arintzeko erabili ahal izateko oinarriak ere bai, bestetik. Informazio gehiago nahi izanez gero, jo webgune honetara: www.unesco.org (kultura eta kultura arteko elkarrizketa estekak).


Ezagutza-sistema indigena eta lokalak, gaur egungo gizarte global honetan (LINKS)

Gizarte-mota guztiek dute ezagutza-sistema jakin bat, denak ere konplexuak, so-fistikatuak eta eskuarki era-ginkorrak, kultura- nahiz na-tura-inguruneak eta haietako

baliabideak ulertzeko eta azaltzeko balio dutenak. UNESCO, tokian-tokian sortutako jakintza-mota horien garrantzi itzelaren jakitun, ezagutza autoktono edo tokiko horiek aztertzeke eta babesteko zenbait programatan aritu da laguntzen, azken urteotan emandako zenbait aldarrikapen eta kon-bentziorekin bat, hala nola Rioko aldarrikapena nahiz *Agenda 21* delakoa (1992), *Kultura-anizta-sunari buruzko aldarrikapen unibertsala* (2001) eta *Kultura-ondare ukiezina babesteko* konbentzioa (2003). Programa horiek guztiek garbi zuten helburua: tokian-tokian egoera egokiak sorraraztea, ko-munitate bakoitzean sortutako ezagutza-, esperientzia-, jardunbide- eta adierazpen-mukuruari irau-narazteko, batetik, eta bestetik, haiek guztiak funtsezko baliabide bihurtu eta komunitateen eman-tzipaziorako erabiltzeko, marjinazioaren, pobrezia- eta pobretze-prozesuaren kontrako borrokan.

Programa horien ikuspegia ulertzeko, oso argigarria da, esate baterako, sektore arteko LINKS ekimena: Ezagutza-sistema indigena eta lokalak, gaur egungo gizarte global honetan. 2002an abiarazia, zeharkako proiektu horrek UNESCOren programako bost sektoreak hartzen ditu kon-tuan, eta hauxe du helburu: komunitateek bertako aldaketa ekologiko, kultural eta sozialeko prozesuekiko daukaten kontrola areagotu eta indartzea, komunitateen baitan ezagutza tradi-zionalen transmisiorako mekanismoak suspertzea, eta ezagutza nahiz kontrol horiek ohitura-zko zer arau eta prozesuren bitartez eskuratzen diren identifikatzea. LINKS ekimenaren baitako proiektuak hainbat eskualdetan abiarazi dira: Asian, Hego Amerikan, Erdialdeko nahiz Ekialdeko European eta Hegoaldeko Ozeano Barean, zehatz esatera.

LINKS ekimenak nola jarduten duen ikusteko, Salomon Uharteetako Marovo aintziran egindako proiektua hartuko aztergai. Bertakoek Marovo aintziraren natura-inguruneari buruz zer zeki-ten aztertzean zetzan proiektua (Hviding, 2005). Marovoarrek arrantza, nekazaritza eta oskol-bilketa izan dute betidanik bizimodu, baina azken urteotan turismoaz eta baso-ustiaketaz ere ari dira baliatzen. Hori ikusita, erabat premiazkotzat jo zen bertakoek tokiko natura-inguruneaz



zer zekiten aztertu eta horri buruzko inbentarioa egitea, batetik, eta bestetik, natura-inguruneari buruzko ezagutza hori argitaratzea, bertakoei ez ezik beste hizkuntza batzuetako hiztunei ere haren berri jakiteko aukera emateko. Premia horri erantzuteko, hortaz, ikerlana egiten eta hura argitaratzen lagundu zuen UNESCOren LINKS ekimenak; hala sortu zen *Reef and Rainforest* (arrezifera eta euri-oihana) izeneko ingurumen-entziklopedia (Hviding, 2005), marovoeraz eta ingelesez argitaratua. Bertako helduek munduari buruz daukaten ikuskera eta herri-ezagutza gazteei transmiti diezaieten bermatzeko eta errazteko, eta Ozeano Bareko beste bazter batzuetan nahiz munduko beste zenbait lekutan ere antzeko ekimenei hel diezaieten sustatzeko, liburua doan banatu zen Salomon Uharteetako liburutegi eta eskola guztietara. Bestalde, proiektu honek kultura-unibertso jakin bateko zenbait jardunbide eta ezagutza tradizional beste kultura-unibertso batera lekualdatzea duenez helburu, marovoarren eta kanpotarren arteko kultura arteko elkarriketarako zubi-lanak egin ditzake.

Informazio gehiago nahi izanez gero, jo webgune honetara: www.unesco.org (natura-zientziak eta gai bereziak estekak).

UNITWIN sareak eta UNESCO katedrak

UNITWIN / UNESCO katedrak izeneko programak 1992an ekin zion bideari, UNESCOren Batzorde Nagusiak XXVI. bileran (1991) hartutako erabaki bat bezeluz. Ingelesezko termino baten sigla da UNITWIN (the

UNESCO *university twining and networking scheme* terminoarena, hain zuzen), eta hauxe esan nahi du: unibertsitateen arteko senidetzea eta sarea sortzeko UNESCOren ekimena. Garatzeko bidean dauden herrialdeei eta halakoek elkarri modu solidarioan ezagutzak jakinaraziz garapenerako trebatzeko funtsezko baliabidea da ekimen hau, eta oso lagungarri da, horrenbestez, Garapen Iraunkorren aldeko Heziketarako Nazio Batuen Hamarkadako helburuak lortzeko (2005-2014) (NBE, 2003). Hainbat erakunde dira partaide proiektuan; batik bat, unibertsitateak eta beste erakunde akademiko batzuk, eta haiekin elkarlanean, gobernu kanpoko erakundeak eta goi-mailako hezkuntzarekin nahiz trebakuntza-programekin lotutako erakundeak, fundazioak eta enpresak. Programaren onuradunei dagokienez, berriz, garatzeko bidean diren herrialdeetan daude gehienak. 2005eko ekainean, esate baterako, 570 UNITWIN / UNESCO katedra baino gehiago zeuden, 118 herrialdetan banatuta; eta haietan sartuta, jakina, milaka irakasle, ikerlari eta graduondoko ikasle, eta halaber, gizarte zibileko eta ekonomia-sektoreko funtsezko hainbat eta hainbat kide.

UNITWIN / UNESCO katedrak programaren barruan, Paris I (Pantheon-Sorbonne) unibertsitateko (Frantzia) IREST institutuak (turismo-gaietarako ikerketa eta azterketa aurreraturako institutua) nazioarteko ikerketa-sare bat sortu zuen 2002an, kulturarekin, turismoarekin eta garapenarekin lotutako gai nagusiak aztertzeko. Sarearen lehen bilera Parisen egin zen, 2005eko martxoan, gai hau ardatz hartuta: garapen iraunkorra eta kultura-aniztasunaren sustapena (UNESCO, 2005). Guztira 25 herrialdetako 100 hizlari inguru elkartu ziren lehenbiziko bilera hartan, auzi hauek aztertu nahian: zer egoera den egokiena kulturarekin eta garapen iraunkorarekin lotutako gaiak ikasleen nahiz turismo-sektoreko profesionalen heziketan eta prestakuntzan ahalik ondoena sartzeko, eta zer alorrean aritu daitezkeen hezkuntza-eremua eta ikerketa aplikatuko lankidetzan. Azken gomendio bat onartu zen bilera hartan: turismo-heziketa hiru mailatan indartu beharra. Lehenbiziko maila teorikoa da, eta alde horretatik, diziplina anitzeko ikuspegiari heldu beharra



azpimarratu zen bileran; bigarrena metodologiari dagokio, eta turismoari buruzko ikuspegi kualitatibo nahiz kuantitatiboak eta teknologia berrien bidezko urrutiko hezkuntza uztartu beharra jarri zen agerian; eta hirugarrena maila praktikoa da, eta alde horretatik, tokian tokiko gertaerak edo bizipenak aztertu beharra eta turismoarekin lotutako sektore publikoa eta pribatua elkartu beharra azpimarratu zen bileran. Gomendio horretan azpimarratu zenez, bestalde, plataforma birtual bat sortzeko erabakia hartu zen bileran, UNITWIN sarean egindako lana jakitera ematen laguntzeko, batetik, eta bestetik, kultura-turismoarekin lotutako politiken behatoki bat sortzeko, horrelako bat oso foro birtual aproposa bailitzateke, bai kultura-turismoarekin lotutako garapen iraunkorreko eredurik eta jardunbiderik egokienez eztabaidatzeko, bai halakoak biltzeko. Informazio gehiago nahi izanez gero, jo webgune hauetara: www.unesco.org (heziketa esteka) eta www.chaire-unesco.univ-paris1.fr

Kultura-aniztasunari eta turismoari buruz gogoetan: nazioarteko mintegia (Habana, Kuba)

UNESCOko kide diren estatuek 2001ean onartutako Kultura-aniztasunari buruzko aldarrikapen unibertsal hartan, altxor bizi eta berriztagarritzat hartu zuten kultura-aniztasuna, bate-tik, eta prozesu dinamikotzat ere bai, bestetik, garapenerako eta kultura arteko elkarriketarako politika ororen

ardatz izan behar duen prozesu dinamikotzat, gainera. Ikuspegi horretatik babestu nahi zen kultura-aniztasuna.

Aldarrikapenaren 12. artikuluan ezarritakoaren arabera, eginkizun intelektuala dagokio UNESCOri horretan, eta zeregin hau du, nagusiki: “estatu kideen, gobernuo nahiz gobernuz kanpoko erakundeen, gizarte zibilarren eta sektore pribatuaren erreferentzia- eta konbergentzia-organoa izatea, kultura-aniztasunaren aldeko kontzeptuak, helburuak eta politikak lantzeko”. Ildo horri jarraiki, eta Latinoamerikarako nahiz Kariberako Kultura Gaietarako Eskualde Bulegoaren bitartez, nazioarteko mintegi bat antolatu zuen UNESCOk Habanan, turismoaren eta kultura-aniztasunaren arteko loturak aztertzeko, eta gero, alderdi horiek kontuan hartuz, turismoaren eremuko kultura-politikak erabakitzeke ardura dutenei lagungarri izan dakizkien zenbait kontzeptu eta printzipio ezartzeko.

Hiru eguneko mintegi hartan, gobernuetako goi-funtzionarioek eta hainbat akademiko adituk eztabaidarako aukera izan zuten, lau taldetan banatuta; hona hemen eztabaida-taldeetako aztergaiak: nola sartu kultura-desberdintasunak politika publikoetan eta turismoan; nola lortu turistaren eta tokian tokiko herritarren arteko kultura arteko elkarriketa orekatua izatea; nola kontrolatu eta kudeatu turismo-garapenaren hazkuntza; eta azkenik, nola aplikatu egiazkotasan kontzeptua ondare ukiezinean. Oso mintegi emankorra izan zen hura, eta lana turismo-sektorean nahiz turismo-sektorerako egiten duten guztiak pizteko balio izan zuen, kultura-aniztasuna gizadi osoaren ondare dela ulertzera eta gu guztiona den aberastasun hori babesteari eta zaintzeari dagokionez arduraz jokatzera bultzatu zituzenez gero.

Informazio gehiago nahi izanez gero, jo webgune honetara: www.unesco.org/cu/Tourism&Diversity/index.htm



Natura turismo iraunkorrerako erabiltzen

Munduko kultura- eta natura-ondarea babesteari buruzko konbentzioan (1972), balio unibertsal nabarmeneko natura-ondarea babestu beharra azpimarratu zuen UNESCOk; horretarako, ikuspegi estetikoa, zientifikoa, babesteko premia edo edertasun naturala hartuko ziren kontuan. Horri jarraiki, 1970eko hamarkadan Munduko Ondarearen Zerrendan sartutako leku natural gehienak arrazoi hauetako batengatik izan ziren hautatuak: ingurumen- edo geologia-formazio bereziak zirelako, hango ezaugarri geografikoak direla tarteko flora eta fauna endemikorako habitat bereziak zirelako, edo denbora luzean gizakiak ukitu gabe iraun dutela-eta edertasun bereziko inguruneak zirelako. Oso estu hartzen zen hor natural kontzeptua: gizakiak ukitu gabe dagoena edo giza jardunaren arrastorik ez duena zen naturala. Eta definizio estu hori oinarri hartuta, hainbat eta hainbat gune ezin har zitezkeen natura-ondareztat, haien interes edo balio historiko, artistiko edo espirituala giza jardunarekin lotuta zegoelako, hain zuzen. Horretaz ohartuta, eta natural eta kultural kontzeptuen arteko hesia edo aurkaritza abstraktua gainditu nahian, hauxe erabaki zuen Munduko Ondarearen Batzordeak 1992an: Konbentzioa Betearazteko Norabideen barruan kultura-paisaiak kategoria sortu eta sartzea. Erabaki haren ondorioz, eta 1990eko hamarkadaren hasieratik, natura-gune diseinatuak ere kontuan hartzen dira UNESCOren araugintzarako ekintza eta baliabide guztietan (Fowler, 2003). Horri esker, krisi estrukturalak jotako komunitate ugari askoz errazago birbanatu ahal izan dituzte bertako natura-baliabideak, gero haiek helburu turistikoetarako erabiltzeko. Atal honetan aztertuko ditugun bi adibideen bidez, UNESCOk alor horretan betetzen duen eginkizuna eta egiten duen lana ikusiko dugu.

Herritarrak trebatzen, Sao Pauloko gerriko berdeko biosfera-erreserban

Man and the biosphere (gizakia eta biosfera, edo MAB) izeneko programan, aniztasun biologikoa babesteari buruzko ikuspegi bateratu bat landu du UNESCOk, Lurreko aniztasun biologikoa per

se nola babestu eta zaindu aztertzeko ez ezik, baita aniztasun hori erabilera iraunkor ugarien alde baliatzeko ere. Helburu horiek lortzeko, hainbat ekimen jarri ditu abian MAB programak; besteak beste, natura-baliabideak kudeatzeari buruzko erakustaldiak nahiz trebakuntza-saioak eta diziplina arteko ikerketa. Horrenbestez, MAB programa oso baliagarria da, komunitateek ingurumen-gaiak hobeto uler ditzaten laguntzen duelako (klima-aldaketa, adibidez), bai eta giza zientzietako ikerlari nahiz adituek eta natura-zientzietakoek politikak erabakitzeko eta planifikatzeko prozesuetan parte-hartze handiagoo izan dezaten sustatzen duelako ere. Ikuspegi horretatik, turismoaren, kulturaren eta garapenaren alorrean oro har sortutako zenbait proiektu piloturi babesa ematen die MAB programak, baina ardatz nagusi gisa helburu jakin bat hartuta, betiere: natura-baliabideak erabiltzeari eta berregiteari dagokionez, turismo alternatiboan



eskain litezkeen jardunbiderik onenak sortzea eta jakitera ematea. Horrela, gainera, proiektu horien bidez, turismoaren garapen iraunkorraren oinarrian nahiz baliabideen kudeaketarako estrategia egokien oinarrian dauden printzipioak probatzeko aukera ere badago.

MAB programaren barruan, Biosfera Erreserben Zerrenda egin du UNESCOk. Hura, alabaina, Munduko Ondarearen Zerrenda ez bezala, ez du nazioarteko ezein bitarteko arauemailek zuzentzen. MAB programaren filosofiaren ildotik, "lehorreko nahiz kostaldeko ekosistemak dira biosfera-erreserbak, eta aniztasun biologikoa babestearekin batera hura modu iraunkorrean erabili ahal izateko irtenbideak sustatzea dute helburu. Biosfera-erreserbek nazioarteko onarpena dute, baina leku bakoitza zer estatutan dagoen, bertako gobernuari dagokio leku hura biosfera-erreserba izendatzea, eta gero, estatu horretako jurisdikzio subiranoaren baitan geratzen da, beraz. Biosfera-erreserbak laborategi biziak dira nolabait, lurra, ura eta aniztasun biologikoa modu bateratuan nola kudea daitezkeen probatzeko eta erakusteko balio dutenez gero (www.unesco.org/mab).

MAB programaren bidez turismoaren aldetik lortutakoen eta lor daitezkeen adibide ugari eman litezke, hala nola Brasilgo Mata Atlantica biosfera-erreserba, eta haren barruan, besteak beste, Sao Paulo hiriko gerriko berdea. 1992an izendatu zuten eremu hura biosfera-erreserba, eta Brasilen MAB programaren barruan sortutako sei erreserbetako bat da. Sao Paulo hiria azkar hedatzen ari zela-eta, arriskupean zegoen natura-erreserba itzel hura, eta horregatik, hura babesten eta berregiten laguntzeko, hamabost eta hogeita bat urte bitarteko gazteak ekoturismoan trebatzeko programa bat jarri zuen abian UNESCOk. Adin horretako gazte asko eta asko oso gizarte-egoera kaskar eta ezegonkorrean zeuden, eta turismo-sektorearen bidez lan-merkatuan sartzeko eta gizarteratzeko aukera eman zien, beraz, programa hark. Bestalde, herritarrengan ekologiarekiko kontzientzia areagotzea ere bazuen helburu programak, pentsatuz horrek indartu egingo zuela herritarrengan ingurumena babestearen aldeko parte-hartzea, konpromisoa eta militantzia aktiboa. Prestakuntzarako sei zentro sortu ziren, eta 700 gazte baino gehiago aritu ziren bi urteko ikastaro haietan.

Informazio gehiago nahi izanez gero, jo webgune honetara: www.unesco.org/uy/mab

Turismoaren eta ondarearen bidez gazteen pobrezia arintzen: Youth PATH programa

Munduko leku askotan, globalizazio-prozesu azkarrak eta testuinguru politiko berriek aldaketa estruktural itzelak eragin dituzte bai ekonomiaren

aldetik, bai geografiaren eta demografiaren aldetik. Kariben, esaterako, eta beste hainbat eskualdetan ere berdin, monolaborantza espekulatiboa izan da nagusi denbora luzean, eta orain, globalizazioa etorritakoan, lurrarekin lotutako balioak erabat aldatu dira: horra Karibeko krisi estruktural nagusia. Lurra paisaia bihurtu dute, eta hondartzak, aintziratxoak eta beste eremu asko luxuzko bizitegi-auzo edo turistentzako aisialdi-gune bilakatu dira: ekonomia landaketan oinarrituta zegoenean ia inolako balio ekonomikorik edo sinbolikorik ez zuten leku haiek dirutza balio dute orain, beraz. Ondorioa: egoera ezin anibalente eta deserosoagoa. Alde batetik,



lehen baztertuta bizi zirenek gizon-emakume aberats-aberatsen alboan bizi beharra. Eta aldi berean, inguruak hain bizkor urbanizatzearen ondorioz, eta horrek ingurumenean eragindako kalteen eta kostaldeko lurren prezioak izugarri garestitzearen ondorioz, lehendik pobre bazirenak are marjinazio gorriagoan geratzea.

Egoera horretan, komunitatean bertan oinarritutako ekimenak sortzeko beharra ikusi zuen UNESCOk, ingurumen-kontuei buruzko kontzientzia pizteko, alde batetik, eta bestetik, tokiko enpresen eta komunitateen autonomia edo emantzipazioa sustatzeko, turismo-industriaren zirkuitu komertzialetan sar zitezten. Horrela, beraz, Kariberako ordezkartzaren bitartez, Youth PATH programa jarri zuen abian UNESCOk: Turismoaren eta ondarearen bidez gazteen pobrezia arintzeko programa, alegia. Komunitaterik pobreenetako gazteak trebatzea zuen programak helburu, gai izan zitezten bertako natura- eta kultura-baliabideak identifikatzeko eta, gero, baliabide horiek erabiliz, bai estatuko bertako turismo-sektorerako bai nazioartekorako jarduera iraunkorrak garatzeko. Bestalde, Youth PATH programa zela tarteko, eta UNESCOren nahiz Nazio Batuen beste ekimen batzuekin batera, garatzeko bidean dauden uharte txikietakoko gobernuek mundu-mailako sare bat sortu ahal izan zuten, eta Ekintza Programa bat onartu (Barbados, 1994; 1999an eta 2005ean berrikusia - Hadley eta Green, 2004). Eta Youth PATH programari esker, halaber, kostaldeko eskualdeek eta uharte txikiek osatutako plataforma bat sortu ahal izan zen, denen arteko elkarriketa bultzatu eta garapen-mota egoki bat sustatzeko: ingurumenaren aldetik zentzuzkoa, gizartearen aldetik bidezkoa, kulturaren ikuspegitik errespetuzkoa, eta ekonomiaren aldetik bideragarria edo iraunkorra, hain zuzen.

Informazio gehiago nahi izanez gero, jo webgune hauetara: www.unescocaribbean.org eta www.unesco.org/csi





Ondorioak



Gaur egungo mundu honetan, bizkor baino bizkorrago gertatzen dira aldaketak, elkarren artean lotuta daude planetako bazter guztiak, eta gero handiagoa da mugikortasuna. Hartzigarri horiek hor egonda, lehentasun eta eginkizun erabatekoa du oraindik ere kulturak, gu definitzen gaitue-
nez gero, eta munduari zentzia ematen dionez gero. Ez dezagun pentsa, alabaina, denboran eta espazioan izoztuta geratutako zerbait denik kultura; aitzitik, izan ere, gizon-emakumeon premietara eta nahietara moldatzeko etengabe aldatzen doan zerbait da. Bidaiak eta turis-
moa direla tarteko, kulturaren aniztasunarekin eta dinamismoarekin egiten dugu topo, bai eta kultura-ondare ondare ukigarri nahiz ukiezinekin ere. Turismoak, beraz, kulturaren garrantzia ikusarazten digu, hura zuhurtziaz eta zentzuz kudeatuz gero oso baliabide egokia izan bailiteke
pobreziaren nahiz aurreiritzien aurkako estrategietan erabiltzeko, bai eta kulturen arteko bene-
tako elkarrizketarako oinarriak finkatzeko ere.

Urteek aurrera egin ahala, kulturaren nahiz prozesu kulturalen ahultasunaz ohartu dira apurka-
apurka bai turistak bai tokian tokiko herritarrak; eta UNESCO, sektore publiko nahiz pribatue-
tako kide ugariekin elkarlanean, kultura-adierazpen guztiak babesteko eta hobetzeko esparru
edo egitura egokiak sortzen eta sustatzen aritu da, nola elkarrizketa eta ikerketa bultzatzekoak,
hala politikak eta ekimenak lantzekoak eta planifikatzekoak. Gainera, kultura, ingurumena eta
ekonomia estu-estu lotuta daudela agerian jarri du UNESCOk, agiri honetan azaldutako ekimen
eta bitarteko horien guztien bidez; eta hori eginez, funtsezko bi helburu lortzeko bidean aurrera
egiteko aukera berriak sortzen lagundu du: garapenari iraunkortasunaren ikuspegitik bultzatzea
eta pobrezia murriztea, hain zuzen.

Turismoa, definizioz, bidaiak da: denboran, espazioan eta zenbait kultura, herri eta garaitan ze-
har iragaitea. Alde horretatik, beraz, funtsezko eginkizuna du turismoak: alde batetik, kulturek
elkarren berri jakiteko, elkarren artean elkarrizketan aritzeko eta elkar aditzeko iturri izatea; eta
bestetik, garapen-prozesuaren bihotz izatea. Alde batera, esan liteke turista bakoitza bidaiari
bakar bat dela nagusiki, eta hortaz, bidaiak bakoitza banakoa dela; baina bestera, bidaiak turis-
tikoak trukerako eta garapenerako bitarteko ere badirenez gero, argi esan liteke, halaber, giza-
kiak antzina abiatutako bidaiak haren jarraipena direla bidaiak turistikoak. Herri guztiek egin izan
dituzte, eta gizon-emakume guztiek egin ahal izan beharko lituzkete. Denon bidaiak horretarako,
alabaina, ezinbestekoak dira ikerketa, gogoeta, bitartekotza eta koordinazioa, indar sortzaile
eta positibo gisa jardungo badu, eta hura osatzen duten kulturekin harmonian eta oreka betean
aritutako bada.



Erreferentziak

African Union (2001) *New Partnership for Africa's Development Strategic Framework (NEPAD)*. African Union, Addis Ababa.

Amirou R. (1995) *Imaginaire touristique et sociabilités du voyage*. PUF, Paris.

Annan K. (1999) *Dialogue of Civilisations and the Need for a World Ethic*. Oxford Centre for Islamic Studies, Oxford.

Appadurai A. (2002) Cultural Diversity: A Conceptual Platform. In K. Stenou (ed.) *UNESCO Universal Declaration on Cultural Diversity*. UNESCO Publishing, Paris, pp. 9-16.

Appadurai A. (2003) *Modernity at Large. Cultural Dimensions of Globalization*. Minneapolis, University of Minnesota Press.

Ashley C., Roe D. and Goodwin H. (2001) *Pro-Poor Tourism Strategies: Making Tourism Work for the Poor. A review of experience*. Overseas Development Institute, London.

Blanchard P., Blanchoin S., Bancel N., Boëtsch G. (eds.) (1995), *L'Autre et Nous. „Scènes et Types“*. Syros, Paris.

Boo E. (1990) *Ecotourism: The Potentials and Pitfalls*. World Wildlife Fund, Washington, D.C.

Bouchenaki M. (2004) *Intervention de M. Bouchenaki Mounir, Sous Directeur général pour la culture at the Barcelona 2004 Universel Forum of Cultures*. UNESCO, Paris.

Boumedine R. S. and Veirier L. (2003) *Towards a Strategy for the Sustainable Development of Tourism in the Sahara in the Context of Poverty Eradication*. UNESCO Publishing, Paris.

Bruner E. M. (2004) *Culture on Tour: Ethnographies of Travel*. The University of Chicago Press, Chicago.

Canestrini D. (2001) *Travel Trophies: Anthropology of Souvenirs* (in Italian). Bollati Boringhieri, Turin.

Clifford J. (1987) Of Other Peoples: Beyond the Salvage Paradigm. In H. Foster (ed.) *Discussions in Contemporary Culture*. Seattle: Bay Press.

Cohen E. (1992) Pilgrimage and tourism: convergence and divergence. In Alan Morinis (ed.) *Sacred journeys : the anthropology of pilgrimage*. Westport, Greenwood.



Cohen E. (1993) The study of touristic images of native people. Mitigating the stereotype of a stereotype. In D. G. Pearce et R. W. Butler (eds.) *Tourism research*. Routledge, London/New York, pp. 36-69.

Cohen E. (2004) *Contemporary Tourism. Diversity and Change*. Elsevier, London.

Council of Europe (1985, revised in 1992) *Convention for the Protection of Architectural Heritage of Europe*. Council of Europe Archives, Strasbourg.

De Kadt E. (1979) *Tourisme - passeport pour le développement*. Economica, Paris.

Délumeau J. (2000) *History of Paradise. The Garden of Eden in Myth and Tradition*. University of Illinois Press, Champaign.

Edensor T. (1998) *Tourists at The Taj : Performance and Meaning at a Symbolic Site*. Routledge, London.

Enzensberger H. M. (1964) *Eine Theorie des Tourismus. In his Einzelheiten I-Bewusstseins-Industry*. Suhrkamp, Frankfurt, pp. 179-205.

Fabrizio C., Snowdon P., Prasad N. (2000) *Change in Continuity: Concepts and Tools for a Cultural Approach to Development*. UNESCO Publishing, Paris.

Fowler P.J. (2003) *World Heritage Cultural Landscapes 1992-2002*. UNESCO Publishing, Paris.

Geertz C. (1973) *The Interpretation of Cultures*. Basic books, New York.

Graburn N. (1989) Tourism: The Sacred Journey. In V. Smith (ed.) *Hosts and Guests, 2nd ed.* University of Pennsylvania Press, Philadelphia, pp. 22-36.

Greenwood D.J. (1977) Culture by the Pound: An Anthropological Perspective Tourism as Cultural Commoditization. In V.L. Smith (ed.) *Hosts and Guests: The Anthropology of Tourism*. University of Pennsylvania Press, Philadelphia, pp. 129-137.

Hadley M. and Green C. (2004) *Island Agenda 2004+: Coping with change and sustaining diversities in small islands*. UNESCO Publications, Paris.

Hannerz U. (1996) *Transnational Connections: Culture, People, Places*. Routledge, London.

3 Hemmati, M. ed. (1999) *Women's Employment and Participation in Tourism, Report for*

UN Commission on Sustainable Development 7th Session. UNED.

Hennig C. (1997) *Reiselust. Touristen, Tourismus und Urlaubskultur*. Insel Verlag, Frankfurt.



Huntington S. (1998) *The Clash of Civilizations and the Remaking of World Order*. Simon & Schuster, New York.

Hviding E. (2005) *Reef and Rainforest. An Environmental Encyclopedia of Marovo Lagoon, Solomon Islands*. UNESCO Publishing, Paris (Coll. 'Knowledges of Nature').

ICOMOS (1999) *8th Draft of the International Cultural Tourism Charter Managing Tourism at Places of Heritage Significance*. ICOMOS International Scientific Committee on Cultural Tourism Secretariat, Burwood Victoria, Australia.

Intergovernmental Conference on Cultural Policies for Development (1998) Final Report. (Also referred to as Stockholm Action Plan). UNESCO Publishing, Paris.

International Labour Organisation (2001) *Human resources development, employment and globalization in the hotel, catering and tourism sector* (Report for discussion at the Tripartite Meeting on Human Resources Development, Employment and Globalization in the Hotel, Catering and Tourism Sector, Geneva, ILO).

International Organization for Migration (2005) *The Millennium Development Goals and Migration*. UN Publications, New York and Geneva.

Karim, K.H and Wayland, S.V. (2001) Culture, Governance and Human Rights. In: Matarasso, F. (ed) *Recognising Culture. A series of briefing papers on culture and development*. UNESCO, Department of Canadian Heritage and Comedia, with support from the World Bank, London.

Kinnarid, V. and Hall, D. (1994) *Tourism: A Gender Analysis*. Jon Wiley and Son, Chichester.

Kirshenblatt-Gimblett B. (1998) *Destination Culture: Tourism, Museums, and Heritage*. University of California Press: Berkeley, Los Angeles, London.

Komla E.E. and Veirier L. (2004) *Tourism, Culture and Development in West-Africa: For a Cultural Tourism Consistent with Sustainable Development*. UNESCO Publishing, Paris.

Lanfant M.-F. (1980) *Tourism in the Process of Internationalization*. International Social Sciences Journal 17, (1) pp. 14-43.

Lanfant M.-F., Allcock J.B., Bruner E. (1995) *International Tourism: Identity and Change*. Sage, London.

Lash S. and Urry J. (1994) *Economies of signs and space*. Sage, London.

MacCannell D. (1976) *The Tourist: A New Theory of the Leisure Class*. Schocken, New York.



Matarasso F. (2001) *Recognising Culture: A Series of Briefing Papers on Culture and Development*. UNESCO, Department of Canadian Heritage and Comedia, with support from the World Bank, London.

Meyer, D. (2003) *Review of the impacts of previous pro-poor tourism research: Results of a survey to follow-Up pro-poor tourism research carried out in 2000-2001*. PPT Working Paper n° 9, ODI, London.

Morgan, N. and Pritchard, A. (1998) *Tourism, Promotion and Power: Creating Images, Creating Identities*. Jon Wiley and Son, Chichester.

Nash D. (1989) Tourism as a Form of Imperialism. In V. Smith (ed.) *Hosts and Guests, 2nd ed.* University of Pennsylvania Press, Philadelphia, pp. 37-52.

Picard D. and Robinson M. (2005) *Remaking Worlds: Festivals, Tourism and Change*. Channel View, Clevedon. Picard D. (2005) Gardening the Past and Being in the World. A Popular Celebration of the Abolition of Slavery in La Réunion. In D. Picard and M. Robinson (eds.) *Remaking Worlds: Festivals, Tourism and Change*. Clevedon, Channel View Publications.

Picard M. (1992) *Bali. Tourisme culturel et culture touristique*. L'Harmattan, Paris.

Posey D.A. (Ed) (1999) *Cultural and Spiritual Values of Biodiversity. A Complementary Contribution to the Global Biodiversity Assessment*. Intermediate Technology Publications, London (on behalf of United Nations Environment Programme (UNEP), Nairobi).

Rauschelbach B., Schäfer A. and Steck B. (Eds) (2002) *Cooperating for Sustainable Tourism*. Kasperek, Heidelberg (for Gesellschaft für technische Zusammenarbeit - GTZ).

Robertson, R. (1990) Mapping the Global Conditions: Globalization as the Central Concept. In M. Featherstone (ed.) *Global Culture: Nationalism, Globalization and Modernity*. Sage, London, pp. 15-30.

Robinson, M. and Boniface, P. (1999) *Tourism and Cultural Conflicts*. CABI, Wallingford.

Robinson, M. and Phipps, A. (2004) *Worlds passing by: Journeys of Culture and Cultural Journeys*. Journal of Tourism and Cultural Change, Vol 1, n° 1.

Roe, D. and Urquhart P. (2002) *Pro-Poor Tourism: Harnessing the World's Largest Industry for the World's Poor*. International Institute for Environment and Development, London.

Roger, A. (1997) *Court traité du paysage*. Gallimard, Paris.

Ryan, C. and Hall, M. (2001) *Sex Tourism: Marginal People and Liminalities*. Routledge, London.



Said E. (1978) *Orientalism*. Routledge & Kegan Paul, London.

Selännemi T. (2003) On Holiday in the Liminoid Playground: Play, Time, and Self in Tourism. In T.G. Bauer and B. McKercher (eds.) *Sex and Tourism: Journeys of Romance, Love, and Lust*. Haworth, New York/London/Oxford, pp. 19-34.

Shields R. (1991) *Places on the Margin - Alternative Geographies of Modernity*. Routledge, London.

Sidorenko-Dulom A. (2003) *Sauvegarde et Développement des Villes du Patrimoine Mondial en Maurétanie: Exemple d'une Coopération tripartite UNESCO - Gouvernement mauritanien - Banque mondiale*. Paper presented at the conference 'Linking Universal and Local Values: Managing a Sustainable Future for World Heritage', Amsterdam, the Netherlands, 22-24 May 2003.

Smith V.L. (1992) Pilgrimage and Tourism. Special issue of *Annals of Tourism Research*, 19, (1).

Spode H. (1994) Reif für die Insel. Prolegomena zu einer historischen Anthropologie des Tourismus. In: C. Cantauw (ed.) *Arbeit, Freizeit, Reisen: Die feinen Unterschiede im Alltag*. Waxmann Verlag, New York and Münster, pp. 105-123.

Steck B., Strasdas W., and Gustedt, E. (1999) *Tourism in Technical Co-operation. A guide to the conception, planning and implementation of project-accompanying measures in regional rural development and nature conservation*. GTZ, Eschborn.

Stenou K. (2000, rev. 2004) *UNESCO and the issue of Cultural Diversity: Review and Strategy, 1946-2004*. UNESCO Publishing, Paris.

Stenou K. (ed.) (2002) *UNESCO Universal Declaration on Cultural Diversity*. UNESCO Publishing, Paris.

Therkelsen, A. (2003) *Imaging Places. Image formation of tourists and its consequences for destination promotion*. *Scandinavian Journal of Hospitality and Tourism* 3, (2), pp. 134-150.

Third Round Table of Ministers of Culture (2002) *Istanbul Declaration: Intangible Cultural Heritage, Mirror of Cultural Diversity*. UNESCO Publishing, Paris.

Tour Operators' Initiative for Sustainable Tourism Development (2004) *Supply Chain Engagement for Tour Operators: Three Steps towards Sustainability*. UNEP-Sustainable Tourism, Paris.

Turner V. & Turner E. (1978) *Image and Pilgrimage in Christian Culture*. Columbia University Press, New York.

UNCTAD (2004a) *Lisbon Declaration on Sustainable Tourism for Development*. United Nations Conference on Trade and Development, Geneva.



UNCTAD (2004b) *UNCTAD XI - The Spirit of Sao Paulo*. United Nations Conference on Trade and Development, Geneva.

UNCTAD (2004c) *World Investment Report 2004. The Shift Towards Services*. United Nations Conference on Trade and Development, Geneva.

UNESCO (1945) *Constitution of the United Nations Educational, Scientific, and Cultural Organization*. UNESCO Publishing, Paris.

UNESCO (1950) *Florence Agreement*. UNESCO Publishing, Paris.

UNESCO (1952) *Universal Copyright Convention*. UNESCO Publishing, Paris.

UNESCO (1956) *Recommendation on International Principles Applicable to Archaeological Excavation*. UNESCO Publishing, Paris.

UNESCO (1962) *Recommendation concerning the Safeguarding of the Beauty and Character of Landscapes and Sites*. UNESCO Publishing, Paris.

UNESCO (1966) *Declaration of the Principles of International Cultural Cooperation*. UNESCO Publishing, Paris.

UNESCO (1968) *Recommendation concerning the Preservation of Cultural Property Endangered by Public or Private Works*. UNESCO Publishing, Paris.

UNESCO (1968) *Recommendation concerning the Protection, at National Level, of the Cultural and Natural Heritage*. UNESCO Publishing, Paris.

UNESCO (1970) *Convention on the Means of Prohibiting and Preventing the Illicit Import, Export and Transfer of Ownership of Cultural Property*. UNESCO Publishing, Paris.

UNESCO (1972) *Convention Concerning The Protection Of The World Cultural And Natural Heritage*. UNESCO Publishing, Paris.

UNESCO (1976a) *Nairobi Protocol. (Protocol of the 1950 Florence Agreement)*. UNESCO Publishing, Paris.

UNESCO (1976b) *Recommendation concerning the Safeguarding and Contemporary Role of Historic Areas*. UNESCO Publishing, Paris.

UNESCO (1978) *Declaration on Race and Racial Prejudice*. UNESCO Publishing, Paris.

UNESCO (1978) *Recommendation for the Protection of Movable Cultural Property*. UNESCO Publishing, Paris.



UNESCO (1980) *Recommendation concerning the Status of the Artist*. UNESCO Publishing, Paris.

UNESCO (1989) *Recommendation on Safeguarding Traditional Culture and Folklore*.

UNESCO Publishing, Paris.

UNESCO (1995) *The Cultural Dimension of Development: Towards a Practical Approach*.

UNESCO Publishing, Paris.

UNESCO (2000a) *Culture, Trade and Globalization - Questions and Answers*. UNESCO Publishing, Paris.

UNESCO (2000b) *World Culture Report: Cultural Diversity, Conflict and Pluralism*.

UNESCO Publishing, Paris.

UNESCO (2001a) *Convention on the Protection of Underwater Cultural Heritage*. UNESCO Publishing, Paris.

UNESCO (2001b) *Declaration of the International Conference on Dialogue among Civilizations (23-26 April 2001, Vilnius, Lithuania)*. UNESCO Publishing, Paris.

UNESCO (2001c) *Universal Declaration on Cultural Diversity*. UNESCO Publishing, Paris.

UNESCO (2003a) *Convention for the Safeguarding of the Intangible Cultural Heritage*. £

UNESCO Publishing, Paris.

UNESCO (2003b) *Declaration concerning the Intentional Destruction of Cultural Heritage*. UNESCO Publishing, Paris.

UNESCO (2003d) *Baltic Cultural Tourism Policy Paper*. UNESCO Publishing, Paris.

UNESCO (2004a) *Mostar Declaration: Joint declaration by the Ministers responsible for culture in South-East Europe and Italy concerning the enhancement of cultural heritage for the stabilisation and the sustainable development of the region*. UNESCO Publishing, Paris.

UNESCO (2005) *Sustainable Development and the Enhancement of Cultural Diversity*. UNESCO Publishing, Paris.

UNESCO (2005-updated version) *Operational Guidelines for the Implementation of the World Heritage Convention*. UNESCO Publishing, Paris.



UNESCO and Government of Italy (1999) *Towards new Strategies for Culture in Sustainable Development. Paper jointly presented at the 1999 International Conference 'Culture Counts', in Florence, Italy.* UNESCO Publishing, Paris.

UNESCO Centre, Catalonia (1994) *Barcelona Declaration on the Contribution by Religions to the Culture of Peace.* UNESCO Centre, Catalonia, Barcelona.

UNESCO (2005) *First Meeting of The UNESCO/UNITWIN Network - Culture, Tourism and Development, Final Report.* 18th March, 2005, UNESCO, Paris.

United Nations (1945) *Charter of the United Nations.* UN Publications, New York and Geneva.

United Nations (1948) *Universal Declaration of Human Rights.* UN Publications, New York and Geneva.

United Nations (1966a) *International Covenant on Economic, Social and Cultural Rights.* UN Publications, New York and Geneva.

United Nations (1966b) *International Covenant on Civil and Political Rights.* UN Publications, New York and Geneva.

United Nations (1994) *Convention to Combat Desertification in Those Countries Experiencing Serious Drought and/or Desertification, Particularly in Africa (UNCCD).* UN Publications, New York and Geneva.

United Nations (2000) *United Nations Millennium Declaration.* UN Publications, New York and Geneva.

United Nations (2002a) *Report of the World Summit on Sustainable Development (Johannesburg, South Africa, 26 August-4 September 2002).* UN Publications, New York and Geneva.

United Nations (2002b) *The Road from Johannesburg: What was achieved and the way forward.* UN Publications, New York and Geneva.

United Nations (2003) *United Nations Decade of Education for Sustainable Development (2005-2014): Framework for the international implementation scheme.* UN Publications, New York and Geneva.

United Nations Conference on Environment and Development (1992) *Rio Declaration on Environment and Development.* UN Publications, New York and Geneva.

United Nations Conference on the Human Environment (1972) *Declaration of the United Nations Conference on the Human Environment, Stockholm, 5-16 June 1972.* UN Publications, New York and Geneva.



Urbain J.-D. (1993) *L'idiote du voyage*. Payot, Paris. Urry J. (1990) *The Tourist Gaze*. Sage, London.

Van den Berghe P. L. (1980) *Tourism as Ethnic Relations: A Case Study of Cuzco, Peru*. *Ethnic and Racial Studies* 3, pp. 375-392.

Vargas, M. and Aguilar, L. (2004) *Tourism: Gender Makes the Difference, Fact Sheet, 3rd World Conservation Congress of IUCN*. IUCN.

Viard J. (2000) *Court traité sur les vacances, les voyages et l'hospitalité des lieux*. Aube, Paris.

Wagner U. (1977) *Out of Time and Place: Mass Tourism and Charter Trips*. *Ethnos* 42, pp. 38-52.

Whittaker E. (1994) *Public Discourse on Sacredness: The Transfer of Ayers Rock to Aboriginal Ownership*. *American Ethnologist* (21), pp. 310-334.

Winkin Y. (2002) *Cultural Diversity: A Pool of Ideas for Implementation*. In K. Stenou (ed.) *UNESCO Universal Declaration on Cultural Diversity*. UNESCO Publishing, Paris, pp. 17-60.

World Commission on Culture and Development (1995) *Our Creative Diversity: Report of the World Commission on Culture and Development*. UNESCO Publishing, Paris.

World Commission on Environment and Development (1987) *Our Common Future: Report of the World Commission on Environment and Development*. (Also referred to as Brundland Report). Oxford University Press, Oxford.

World Conference on Cultural Policies (MONDIACULT) (1982) *Mexico City Declaration on Cultural Policies*. UNESCO Publishing, Paris.

World Education Forum (2000) *Dakar Framework for Action. Education for All: Meeting our Collective Commitments*. UNESCO Publishing, Paris.

World Tourism Organisation (1999) *The Global Code of Ethics for Tourism*. Ethics Code (recognised by UN in 2001). World Tourism Organisation, Madrid.

World Tourism Organisation (2004) *Tourism and Poverty Alleviation. Recommendations for Action*. WTO, Madrid.

World Tourism Organisation (2005) *Yearbook of Tourism Statistics 2005 (Data 1999 - 2003)*. 57th Ed. WTO, Madrid.

World Trade Organisation (1994) *General Agreement on Trade in Services (GATS) (Article I-XXVI of Uruguay Round Agreement)*. WTO, Geneva.

